

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

86 zenb.

FaceGUK: euskal identitatea eta komunitatearen eraikuntza Internet garaian

Koldo Díaz Bizkarguenaga



DeustoDigital

Pedro Arrupe Giza
Eskubideen Institutua

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

86 zenb.

FaceGUK:
euskal identitatea eta
komunitatearen eraikuntza
Internet garaian

Koldo Díaz Bizkarguenaga

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2016

ERREDAKZIO BATZORDEA

Felipe Gómez Isa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Trinidad L. Vicente, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Cristina de la Cruz, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

ARGITATZE BATZORDEA

Anja Mihr, Utrechtekoko Unibertsitateko Human Rights Centereko ikertzailea, Herbehereak.
Antoni Blanc Altemir, Lleidakoko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna.
Bartolomé Clavero, Sevillako Unibertsitateko Zuzenbidearen Historiako katedraduna eta Indigenen Gaietarako Nazio Batuen Foroko kidea.
Carlos Villán Durán, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea sustatzeko espainiar elkarteak.
Carmen Márquez, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Sevillako Unibertsitatea.
Cristina Churruga, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Eduardo J. Ruiz Vieytes, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Fernando Fantova, gizarte zerbitzuekin lotutako gaietako aholkularia, Bilbao.
Francisco López Bárcenas, Giza Eskubideen Mexikar Akademia, Mexiko.
Gaby Oré Aguilar, giza eskubideetako eta genero gaietako nazioarteko aholkularia eta Human Rights Aheadeko kidea, Madril.
Gloria Ramírez, Mexikoko Unibertsitate Autonomo Nazionaleko Politika Zientziako katedraduna, UNAM, Mexiko.
Gorka Urrutia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Jaume Saura, Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko presidentea, Bartzelona.
Joana Abrisketa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
Jordi Bonet, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Bartzelonako Unibertsitatea.
José Aylwin, Giza Eskubideen behatokiko zuzendaria, Temuco, Txile.
José Luis Gómez del Prado, Mertzzenarioak erabiltzeari buruzko Nazio Batuetako lan-taldeko kidea.
José Manuel Pureza, Ikasketa Sozialen Zentroa, Coimbrako Unibertsitatea, Portugal.
Judith Salgado, Giza Eskubideetako Andeetako Programa, Simón Bolívar Andeetako Unibertsitatea, Quito, Ekuador.
Koen de Feyter, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Anbereseko Unibertsitatea, Belgika.
Manuela Mesa, Bakerako Hezkuntza eta Ikerketa Zentroko (CEIPAZ) zuzendaria, Madril.
Noé Cornago, Nazioarteko Harremanetako irakasle titularrak, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
Pablo de Greiff, International Center on Transnational Justice, New York.
Víctor Toledo Llancaqueo, Politika Publikoetako Zentroa, ARCIS Unibertsitatea, Santiago, Txile.
Vidal Martín, Nazioarteko Harremanetarako eta Kanpoko Elkarrikerarako Fundazioko (FRIDE) ikertzailea, Madril.

Lau honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

*Doktorego Tesian parte hartu zuten
aditu, aritu eta gazte guztiei.*

*Eiderri,
momentu txarretan alboan egoteagatik eta bere maitasunagatik.*

*Txabi eta Gorkari,
ofizioa afizio berriro bilakatzen laguntzeagatik.*

*Zuri,
hegoak emateagatik.*

*Zuri,
liburu hau irakurtzeagatik eta kritika egiteagatik.*

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	13
1. Sarrera: galdera zaharrak espazio berrietan galdera eta erantzun berriak sortzeko.....	15
2. «Gizarte zirina»: xxi. mende hasierako euskal gizartearen inguruko hainbat hausnarketa.....	19
Gizarte Postmodernoaren elementu nagusiak: espazioa eta denboraren birdefinizioa, erakundeen indar galera eta subjektu erreflexiboaren indartzea.....	20
Euskal gizartetik hausnartzen.....	22
3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak, Euskal Herritik eta euskaraz.....	25
Internet ulertzeko eta aztertzeko ikuspuntu ugariak.....	26
Interneten bilakaerarekin, sarean ere dikotomiak gaintitzen dira: «prosumitzailea», «hiperespazioa», «hipertestua» eta «transmedia».....	28
Internet eta egungo gizarte-harremanak ulertzeko online sare sozialen garrantzia eta izaera.....	29
«Facebook»: Facebooken nagusitasuna.....	31
Identitate digitala(ren eraikuntza).....	32
4. Euskal identitatea. Euskal identitatearen eraikuntza.....	37
Identitatea aztertzeko hainbat oinarri.....	37
Identitate kolektiboak eta nazio-identitateak.....	39
Estatua da erantzuna, baina... zein zen galdera? Euskal identitatearen ikerketa-galdera birformulatzen.....	41

Zer da euskal identitatea?	42
Zergatik aztertu «zer da» euskal identitatea?	44
Zelan eraiki izan da euskal identitatea azken hamarkadetan?	46
«Zelan eraikitzen da» euskal identitatea da «zer da» euskal identitatearen erantzuna. Hasierako ikerketa-galderara bueltatuz	47
Euskal identitatea aztertzeko hainbat proposamen	48
5. Euskal identitatearen eraikuntza Facebooken (bidez)	55
Euskal identitatearen inguruko «bizi-penak» Facebooken	55
«Eta zu! Zergatik zara euskalduna?»: soziologikoki definitu ezin eta sozialki erantzun nahi ez den identitatea.	57
Testua, argazkia eta taldea: euskal identitatea hipertestuen bidez eraikiz	59
Euskara «datsegit»: hitz egiten den bezala idazten den hizkuntza «Euskalduna naiz perfileko argazkian mendian ez agertu arren»	62
Taldea «Atsegin dut»: botoi bat klikatzean, euskal komunitateko kide zarenean.	64
Diskurtso eta praktika sozialen arabera sortutako tipo idealak	65
Euskal identitatearen eraikuntza banalak eta utilitaristak	66
Euskal identitatearen eraikuntza militanteak: «euskal identitatearen eraikuntza errazegia da eta kostatu behar du»	69
6. Euskal komunitatea online sare sozialen garaietan: totem-a eraisten	77
Komunitatea eta kolektibitateak online sare sozialetan: elkar ezagutzen ez diren taldekideak	78
Komunitatea eta Kolektibitateak	78
... Facebooken	79
Gazte koadrilak Facebooken	81
Euskal komunitatea eraikitzen duten agenteak	83
GU–GU: talde barneko harremanen bidez euskal identitatea eraikitzen	84
GU–HAIEK: kanpoko taldeekiko oposizioaren bidez euskal identitatea eraikitzen	85
HAIEK–GU: kanpoko taldeek euskal identitatearen eraikuntza baldintzatu eta eraikitzen dutenean	86
Estatuaren indarra eta eragina xxi. mende hasieran: online sare sozialen jostuna?	87
Espainiar eta frantziar estatuen eragin instituzionalen gainetik harreman sozialen bidez euskal identitatea eraikitzen	90
Balitzeko euskal estatu baten onurak euskal identitate digitalaren eraikuntzan	91

FACEGUK: EUSKAL IDENTITATEA ETA KOMUNITATEAREN ERAIKUNTZA INTERNET GARAIAN	11
7. Herri digitala: Euskal Herria 7 lurralde baino gehiago denean . . .	93
«Facebook sakelan eta ibili munduan»: euskal identitatearen erai- kuntza atzerrian	94
Euskal identitatearen inguruko «bizi-penak» atzerritik	94
Facebook atzerrian	96
«Euskara da gure territorio libre bakarra».	98
Ez han ez hemen, Interneten. Facebook espazio gisa: atzerriaren eta aberriaren artean	101
Herri digitala: herriaren territoria Internet garaian	102
Sarea da gure territorio libre bakarra? Herri digitala irudikatzen . .	104
Euskal Herria: lurraldetik, territoriora	107
8. Ondorioak: galdera berriak espazio berrietan galdera eta erantzun berriak sortzeko	109
Euskal identitatearen eraikuntzaren dimentsioak eta logikak	110
Euskal identitatearen eraikuntzaren espazioak eta agenteak	111
Euskal estatua da erantzuna eta zelan eraikitzen da euskal identita- tea da galdera	113
Nork-Nori-Non: subjektu erreflexiboak egunerokotasunean eraiki- tzen duen euskal identitatea ulertzeko modua	116
Euskal Herria irudikatzeko moduak	117
Bibliografia	121

Hitzaurrea

Eusko, euskal, euskotar, euskal herritar, Euskal Herriko, euskaldun; eskualdun, manex; nafar; eta abar. Nahi adina termino nortasun definigaitz batentzat. Beste batzuek bezala estatu propio bat izan bage-nu, errezagoa litzateke nortasunaren mugak zedarritzea (errezagoa batzuentzat noski, orduan beste batzuei sortuko baikenieke definizio arazoa). Izan ere estatuak egiten duten gauzetako bat nortasuna zedarritu eta ezartzea baita. Eta beren meneko pertsona bakoitzari horixe ezarri, edo horixe ukatu.

Kontuak kontu, estaturik ez dugu, eta gaiari hurbiltzen zaion soziologoari gauzak konplikatu egiten zaizkio; konplikatu eta aberastu aldi berean, orduantxe nabarmentzen baita nortasunaren auzia datu estatistiko-koen soiltasuna baino dexente koloretsuagoa dela. Eta honetaz ohartun izatea aurrerapausu handia da gaur egungo mundua ulertu nahi duenarentzat. Izan ere nortasun zedarritu, itxi eta kuestionagaitzen garaia apaltzen ari dela baitirudi. Seguruenik parentesi bat ari da ixten historian, nazio nortasunak erabat definitutzat ematen ziren garaiaren parentesia alegia.

Estatuak zehazten ez duen hori zer den galdetu beharra dugu bezar. Zer da, gizartearen zientziatik, euskal nortasuna? Jakina, erantzun borobilik ez dago hemen. Zientzia gogorretan ez bezala, gizarte zientzietan esku artean barra barra erabiltzen ditugun kontzeptu askok ez diete errealitate kuestionagaitz eta erabat definigarririk erreferentziarik egiten. Pluton planeta osoa ote den eztabaida izan da urte luzee-tan, eta azkenean fisikariak ados jarri direla ematen du: planeta nanoa da. Alabaina zailagoa izaten da, soziologoaren artean, honelako edo halako taldea familia bat, nazio bat, edo dena delakoa ote den zehaztea; edota halako pertsona, euskalduna —edo dena delakoa— ote den ezartzea. Hizkuntzari lotutako adiera bera ere —euskalduna, euskara duena— problematiko bihurtu da azken hamarkadetan, dinamika so-

ziolinguistikoen ondorioz sortutako tipologia berriak ugaldtu (euskaldun-sasiesuskadun-arinaiztar- erdaldun eta abar) eta hizkuntza gaitasunaren, erabileraren, eta nortasunaren arteko loturak hautsi direnean.

Gai honi heldu dio egileak ondoren datorren doktorego tesian. Nortasuna egunerokotasunean eraikitzen den zerbait da, eta besteekiko elkarrekintzan. Elkarrekintzarako espazioak eraldatzen ari diren neurrian, nortasunaren eraikuntzarako espazioak ere eraldatzen ari dira. Lehenago etxean, koadrilan, tabernan zein harraskaren inguruan burutzen zen harreman ugari gaur egun sarean burutzen dira. Beraz, sarean ere eraikitzen da nortasuna. Oinarri hauetatik heldu dio Koldo Díaz Bizkarguenagak FaceBooken gertatzen den euskal nortasunaren eraikuntzari. Horretarako elkarrekintza espaziotzat hartu du FaceBook —komunikabidetzat baino areago—, baina ez edozein espazio: bere arkitekturak ezaugarri propioak ezartzen dizkio, publiko-pribatu-intimo hirukoa berpentsatzea eskatzen du, eta egiturazko mugak ezartzen ditu —kontrola ere, zenbait unetan itogarri bihurtzeraino. Baina elkarrekintza espazioa denez gero, derrigorrezkoa dugu hor gertatzen dena ulertzea, gizartea orokorrean —eta euskal gizartea zehazki— zer den ulertu nahi badugu.

Horretarako erabili duen metodologia metodo induktiboa eta etnografia izan dira. Nire aburuz, oso aukera aproposak, aztertu beharreko zelaia oraindik gehiegi kontzeptualizatu gabe dagoela kontuan hartuta. Metodologia horren erabilerak, eta aurretik landutako marko teorikoak, nortasunaren eraikuntza horretatik eratorritako herri digitalaren ideiaraino iristea ahalbidetu diote. Elkarrekintzak bezala, nazioak ere espazio fisikoetan soilik hezurmamitzen ez direnez gero, komunitate eta herrien izaera digitalaz ere gogoetatu beharrean baikaude.

Honek guztionek ez du esan nahi, eta tesiak halakorik ez dio, FaceBooken aurreko garaiko espazio, nortasun, edota herriak ezabatu direnik. Aitzitik, dinamika berriak lehendik zeudenen gainetik ezartzen dira, geruza geologikoen gisa, gizartearen konplexutasunera osagai berriak ekarriz baina aurrekoak, ez eta haien baldintzapenak, desagertarazi gabe.

Ikertzen jarraitu nahi duenarentzat, lehengairik ez da falta...

2015eko otsailaren 12an
Josu Amezaga

1. Sarrera: galdera zaharrak espazio berrietan galdera eta erantzun berriak sortzeko

«Oraindik ez zarenean zutitu bizitzeko alferrikakoa da esertzea idazteko»

(Henry David Thoreau, Mikel Antzaren Ospitalekoak liburutik)

Soilik barruko sentimenduak astindu eta min ematen duten Tesiak direla onak entzun nuen behin, eta hori egiten saiatu nintzen 4 urtez 24 orduz asteko 7 egunez buru belarri izan nauen eta bizimodua erabat aldatu didan ikerketa prozesu eta jakin-minarekin: aisia eta lana uztartu ditut eta, tamalez, baita *afizioa* zena *ofizio* bihurtu ere. Bide honi esker ikerlariaren «leitmotiv»-ak bideratzen duen ikerketa objektuaren hautaketa, honen trataera teorikoa, hau ulertzeko erabilitako landa lana eta ikasitakoa azaltzeko erabilitako erredakzio mota oso lotuta daudela barneratu dut. Ikerlaria eta pertsona oso lotuta daudela ikusi eta ikasi dut. Doktorego Tesi hau, jakin-mina sortu didan prozesu hau, egunerokotasunean euskal herritarra izateko eta euskal identitatea eraikitzeko ditudan arazoak ulertzeko abiatu nuen. Plastikozko nortasun-agiri bat sentimendua baino garrantzitsuagoa zergatik den entenditzeko; euskaraz ikasteko, hitz egiteko eta idazteko ditudan zailtasunak ezagutzeko eta, zenbait zirkulutan, euskaraz aritzea zergatik hautu ideologikoa balitz bezala zergatik hartzen den ulertzeko; atzerrira joatean izena esan ostean Euskal Herriko historia eta egoera sozio-politikoaren azalpen fina zergatik eman behar dudan jakiteko eta, azken finean, nongoa naizen,

nor naizen eta nire aberria zein den definitzeaz, defendatzeaz eta justifikatzeaz nekatuta nagoelako.

Inguruan gertatzen ari diren aldaketa sozialak ulertzea eta, ahal bada, azaltzea da soziologiaren betebeharr nagusia. Oraindik zutik jarraitu behar dudan une honetan, bititako momentu, leku eta bizipen urriek euskal identitatea¹ motibazio nagusi izatera bideratu naute. Horregatik, Bilboko alde zaharra, gazte koadrilak eta euskal identitatearen eraikuntzaren inguruko ikerketa hasi nuen 2009an. Urtebetean bukatu behar zuen ikerketa horrek, ordea, liburu honetan laburbildu den Doktorego Tesia abiarazi zuen. Izan ere, proiektu horretan elkarrizketatutako gazteek Informazio eta Komunikaziorako Teknologia (IKT deritzotenak) haien artean geratzeko eta komunikatzeko ezinbesteko tresnatzat jotzen zituzten: telefono mugikor eta Internet bidez geratzen baitziren neska-mutil hauek. Beraz, zuzena izanda, ikerketa «objektuak», behatua eta aztertua izan behar zuen aldeak ahalbidetu zuen hausnarketa hau: elkarrizketatutako euskal gazteek identifikatu zituzten inguruan gertatzen ari diren aldaketa sozialak eta tresna zein espazio berri hauen garrantzia.

Gazteek argitutako bidea jarraituz, euskal gazteria ikerketa subjektu eta euskal identitatearen eraikuntza ikerketa objektu bezala mantenduta, hauek, hainbat espazio eta harreman motetan aztertzeo hautua egin nuen: esperientzia gutxi nuen eta begi onez ikusten ez nuen online espazioan eta harremanetan galtzea erabaki nuen. Azken urteetan Facebook eta tankerako online sare sozialak euskal gizarteak dituen harremanen parte izatera pasatu dira eta egunero erabiltzen diren tresna eta espazio bihurtu dira. Fisikoki aurrez aurre egon beharrik ez izatea ahalbidetzen duen harreman mota honek euskal gizartean eta euskal identitatearen eraikuntzan izan ditzakeen ondorioek jakin-min handia piztu zidaten. Euskal identitatea XXI. mende hasieran nola eraikitzen den ezagutzeko asmoz murgildu nintzen sarean eta bere osotasunean erantzun ezina zen galdera orokor hori ikerketa kasu zehatz baten bidez erantzuteko bidea hartu nuen: gazteek Facebooken (bidez) euskal identitatea nola eraikitzen duten ezagutzea.

Era berean, espazio berri honek erantzun beharreko beste zenbait galdera sortu zituen: lehenik eta behin, euskal identitatea eraikitzen al da online sare sozialen bidez? Eta horrela bada, nola eraikitzen da euskal identitatea? Hau da, zeintzuk dira espazio horretan eta espazio horren bidez negoziatzen diren identitate erreferenteak? Zer nolako eragin instituzional eta estrukturala jasaten dute espazio horretan gauzatzen

¹ «Nortasuna» beharrean «identitate» hitza erabiliko dut liburuan zehar, izan ere, nor bere tasuna eraikitzeo aukeraz gain, testuinguruak eta besteek norberaren edota kolektiboaren identitatea eraikitzeo aukerak barnebiltzen ditu kontzeptu honek.

diren praktika sozialek? Eta, elementu eta harreman hauek guztiek nola eragiten dute euskal gizartean?

Aurre-suposizio batzuekin abiatu banintzen ere, Doktorego Tesia esplorazio ikerketa gisa ulertu nuen hasieratik: ikertu gabeko espazio batean murgiltzean zer aurkituko nuen ez nekienez, ikerketa honi zer nolako bukaera eta emaitza emango nion beldurrez hasi banintzen ere, ez nuen hain gai interesgarria nire aurre-erantzunekin mugatu nahi izan. Egoera horretan, etnografiaren hurbilpena beharrezkoa nuen: talde batekin bizi, honen gizarte-praktikak behatu eta ulertzea helburu duena. Metodologia honen gakoa, metodologia berak eraman zaitzan uztean datza. Albo mugak argi izanda, etorriko diren pausuak ez mugatu eta elkarrizketatuei zein ikerketari berari pausu horiek bidera ditzaten utzi behar zaie. Ikerketa eta bizitza elkarren eskutik joan ziren, ikertzaile positibotik ikertu positiora igaroz. Informazio eta Komunikaziorako Teknologiekin (IKT) batera «etnografia digitala»-k ere indarra hartu du aipatu behaketa Interneten sortzen diren hainbat komunitateri aplikatuz aurrez aurreko harremana ahaztu gabe hala ere.

Hau Euskal Herrian lehen aldiz aplikatu nuen Eusko Jaurlaritzako beka bati esker atzerriko enpresetan praktika-egonaldiak egiten ari ziren ikasleek («Erasmus» taldea deituko dudana) sortutako Facebook talde batean murgilduz: gazteak munduko herri ezberdinetan zeuden eta online sare sozial hau aurrez aurre egindako harremana jarraitzeko espazio ezin hobea zuten. Baimena eskatu nien taldean sartzeko eta haien baime-na jaso eta gero, taldea behatzen hasi nintzen: partekatzen eta negoziatzen zituzten nazio-identitate erreferente ezberdinak identifikatu nituen eta zertaz, nola eta zein hizkuntzatan hitz egiten zuten ikusi nuen. Bi aste igarota, taldean parte hartzen hasi nintzen: haien elkarrizketak jarraitu, berri batzuk hasi, nahi beste galdera egin eta nekizkien galderak erantzun nituen; azkenik, talde horretako kide aktiboena identifikatu eta hauekin sakoneko elkarrizketak burutu nituen. Bederatzi hilabeteetako lana egin eta gero, taldea utzi nuen, kideak agurtu eta ordura arte idatzitakoa haiekin partekatu nuen. Ni neu Facebook erabiltzen zuen eta atzerrian zegoen euskal gaztea izanda, neure burua aztertzea erabaki nuen. Ottawan, Oxforden eta Buenos Airesen egindako ikerketa-egonaldietan eguneroko bat idatzi nuen nire bizipenekin ariketa erreflexiboa eginez, etnografia digitala «auto etnografia digitala» bilakatu.

Egindako lanararen ondorioei esker, ikerketa bukatzean, hiru ideia argi plazaratu daitezke:

1. Beste garai batzuetan etxea izan zen moduan, egun, Facebook bezalako online sare sozialek euskal identitatea sozialki eraikitzeko espazio pribilegiatua dira. Erakunde politikoek egungo es-

pazio publikoaren² erabilera monopolizatzen eta arautzen duten heinean, kalean ez bezala, gazteek Facebook bezalako espazio pribatuetan (enpresa pribatu bat den heinean) *egoteko* eta *egiteko* gune pribilegiatua aurkitzen dute.

2. Online sare sozialetan euskal identitatea batez ere logika sozial baten arabera eraikitzen da. Beste garai batean nazioa lortu beharreko objektu politikoa bazen ere, xxi. mende hasieran Euskal Herriaren komunitate ideia edo, beste era batera esanda, herri nozioa batez ere dimentsio sozialeko egunerokotasuneko praktiketara gauzatzen da.
3. Etnografia digitalari esker ezagutu ditudan atzerrian dauden euskal gazteen testigantzek, egun, online sare sozialen bidez Euskal Herria beste modu batean irudikatu eta marrazten dela iradokitzen dute. Atzerrian egon arren, gazte hauek familia zein lagunekin Internet bidez komunikatuz Euskal Herrian sentitzen dira. Modu honetan, espazio geografikoaz gain harreman sozial eta sinboloek ere mugatzen duten Herri digital³ bat sortzen dute.

Laburbilduz, Facebook (eta orokorrean, Internet eta IKT) euskal identitatean eta komunitatean egonkortzean sortutako ondorioak edota, beste era batera esanda, Facebook euskal gizarte moduan gureganatzean «FaceGUK»ek dituen ondorioak landuko ditut datozen kapituluetan. Baina ez ditut nik bakarrik landuko. Ikerketan parte hartu zuten aditu, aritu eta gazteen testigantzak izango dira gidari nagusia eta, horietaz gain, azken urteetan, euskal gizartea hainbat modutan deskribatu duten testigantzak egongo dira kapitulu hasierako zita edo bideo moduan. Beraz, liburutik burua altxatu —«*bizitzeko zutitu*»— eta bideo hauek ikustea komenigarria da, ia derrigorrezkoa, jarraian etorriko den testua ulertzeko eta Euskal Herrian bizi dugun une historiko interesgarriaz eta kitzikagarriaz gozatzeko.

² «Espazio publikoa» kontzeptua batez ere kalea eta plazari erreferentzia egiteko erabiliko dut liburuan zehar. Aurreko hamarkadetan euskal gizarteak topagune nagusia izan duen espazio bezala ulertu dut.

³ Joseba Kamiok (2012) idatzitako txio bati esker *nazio digitala* kontzeptua ezagutu nuen. Liburu honetan «Herri digitala» ideia erabiltzea egokiago dela deritzot: «herria» kontzeptua nazioak ez diren mundu mailako beste errealitate batzuetara hedatu daitekeelako.

2. «Gizarte zirina»: XXI. mende hasierako euskal gizartearen inguruko hainbat hausnarketa

«Cuando creíamos que teníamos las respuestas, de pronto, cambiaron todas las preguntas»

(*Mario Benedetti*)

«Musika zale amorratua. Soziologian doktoratua. Makrobiotikan aditua. Artista frustratua. Liburujale ase ezina. Saiakera filosofikoen irakurle fina. Zutabegile geldi ezina. Blogosferako gatz eta pipermina. Zu, euskal intelektuala, Homo Sapiens kontzeptuala»

(*Mursego*, Eusnob,
<https://www.youtube.com/watch?v=gjLEt4r5eAA>)

Arriskuaren gizartea, Gizarte Postindustrialak, Gizarte Tribalak eta Informazioren Gizartea izendapenak, besteak beste, *Gain Modernitatea* bezalako ideiekin nahasiak aurkitzen dira egungo mendebaldeko gizartea izendatzen saiatzen den bibliografia orokorrean. Ideia anitz hauek egungo gizartearen konplexutasuna erakusten dute eta, era berean, gizarte eredu batetik besterako iragana iradoki ere: aurreko kontzeptu guztiek Gizarte Moderno batetik, liburu honetan deituko den Gizarte Postmoderno baterako trantsizioa adierazten dute. «Post» aurrizkia izendatzeko teorialariek duten adostasun faltak gizarte eredu hau hitz batekin definitu daitekeen aroa den edota hau egiteko une historiko egokia den hausnartzea eskatzen du: semiotikak erakusten duen mo-

duan, ibilbidea bukatzean narratu daiteke istorioa eta, horregatik, izendapenak aroa bukatzean eta denboraren perspektibaz egokiagoak dira.

Garai Postmoderno batean non Michel Maffesollik (1990) proposatzen duen *hirugarren zenbakiaren* ideiak Modernitateko dikotomiak (zuria edo beltza, gizona edo emakumea) gainditu dituen, izendapenak askoz ere konplikatuagoak dira: egun, identitate kolektibo batean eta bestean kokatzen diren posizioez gain, mugan bizi diren errealitate askotarikoak daude (adibidez, Transgeneroa) eta hauek izendatzeko eta, beraz, sailkatzeko zailtasunak biderkatzen dira. Are gehiago, elementu sozialak etengabeko aldaketa eta negoziazioan dauden aro batean, gizarte prozesuen dinamismoak etengabe gainditzen eta birdefinitzen ditu definizio estatiko eta hertsiaik zein ikuspegi dikotomikoak.

Beraz, paradoxikoki, «Postmodernitate» kontzeptu anbigua egungo aroa soziologikoki azaltzeko kontzeptu egokiena dela ematen du: etengabeko mugimenduan dagoen hori ezin denean gelditu, etengabeko eraikuntzan dagoena ezin denean definitu eta oraindik aro horren baitan egonda, termino egokiena dela dirudi. Ludwig Wittgensteinen *Tractatus logico-philosophicus*aren azkenengo arau basikoa jarraituz, «*hitz egin ezin daitekeen horretaz ahoa itxi behar da*» (2003:277). Horregatik, egungo aroa liburu honetan zehar (termino korapilatsua dela onartuz eta zenbait korrontetik kritikatu bada ere) Postmoderno bezala izendatuko da: etengabeko erreproduzioagatik defini ezina den, Modernitatearen ostean datorren eta oraindik martxan dagoen aroa.

Gizarte Postmodernoareen elementu nagusiak: espazioa eta denboraren birdefinizioa, erakundeen indar galera eta subjektu erreflexiboaren indartzea

Modernitatetik Postmodernitaterako trantsizioan hiru dira gaia landu duten autoreek identifikatutako elementu nagusiak: denbora eta espazioaren birdefinizioa, erakundeen indar galera eta subjektu erreflexiboaren indartzea. Batetik, gizarteratze erakundeen eragina aldatu egin da aro batetik bestera: eskola ez da Émile Durkheimen (2003) garaiko gizarteratze espazioa, familia ereduak biderkatu egin dira Talcott Parsons (1960) analisietatik eta fabrika ez da Friedrich Engels eta Karl Marxen (2005) *subjektu historikoaren* habitata⁴.

⁴ Kontzeptu hauen testuingurua kokatzeko, Durkheimek 1922an, Parsonsek 1956an eta Engels eta Marxek 1857an obra hauek lehen aldiz argitaratu zituztela azpimarratu beharra dago.

Egoera honen aurrean, Ulrich Beck eta Elisabeth Beck-Gernsheimek (2006) *zonbi kategoria* eta Zygmunt Baumanek (2003) *erakunde likido* kontzeptuak sortu dituzte. Lehenengo kontzeptuaren bidez autoreek Modernitateko estruktura sozialak Postmodernitatean eragin gabe, kasik hilda, bizi direla azaltzen dute: familia, lana edota politika bezalako etiketak egun mantentzen diren arren, horiekiko dauden irudikapen kolektiboak aldatu egin dira eta hauek ez dute beste garai bateko funtzio bakar eta lineala betetzen. Bigarren ideiak, likidotasunak, erakunde hauek bizi duten transformazioa azaltzeko asmoa du: beste garai bateko indarra eta solidotasuna galdu baitute egun bizirik jarraitzen duten erakundeek. Metafora honek Heraklitoren ibaia iradokitzen du, zeinetan ubidea ezik (erakunde edota estruktura gisa irudikatu daitekeena egun), gainontzeko elementuak ere etengabeko aldaketa batean murgilduta aurkitzen diren: Postmodernitateko erakunde likidoek euren dinamismoa dela-eta, ezin dira definizioen bidez atzeman, hauek heltzen saiatzean esku artetik ihes egiten baitute, nola ura.

Erakundeen likidotasuna eta indar gabetzea, ordea, kolokan jarri beharra dago Richard Sennet (2006, 2007) bezalako autoreen ekarpeneekin. Pentsalari honek azaltzen duen moduan, erakundeen estruktura formalek indarra galtzen duten arren, hauen eragina handia izaten segitzen du herritarren estruktura mentalean: kultura hau, munduan *egoteko* eta *egiteko* modu hau, gizabanakoaren logikaren parte izatera pasatu da indibiduoaren mundu ikuskeran erakundeek filtratze lana egiten dutelako.

Modernitatean erakunde hauek segurtasuna ematen zioten indibiduoari hauen indar, epe luzerako perspektiba eta ezartzen zuten bizimodu lineal, bakar eta koherenteagatik. Horrela, norberaren bizitzaren bukaeran biografia armoniatu bat kontatu ahal izateko, gizabanakoak erakundeek eskaintzen zioten bizimodua (beste bizimodu batzuk ukatzen zizkion bidea) jarraitu behar zuen. Egund, Ulrich Beck (2006) jarraituz, erakundeen estrukturek indarra galdu duten aro Postmoderno honetan, «bizitzeko errezetak» ez dira hain argiak eta, horrela, indibiduoak bizi duen «zuk zeuk egin beharreko biografia» hau dela eta, egungo gizartearen *Arriskuaren gizarte* da. Violadores del Verso (2006) musika taldeak abestu bezala: «*Yo tampoco sé vivir, estoy improvisando*». Subjektuak, egund, bere biografia propioa sortzeko aukera eta beharra du etengabeko aldaketan dagoen eta ia dena ez ziurra den Gizarte Postmoderno horretan. Paradoxikoki, bere bizitza sortzeko askatasunak ziurgabetasuna ematen dio subjektuari eta beste garai bateko segurtasuna bilatuz, erakundeen bizimodua erreproduzitzen du maiz.

Modernitateko gizabanakoarekin alderatuz, egungo Gizarte Postmodernoaren egoeraren jakitunagoa den eta bere biografia sortzeko gaitasun handiagoa duen figura gizabanakoari «subjektu erreflexiboa» deitu

izan dio Anthony Giddensek (1991). Beste era batera esanda, Pierre Bourdieuren (1988) *habitus* kontzeptuaren ildotik, egungo subjektuak hainbat disposizio edo jarrera betearazten dizkion posizioak okupatzen ditu egungo gizartean, baina indarra hartu duen subjektu erreflexibo honek, muga estruktural batzuen baitan, hauek transformatzeko aukera ere badu.

Azkenik, subjektu erreflexibo honek Gizarte Postmodernoan dituen harreman sozialak flexibleagoak edo likidoagoak direla uste dute hainbat autorek (Bauman, 2003). Teorilari hauen ustez, Modernitateko harreman sozial solidoak eta komunitate-eredu bakar, hertsi eta iraunkorak, harreman arin, anitz eta lausoengatik ordezkatuak izan dira. Harreman mota malgu hauen bidez, denboran iraunkorak ez diren eta talde barneko harremanak estuak ez diren kolektiboak sortzen direla uste duten autore hauen kontra, ordez, Michel Maffesoliek (1990) egungo une historikoa *Tribuen aroa* dela defendatzen du: globalizazioaren aroan, kolektibitate lokal indartsuak sortzen direla.

Euskal gizartetik hausnartzen

Aipatu teoria orokor horiek jorratzen dituzten dimentsio guztietatik ikerketa kasua aurkezteko garrantzitsuenak diren espazio sozial eta politikoetan erreparatzen badiegu, euskal gizartearen parte hartze politikoa adibide adierazgarria dela esan daiteke. Beste garai batzuetan dimentsio politikoak zuen indarra, legitimitatea eta mobilizatze gaitasuna aldatu egin baitira azken hamarkadetan. Euskal Herriko kasura mugatuz, azken urteetan sistema politikoak izandako erakundetze prozesuak gizartearen parte hartze politikoa aldatzea ekarri du. Gizartetik bereizi den eta bere horretan itxi den sistema horrekiko parte hartzea modu klasiko batean definituta, ulertuta eta aztertuta (inkestean bidez hauteskondeetako abstentzioa edota alderdi politikoen militante kopurua neurtuz, adibidez) sistema politikoarekiko atxikimendua eta parte hartzea jaitsi egin dela pentsa daiteke.

Arreta soziologikoa maila mikro batean ezartzen badugu, ordea, subjektu erreflexiboari garrantzia emanaz eta bestelako galderak eginez, gizarteak egunerokotasuneko praktika sozialen bidez politika egiten duela esan daiteke —bereziki interesgarria da Aztiker soziologia ikerguneak gai honen inguruan egindako lana (Ormazabal, 2014). Horrela, politikaren beste definizio bat emanaz, espazio publikoaz gain, espazio pribatu zein intimoek duten garrantzia ikus daiteke eta politika gizartean gorpuztu⁵ den praktika eta diskurtsoa dela ondorioztatu.

⁵ Gorpuztu kontzeptuarekin indartu eta «inkorporatu» esanahiak adierazi nahi dira.

Politika egunerokotasuneko bitzan arropan eramaten den sinboloa da (ikurrinak egoitza publikoetan egoteaz gain, kamiseta eta elastikoe-tan aurkitzen dira), diskurtso sozialetan inskribatuta dagoen praktika da eta, liburu honetan landuko den moduan, egunerokotasuneko online praktika sozialetan ere badago. Horrela, subjektu erreflexiboek erakun-deek proposatzen dieten parte hartze politiko ereduetatik kanpo bes-telako espazioak okupatu dituztela esan daiteke. Izan ere, Michel de Certauren (1996) *taktika* ideia jarraituz, xxi. mende hasieran euskal gi-zarteko herritarrek beraienak propio ez diren espazioak habitatu eta hortik politika egiten dutela baieztatu daiteke.

Beste alde batetik, erakundeen indargabetzearen ikuspegi kritikoar-ri jarraituz, estatuaren figura «goitik» (erakunde makroen bidez) zein «behetik» (maila mikroan, egunerokotasuneko harreman sozialen bi-dez) hainbat egoeretan kolokan jartzen dela ikusi arren, Euskal Herriari erreparatuta estatuaren figurak (kasu honetan, espainola eta frantsesa) duen indar-gabezia hain argia ez dela azpimarratu beharra dago. Al-daketa klimatikoak edota erakunde ekonomiko mundialen sorrera bezalako prozesu globalek (maila makro batean) eta egunerokotasuneko arazoak konpontzeko eta gizarte praktiken beharrei erantzuteko ezintasu-nek (maila mikro batean) erakusten duten moduan, estatuaren figura Modernitatetik Postmodernitatera indargabetu egin da.

Baina, Euskal Herriko kasuan eta bereziki euskal identitateari dago-kionez, estatu espainol zein frantsesaren eragina eta indarra argia da oraindik ere: autodeterminazio eskubidea ukatuz, euskararen erabilera instituzionalki oztopatuz edota herri bereko biztanleak bi estatu desber-dinetan banatuz, besteak beste. Horrela, Ane Larrinagak (2012) azaldu bezala, estatuaren gainbehera globalizazio garai honetan zenbait kasu-tan ez da hain argia: herrien arabera hauen indarra eta eragin esparrua oso garrantzitsua baita xxi. mende hasieran. Hori dela eta, Jule Goikoe-txea (2013) eta Mario Zubiaga (2012) jarraituz, euskal estatu baten gar-rantzia eta beharra argia da egungo testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial globalean.

Beraz, estruktura politiko, sozial eta ekonomikoen indarra ikusita, gizarte likidoaren metafora, Euskal Herrian behintzat badirudi egokia ez dela. Era berean, azken aldian gizarte gaseosoak garelako esaten den arren, metafora honek ere eskuetatik ihes egiten digu aipatu estruktura eragin-ak edota gizartean ematen diren botere-harremanen solidotasuna ondo islatzen ez duelako. Kapitulu honen izenburura bueltatuz, badago materiaren egoera fisiko bat erabilgarriagoa dena: zirina. Lorea Agirrek (2010) Berria egunkarian idatzitako *Solido*, *likido*, *zirin* artikuluan erabi-litako metaforak gaur egungo euskal gizartea hobeto deskribatzen du: aipatu estruktura makroen solidotasunaren eta gizarte-praktika mikroen

likidotasunaren artean dagoen gizarte zirina garena esatean, dikotomiak gaudituz, bi hurbilpenen arteko oreka lortu baitaiteke.

Gizarte Postmoderno ziriin honetan identitateak izaera anitza du. Besteak beste, ikuspegi psikologiko batetik Kenneth Gergenek (2006) subjektuaren izaera bakarra baino, askotarikoa dela defendatzen du. Ildo beretik, eta estrukturan eraginean arreta berezia jarriz, Michel Foucaultek (1984) *zatikatutako identitatea* kontzeptua lantzen du, eta subjektuaren izaera anitz hori estruktura askoren bidez zeharkatuta dagoela baieztatu⁶. Liburuan zehar kontuan hartu beharreko ideia proposatzen dute bi autore hauek: identitate zehatz bat eraikitzen den arren, bestelako identitateek duten eragina kontuan hartu beharra dago. Euskal identitatea, beraz, ez da modu isolatuan agertzen ez eta eraikitzen euskal gizartearen, generoak, adinak edota posizio sozio-ekonomikoak eragin zuzena baitute —Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek (2016) lantzen duten moduan.

Hori dela eta, transformatu den gizarte eredu baten baitan euskal identitatea dimentsio soziologiko batetik aztertzeko formulatu beharreko ikerketa-galdera kuestionatu beharra dago. Landutako erreferentzia teoriko horien arabera, erakundeak eta hauen indarra aldatu egin da, subjektuek indarra hartu dute eta identitate Moderno bakar batetik, identitate-eredu anitz batera igaro da gizartearen. Eta, horregatik, bestelako galdera eta tresna kontzeptualak beharrezkoak dira egungo euskal identitatea ikertzeko eta ulertzeko.

Badago espazio bat deskribatu den gizarte honen ezaugarriak (dikotomien gauditzea, subjektu erreflexiboaren garrantzia, denbora eta espazioaren birdefinizioa, identitatearen eraikuntza anitza) barnebiltzen dituen: Internet. Ikus ditzagun elementu hauek guztiak kasu zehatz batean, landu dezagun bolo-bolo dagoen baina euskal gizarte zientzietatik gutxitan aztertu den IKTen gaia eta erantzun ditzagun hainbat galdera: zer nolako garapena izan du Internetek egun online sare sozialak hain arrakastatsua izateko? Nola heldu da euskal gizartearen Twitter euskalduntzeko beharra sentitzera edota alderdi politikoek kanpaina-politikoak Facebook bidez bideratzea ekarri duen gaur egungo egoera honetara?

⁶ Richard Senneten hitzetan, beste garai batean bere bizitzaren bukaeran langile batek bere identitate laborala osatu zezakeen, baina egungo prekaritateak biografia koherente bat sortzea zailtzen du. Era berean, langile identitateaz gain, emakume, gazte edota etorkin identitateengatik zeharkatuta egon daiteke subjektu erreflexiboa: identitate «total» hori, aniztasun bilakatuz.

3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak, Euskal Herritik eta euskaraz

«Kableek atxilotu naute,
bahiturik nago bidaiatzen.
Ihes egiteko giltzak,
giltzapetu nauen arren.
Begiekin hegan egin dezaket
eta hatzekin mugak ezabatu.
Baina ez dakit izango naizen gai,
bidai honetan aske izaten»

(*Kuraia*, Bidaiatzen,
<http://www.youtube.com/watch?v=J0UGbUnoY60>)

Soziologiaren betebeharra ikertzen ari den gai horrekiko kritikoa izatea da, mina eman arren, mina eman arte. Horregatik, min berezia ematen dit Euskal Herriko musika talde onenaren hitzak kolokan jarzteak. Kuraia taldearen kanta honek Interneten inguruan euskal gizarteetan eta, orokorrean, mendebaldeko gizarteetan nagusitu den kezka mahai gainean jartzen du: Internet gizabanakoa eta kolektiboak askatu edo bahitzeko tresna da? Baina dikotomiak gainditzen diren gizarte eredu honetan galdera soziologikoak konplexuagoak dira eta beste termino batzuetan aztertu behar da ikerketa arazoa.

Zaila da Interneten inguruan definizio eta azalpen zehatz bat ematea espazio eta tresna honek barneratzen dituen adar ugariengatik. Izan ere, Daniel Miller eta Don Slaterrek (2000) antropologiatik egiten

duten ekarpenean, Internet maila orokor batean definitu ezin daitekeen ikerketa-objektua dela defendatzen dute. Autore hauen ustez, hainbat espazio, tresna eta logika barnebiltzen dituen kontzeptua izanik, ezinezkoa da Internet zer den definitzea: espazio eta tresna horri erabilera ezberdinak ematen zaizkio herri, genero, adin edota arrazaren arabera eta, beraz, ezin da modu bakar batean ulertu —Pierre Bourdieu (1988) jarraituz, posizio baten arabera disposizio jakin batzuk izango baititu erabiltzaileak. Gizarte Postmodernoa definitzearen ezintasunarekin jarraituz, Internet definitzeko zailtasunak agertzen dira eta, horregatik, hori definitu beharrean, *Interneten* eta *Internetez* egiten diren erabilera sozialak aztertzea da ikertzaile hauen helburua.

Gai orokor hauek gure kasura ekarrita, euskal gizartean IKT eta Interneten inguruan hitz egitean atzerriko diskurtso eta kontzeptuen bidez egiten dugula esan beharra dago. Euskal Herrian gertatzen diren mundu mailako gaiak gure herriaren perspektibatik eta gure hizkuntzaren bidez pentsatu, garatu eta azaldu behar ditugu hauek behar bezala ulertu ahal izateko. Bestela, atzerriko errealitateak gurean erreproduzitu eta inposatuko genituzke euskal gizartearen errealitatea ukatuz. Adibidez, «redes sociales» edo «social media» hitzak jaso eta beste barik euskarara itzuli ditugu «sare sozialak» moduan; ez ditugu jaso eta gureganatu, ez. Horregatik, sare sozialak hitza erabiltzean Euskal Herrian Facebook edo Twitter agertu baino lehen zeuden sare sozialak ukatzen ari gara: koadrilak, esate batera. Estatu espainolean edo Ipar Ameriketako Estatu Batuetan ez dituzte koadrila bezalako laguntasun ereduak, baina gurean egonkortua dagoen sare soziala izanik, Internetenekoei «online sare sozialak» deitu behar diegu. Horregatik, IKT, Internet eta online sare sozialak Euskal Herritik eta euskaraz aztertzen saiatuko gara datozen orrietan.

Internet ulertzeko eta aztertzeko ikuspuntu ugariak

Liburuarekin aurrera jarraitu ahal izateko, ordea, ikerketa-objektua ulertzen eta azaltzen lagunduko duten definizio eta deskribapen analitikoak behar dira, kasu honetan Interneten ingurukoak. Javier Echeverriak (1999) IKTen inguruko ikuspegi historiko orokor ezin hobea eskaintzen du.

1. Lehenik eta behin, Marshall McLuhan buru (1995), egungo mundu global hau sortzeko IKTek izan duten eragina azpimarratzen duen korrante teknologizalea identifikatzen du.
2. Bigarrenik, teknologia mota hauen azterketa psikologiko eta sozialean oinarritzen den korrante mentalista aurkitzen du, Derrick de Kerckhove (1999) moduko autore garrantzitsuak esate batera,

mundu osoko garunak elkartzeko Interneten gaitasuna azpimarratzen duen korronea.

3. Aspektu materialistago batera igaroz, Bill Gates edota George Sorosen ikuspegi merkantilista dago: hauen ustez, IKTen bidez estatuen mugak gainditzen diren garaian, arantzelen mugak gainditu beharko lirarteke.
4. Perspektiba honi kontra eginez, aurreko «merkatu globalaren» izenari «kapitalista» abizena jarri beharko litzaiokeela uste dute zenbait pentsalarik eta, horregatik, Manuel Castellsek (1997) IKT kapitalismo berantiarak esplotazio harreman mota zaharrak mantentzeko edota hauei aurre egiteko sortutako tresnak direla defendatzen du. Interneten gizarteratzea AEBtako gizarteak 70-80 hamarkadetan aldarrikatzen zuen gizarte eta komunitate ereduarekin lotzen du, sistemaren goitik beherako hierarkiari aurre eginez, gizarteko zenbait sektorek komunitate-eredu horizonta-lagoa eta parte hartzaileagoa bilatzen baitzuten Interneten erabilerara masiboarekin.
5. Ikuspegi kritiko honekin jarraituz, eszeptizismora hurbiltzen den homogenizazioen teoriak daude, Paul Virilio (1997) autore erreferentzialena dela. Homogenizazio honek, ordea, demokratizazioa dakarrela defendatzen dute beste hainbat autorek.
6. Azkenik, Nicholas Negroponte (1995) eta antzeko guruek, IKT berez ideia zaharrak apurtzen dituzten eta garai berriak sortzen dituzten tresnak direla azpimarratzen dutela azaltzen du Javier Echeverriak.

Hitz joko bat eginaz, Steve Woolgarrek (2005) aipatu izendapen ugariei *cyberbola* deitzen die: hiperbolearen figura erretorikoa eta hainbestetan erabilitako «cyber» ideiak uztartuz, IKTen inguruko definizioak esanahi propioa izan arte biderkatu diren diskurtso teorikoak direla azaltzeko. Interneten hiru momentu historiko definitze aldera, helburu militarrekin sortu zen aitzindaritza fase horretatik, gaur egun arte *cyberbola* esponentzialki handituz joan dela esan daiteke. Interneten bigarren fase batean, erakunde eta eliteen espazioan jarraituz, mundu unibertsitario Ipar Amerikarrak ezagutzen zuten akademikoa modu erraz eta arin batean konpartitzeko tresna zela ikusi zuen. Hirugarrenik, 80ko hamarkadaraino —jolasteko plataformak sortu ziren arte— gizarteak ez zuen tresna eta espazio hau bizitzeko aukera izan eta honetan parte hartu bezain pronto Interneten logika hautsi zuen. Howard Rheingoldek (1994) teorizatu bezala, Internet erreala edota birtuala ote den eztabaida historikoa gainditu zen orduan, izan ere, jolas *birtualek* ondorio *errealak* zituzten. Eta eztabaida hau gainditzeak bestelako galdera eta lanketa mamitsuago batzuk ahalbidetu zituen.

Interneten bilakaerarekin, sarean ere dikotomiak gainditzen dira: «prosumitzailea», «hiperespazioa», «hipertestua» eta «transmedia»

Internet produzitzen zuen subjektu eta kontsumitzen zuen objektu baten alde bakarreko eta goitik beherako harreman moduan ulertu zen hasiera batean: elite akademiko, instituzional edota merkataritzazko subjektuek sortzen zuten edukia jasotzen zuen gizarteak. Gizarte Modernoen logika dikotomikoa jarraitzen zen Interneten, non, produktore edo kontsumitzaile izateko aukera bakarra zegoen. Chat edota modu sinkroniko batean beste pertsona batzuekin komunikatzea posible egiten zuten plataformekin batera, Internet 2.0 deritzotena (Jones, 1998) garatzen hasi zen: gizartea Interneten parte hartzen hasi zen, Internet bidezko gizarte-harremanak indartuz. Ildo hau, 2004-2005 urteen artean finkatu zen Youtube bezalako plataformen agerpenarekin, izan ere horren bidez, erakundeetatik objektu pasibo gisa tratatzen zen subjektu erreflexiboak bideo propioak sortzeko aukera izan zuen. Elisenda Ardèvol eta Gemma San Corneliok (2007) azaltzen duten moduan, kontsumitzaile izateaz gain produktorea izateko aukera zuen erabiltzaileak, eta beraz, bideo amateurren sorkuntzak aro sozio-teknologiko berri baten ateak zabaldu zituen.

Egun, subjektu eta objektu edota produktore eta kontsumitzaile dikotomiak *prosumitzaile* bezalako kontzeptuekin gainditzen diren Gizarte Postmoderno honetan, online eta offline espazioen arteko dikotomia ere apurtzen da: Internet ez da espazio isolatu bat. Online munduan offline munduko hainbat elementuk ere parte hartzen dute eta, horregatik, dimentsio hori *hiperespazioa* (Gómez, 2002) bezala ulertu beharra dago: bi espazioak, offlinea eta onlinea espazioa uztartzen diren espazio gisa. Dimentsio sozial batetik ikusita, offline munduan jasotako sozializazio prozesuak Interneten gauzatzen diren harremanak baldintzatzen ditu: jaioterriak, generoak, klase ekonomikoak, posizio sozialak edota kapital kulturalak berebiziko garrantzia dute online munduko harremanetan.

Ondorioz, online eta offline espazioak uztartuta badaude, erabiltzailea ez litzateke Interneten «sartu» edo «aterako», mugarik ez duen horretatik ezin atera daitekeelako. Egunerokotasuneko harremanen parte izatera pasatu da Internet eta *norbera* deskonektatzen den arren, *beste batzuek* norberaz esaten dutenagatik, gaur egungo subjektua online mundutik ateratzen ez dela esan daiteke. Adibidez, telefono mugikorretan Internet izateak, 24 orduz Facebook edo Twitterrera heltzen diren mezuak helarazten ditu, eta horren ondorioz, eta Daniel Millerren (2011) «harreman sozio-teknologikoak» kontzeptua hartuz, IKTek egunerokotasuneko harreman sozialak zipriztindu dituztela esan daiteke.

Azkenik, Internet testu anitzez osatuta dagoela azaltzen du Joan Campàsek (2007) *hipertestu* kontzeptuaren bidez. Testua modu lineal eta bakar batean irakurtzeko (goitik behera eta ezkerretik eskuinera) ezintasunari erreferentzia egiten dion termino honek ere Interneten hitz eginez, idatziz, argazki edota bideoen bitartez komunikatzeko aukera dagoela azaltzen du. Hori dela eta, idatzizko harreman testualak gainditzen dituen komunikatzeko mota honi hipertestua deitu izan dio. Ideia honetan sakonduz eta Henry Jenkinsen (2008) lanean oinarrituz, Interneten istorio bera medio ugarien bidez kontatzeko eta hau berau garatzeko aukeraren berri ematen duen *transmedia* kontzeptua lantzen du Carlos Sclarik (2013).

Horregatik guztiagatik, espazioa (edukiak konpartitzeko) eta medioa (komunikatzeko) denez Internet, berau izendatzeko, *Interneten* (espazioa) eta *Internet bidez* (tresna) izendapenak erabili behar dira aztertu eta azalduko den egoeraren arabera: liburu honetan *Facebooken* (*bidez*) esamoldea erabili da.

Internet eta egungo gizarte-harremanak ulertzeko online sare sozialen garrantzia eta izaera

Alejandro Piscitellik (2010) koordinatutako ikerketa batean azaltzen den bezala, Facebook bezalako online sare sozialak *medioen konbergentzia* dira. Hau da, online sare sozialak, testu mota anitz uztartzen duten hipertestua izateaz gain, plataforma ezberdinak barnebiltzen dituzten espazioak ere badira. Hemen, transmedia kontzeptuak («Storytelling» edo istorioak kontatzeko aukeratik haratago ulertuta) indarra hartzen du, izan ere, Facebookeko horman Youtubeko bideoak parteka daitezke: hainbat medio zeharkatu ahal dira plataforma batetik bestera igaroz. Era berean, *arkitektura* kontzeptuarekin online sare sozialek duten egituragatik bultzatzen duten logika aniztasuna agerian uzten du: eraikinekin konparazio bat eginez, etxearen egiturak barruan dauden praktika sozialak baldintzatuko ditu eta, sistemaren egiturak erabiltzailearen jardueretan eragina izango du (adibidez, Twitterrek 140 karakteretan komunikatzera edota Facebookek erabiltzaile guztiontzat berdina den horma urdinean idaztera behartzen du).

Online sare sozialak, beraz, ez dira neutroak eta danah boydek⁷ (2002) Michel Foucaulten (1986) *panoptiko* kontzeptua jarraituz azaltzen duen moduan, online sare sozialak duten arkitekturagatik erabiltzaileen-

⁷ Autoreak bere izen-abizena minuskulaz idazteko hautua errespetatuz.

gan eta praktika sozialetan eragin zuzena duten *panoptiko digitalaren* funtzioa betetzen dute. Kartzelako panoptikoa bezalaxe, beti presente eta begi-bistan dago online sare sozialaren presentzia, kontrol hau fisiko-ki desagertu arren, begirada erabiltzailearengan iltzatuta geratzen delarik. Beraz, Facebook egunerokotasuneko harremanen parte izatetik behar izatera pasatzen ari dela esan daiteke: komunikatzeko aukera ematen duen espazioa izateaz gain, harremanak modu jakin batean izateko bizitzaren zentro den eta zenbait kasutan beharrezkoa den tresna ere baita.

Baina perspektiba hau kontuan izan behar den arren, sistema eta erabiltzailearen arteko harreman hau, ordea, ez da alde bakarrekoa ez eta determinista. Bizitza offlinean bezala, estruktura edo arkitektura horren baitan, harreman hori eraldatuko duten edota horretatik ihes egiten duten praktika sozialak mantentzeko aukera ere badago. William Duttonek (2009) *bosgarren indar faktikoa* edota «*5th State*» kontzeptuaren bidez proposatzen duen moduan, Interneten (bidez) erakundeen indarra kolokan jar daiteke: gizarteak, aurreko garai batean komunikabideekin egin bezala, instituzioek bideratzen duten diskurtso bakarra kolokan jar dezake espazio eta tresna hauen bidez. Manuel Castellsen ustez ere, «*Interneteko sare sozialak, hein handi batean gobernu zein korporazioen kontrolatik at dauden autonomia espazioak dira*», eta, beraz, «*Internetek sumin eta esperantzaren sareei konektatzeko espazio seguru bat eskaintzen* (dute)» (2012:20). Ondorioz, online sare sozialak erakundeek arkitektura zehatz baten bidez baldintzatutako espazioak direla eta, era berean, gizarteak erakundeei aurre egiteko edo hauen diskurtsoetatik ihes egiteko tresnak ere badirela esan daiteke. Gizarte Postmodernoaren bata eta bestea izateko aukeraz gain, beste bi elementu nagusi agertzen dira, beraz: erakundeen indargabetze erlatiboa eta subjektu erreflexiboaren indartzea.

Honengatik guztiagatik, online sare sozialak eta Internet, erakundeen eta gizartearen arteko harremanak aztertzeko espazio egokia dira. Baina, zer dira online sare sozialak? danah boyd eta Nicole Ellisonen gai hauen inguruko ikerketetan erreferentea den definizioa ematen dute online sare sozialek honako ezaugarri hauek bete behar dituztela azpimarratuz:

«Web orrialde bat online sare soziala izateko, lehenik gizabana-koei, profil publiko edo semi publikoa sortzeko aukera eman behar die, bigarrenik, beste erabiltzaile batzuekin konexioa artikulatzeko aukera eman, eta, hirugarrenik, bere konexioen zerrenda ikusi eta erabiltzeko aukera eman behar diolarik. Konexio hauen izaera eta izendapena sare sozial batetik bestera ere alda daiteke.»

(2007:2)

Kontu bat sortuz eta profil bat eraikiz espazio horretan ibiltzeko aukera dago baina lagunak beharrezkoak dira online sare sozialetan *egoteko* eta *egiteko*. Batez ere aurretiaz ezagutzen ziren lagunak online sare sozial hauetan aurkituz, hauekin hitzez, argazki edota bideo bidez komunikatuz, edukiak partekatzeko eta talde ezberdinak atsegiteko eta hauen kide izateko aukera dago. Sonia Livingsgtone-ek (2008) gazte ingelesen kasuan aztertu bezala, online sare sozialak eskolako lagunekin harremanetan segitzeko espazio egokia dira eta, beraz, online sare sozialak ez dira, printzipioz, lagun berriak egiteko espazioak. Facebookeko lehen orrian ere hala agertzen den moduan: «*Facebook ezagutzen duzun jendetik gertu egotea ahalbidetzen dizu*».

«Faceboom»⁸: Facebooken nagusitasuna

Facebookek online sare sozial bezala izendatzeko bete beharreko ezaugarri guztiak betetzen ditu, jakina. Internet ezin dela definitu defendatzeaz gain, Daniel Millerrek (2011) logika, praktika eta mundu mailan ematen zaizkion erabilera anitzengatik, Facebook definitu ezin daitekeen ikerketa-objektua dela dio. Alexander Moneak (2011), Gilles Deleuze eta Félix Guattari (2000) jarraituz proposatzen duen moduan, Facebook hasierarik eta bukaerarik ez duen eta modu lineal eta koherentean ulertu ezin daitekeen sistema errizomatikoa da. Ikerketan aurrera egiteko, berriro ere, Facebookek izandako eboluzioa ezagutu beharra dago.

Clara Ciuffoli eta Guadalupe Lópezen (2012) hitzetan, herri ezberdinen arabera izan dezakeen eboluzio ezberdina kontuan hartu gabe, lau epe ezagutzen zaizkio:

1. 2004-2006ko lehen sortze fasean, Marck Zuckerbergekin unibertsitarioentzako sortutako online sare soziala da.
2. 2006-2008 epean 13 urtetik gorako pertsonentzat sare «publiko» bat izatera pasatu zen.
3. Sare masibo eta irekia bilakatu zen 2008-2010 urteen artean («*atsegin dut*» botoia sortu zen tartea).
4. Aztertutako azken tartean, 2010-2011, web sozial eta pertsonalizatua bilakatu dela baieztatzen dute eta «esperientzia pertsonalizatu konpartituaren» ideia proposatzen dute. Panoptiko digitalaren (boyd, 2002) ideia ezin da ahaztu. Facebooken arkitectura erabiltzaile bakoitzarentzat pertsonalizatua (publizitatea

⁸ Juan Faermanen (2010) *Faceboom. Facebook, el nuevo fenómeno de masas* liburitik hartutako ideia.

erabiltzailearen arabera aldatzen da, adibidez), baina era berean konpartitzen den sistema ere bai baita (lehen aipatutako horma urdin uniformearen bidez).

Plano pertsonala eta kolektiboa uztartzen dira eta espazio intimo, pribatua eta publikoaren gestio desberdinak egiten dira konpartitua den baina esperientzia pertsonalizatuak bizi diren online sare sozial horretan. Era berean, hain urte gutxitan fenomeno honek izandako eboluzio azkarra eta herri ezberdinetara moldatzeko gaitasuna azpimarratzen dute. Autoreek Facebook etengabeko aldaketan dagoen sistema bat dela ondorioztatu dute, eta horregatik online sare sozial hau «*mutante digitala*» (2012:36) gisa izendatu dute.

Beraz, Facebook, gizarte eredu Postmoderno bezalaxe, etengabeko aldaketan dagoelako definitu ezin daitekeen online sare soziala dela esan daiteke, harreman sozialek eta sistemak berak egindako aldaketek berau modu estanko batean definitzeko aukera galarazten baitute. Horregatik, online sare soziala azalduko ez duen deskribapenetan sartu gabe, Facebooken inguruan eta honen bidez sortzen diren praktika eta diskurtso sozialek aztertzea izango da liburu honen helburua: euskaraz gazteen testigantzen bidez, online sare sozial hau zer den, erabiltzaileek zelan ulertzen duten, zeintzuk baliabide dituen eta hauek zelan erabiltzen dituzten landuko dugu.

Identitate digitala(ren eraikuntza)⁹



1. irudia

«Interneten inork ez daki txakurra zarela»

(Peter Steiner, *The New Yorker*reko bineta, 1993)

⁹ «Online» kontzeptua erabiltzean Interneteko plataforma bati eta «digitala» kontzeptua erabiltzean online eta offline espazioak uztartzen dituen errealitate bati egiten zaio erreferentzia.

Kalea edota plaza bezalako espazio publikoak erakundeek monopolizatzen dituzten lekua izanik, egun, online sare sozialek eskaintzen dituzten espazio pribatu eta intimo hauek identitatea eraikitzeke espazio eta tresna pribilegiatuak dira. Kalea bezala, Facebook ere erakundeek eragina eta kontrola duten espazioa dela jakinda, gizarteak enpresa horren espazio pribatua bere egin du: propioa ez den espazio batetik, praktikoki, egunerokotasuneko praktika eta diskurtso sozialen bidez identitatea eraikitzen du. Beraz, Facebookek *egoteko* eta *egiteko* kontrolpeko gunea (espazio offlinea bezala) eskaintzen dio gizarteari (espazio offlinean ez bezala, non espazio publikoa erakundeek arautua eta monopolizatua den). Interneten (bidez) hipertestuz osatutako testu idatzi, argazki, bideo edota taldeetako adskripzioaren bidez identitate digitala eraikitzeke aukera dute gazteek. Baina zer da euskal gizartean hainbes-tetan erabilitako eta hain gutxitan aztertutako identitate digitala?

Goiko binetan ikus daitekeen bezala, online identitatea aipatzean anonimatua, identitateen lapurreta edota identitate «faltzuak» bezalako ideia negatiboak datoz burura. Internet agertu berria zenean zentzua izan zezakeen: modu anonimoan idatziz komunikatzeko aukera ematen zuten txatek «alter ego» bat sortzeko erabiltzen ziren (Mayans, 2009) eta inork ezin zuen jakin mutila/neska, itsusia/oso itsusia edo euskal herritarra/Franco zale amorratua ote zinen. Gaur egun, ordea, Gemma San Corneliok baieztatzen duenez «*paraleloki azkenaldian eginiko ikerketek erakusten duten moduan, online-an eraikitzen dugun identitatea, Postmodernitatearen paradigmari kontra eginez, ez da (erabat) asmatutakoa, anitza eta batez ere anonimotasun maila baxua du*» (2008: 20).

Beste era batera esanda, gaur egun harreman sozialen gotorleku diren online sare sozialak ez dira anonimoak ez eta «alter egoak» sortzeko tresna egokia; are gehiago, egoa elikatzeke balio dutela esaten da maiz, «super ego» bat sortzeko, hain zuzen ere. Nola edo hala, online sare sozialetan aurrez aurreko harremanetan bezala («bizitza erreala» kontzeptua erabiltzea ez da egokia: Interneteko bizitza oso erreala baita, ondorio errealak dituelako), itxura apaindu daiteke, hainbat gaiez hitz egin daiteke edo ez, iritziak eta jarrerak ezkutatu, lausotu edo indartu... baina horrek ez du esan nahi inor anonimoa denik eta are gutxiago inor txakurra denik.

Ildo honetatik, Erving Goffmanen (1971, 2006) *dramaturgia* kontzeptua oinarri hartuta, pantailak eskaintzen duen *aurrealde* eta *atzealde*aren bidez antzerkian bezala identitatea antzezteke aukera dagoela pentsa daiteke. Hau da, norberaren identitatea moldatzeko aukera dago, adibidez, pertsona batek argazkiak apainduz, identitate ezberdinak antzeztuko lituzke egoeraren eta aurrean duen pertsonaren ara-

bera. Dramaturgiaren ikuspegi hau oso erabilgarria da, baina hainbat arazo ditu online sare sozialen kasuan. Ekarpen hau Internetera soilik ordenagailuen bidez konektatzeko aukera zegoenean —hasierako binetan bezala, etxetik egindako online konexioa eta kaleko offline harremanak banatuta zeudenean— oso baliagarria zen. Baina egun, telefono mugikorren bidez Interneten bizi garen garai batean, antzezlanaren atzealdea eta aurrealdea desagertu egin dira: laguna alboan eta era berean Facebooken izateko aukera baitago espazio online eta offlinea bat eginaz —Hiperespazioa kontzeptua gogoratu— eta aspektu publikoa eta pribatua uztartuz.

Pausu bat gehiago emanda, beraz, zelan eraikitzen da online eta offline espazioak gainditzen dituen hiperespazioan hain anonimoa, asmatutakoa eta irudikatua ez den identitate digitala? Lehenik eta behin, danah boydek (2002) azaltzen duen moduan, Internet edota Facebook bezalako online sare sozialetan eraikitzen den identitate-eredua ez dela berria azpimarratu beharra dago: online identitatea beste identitate mota bat izan beharrean, identitatea eraikitzeke beste espazio eta tresna bat da (egunkaria, telebista, eskola, koadrila bezala) eta espazio honek identitatea eraikitzeke beste baliabide eta muga batzuk eskaintzen ditu. Beraz, Interneten bidezko identitatearen *eraikuntza* ezberdina den arren, honek ez du esan nahi identitatearen *izaera* ezberdina denik.

Bigarrenik, Clara Ciofulli eta Gualupe Lópezek (2012) erakutsi bezala, erabiltzailearentzat Facebook esperientzia pertsonalizatu konpartitua dela azpimarratu beharra dago. Identitate kolektiboaren eraikuntza offlinean bezala, kolektiboak partekatzen dituen erreferenteak barneratu eta beste modu batean plazaratzen ditu norbanakoak; baina espazio offlinean ez bezala, sistema berdina konpartitzen dute erabiltzaileek (Facebookeko horma urdina) eta, beraz, konpartitua izatearen esperientzia areagotzen da. Era berean, espazio offline-ekin alderatuz identitate-erreferenteak errazago eskuratzen dira Interneten, Youtube edo egunkari digitaletako edukiak klik bateko erraztasunarekin lortu eta partekatu baitaitezke. Esperientzia pertsonalizatuaren ideia, ordea, ez da bakoitzak identitatea nahierara eraiki dezakeela defendatzen duen ekarpen indibidualista. Izan ere, ideia hau Pierre Bourdieuren (1988) habitus kontzeptuarekin lotuz, Sonia Livingstone-ek (2008) gazteek identitate digitala estrukturaliki baldintzatutako gustuen arabera eraikitzen dutela baieztatzen du, batez ere mundu offlineko estrukturek baldintzatuta.

Identitate digitalaren eraikuntzan, beraz, lau ezaugarri gailentzen dira: erakundearen eragina, subjektuaren erreflexibotasuna (gizarte Post-modernoaren ezaugarriak ere badirenak), erlazonaltasuna edo *norekin* eta testuingurua edo *noiz* eta *non* eraikitzen den identitatea. Kontzeptu hauek, nazio-identitatearen gaira mugatuz, banan-banan aztertzen ba-

ditugu, lehenik eta behin esan behar da, Àlvar Perisek aztertzen duen moduan, erakundeek Internet bidezko identitate kolektiboaren eraikuntza sozialean eragiten dutela. Autorearen iritzian, «*Estatu nazioek gaur egun ere teknologia berrietan askok nahiko lukeen baino eragin handiagoa dute*» (2010: 229). Autore honek garrantzi berezia ematen dio estatuek erabiltzen duten bi digituetako bukaerei («.es» edo «.fr»), eta hauek identitate-tresna sinboliko bilakatzen direla iradokitzen du. «Internet Corporation for Assigned Names and Numbers» (ICANN) erakundeak esleitzen dituen web orrialdeetako bukaerek, beraz, edukiak sektorialki («.com» konpainientzako) edota kulturalki («.edu» hezkuntzarako edota «.eus» euskal kulturarako) banatzeaz gain, estatu eta nazioen artean banaketa argi bat ezartzen dute estatu gabeko herriei nazio-identitatea eraikitzekeo zailtasun gehiago ezarriz.

Bigarrenik, danah boydek (2002) erabiltzaileek identitatearen eraikuntza erreflexiboa egiten dutela azaltzen du: erabiltzaileak ez du identitate kolektibo bat garatzen jasotzen dituen identitate-erreferente ezberdinak hausnartu gabe partekatuz, baizik eta erreferente hauek barneratuz, filtratuz eta moldatuz eraikitzen du erreflexiboki identitatea. Hori dela eta, online identitatea ez dela offline identitatearen isla soil bat esan daiteke, erabiltzaileek ez baitute identitatea espazio batetik bestera eramaten, praktika eta diskurtso online erreflexiboaren bidez eraikitzen dute. Hirugarrenik, lagunak beharrezkoak dira Facebooken aritzeko eta, beraz, online identitatea besteekin eraikitzen den behin-behineko emaitza erlazionala ere bada. Honen arabera, offline identitatea bezalaxe, norberak bere online identitatea besteekin duen hartu emanagatik eraikitzen du. Are gehiago, offline espazioan hain argi ikusten ez den bezala, besteak norberaren identitatea eraikitzekeo aukera du Facebooken (bidez): lagunak Facebookeko norberaren horman idazteko duten aukeragatik, adibidez.

Laugarrenik eta azkenik, testuinguruak berebiziko garrantzia du online identitatearen eraikuntzan, ez baita gauza bera kalea bezalako espazio publikoan, etxea bezalako espazio pribatuan edota gela bezalako espazio intimoan identitatea eraikitzekeo Interneten erabiltzen diren moduak. Harreman sozial anitz hauek berez enpresa pribatu batek sortutako espazio pribatuari erabilera publiko eta intimoak ezartzen dizkietela erakusten dute. Beraz, online sare sozialak enpresa baten espazio pribatu gisa ulertzeaz gain, harreman sozialak aztertzekeo asmoa duen ikuspegi soziologiko batetik, espazio jakin bat publiko, pribatu edota intimo bezala izendatzerako orduan erabiltzaileek honi ematen dioten erabilearen arabera ere egin behar dela azpimarratu beharra dago: Facebook lagunekin edukiak partekatzeko espazio pribatua, nahi izanez gero edo nork ikus dezakeen espazio publikoa edota soilik erabiltzaileak kudeatu ko duen espazio intimo gisa uler daiteke.

Laburbilduz, erakundeek espazio publikoaren monopolioa duten egoera honetan, Facebook bezalako espazio pribatu batean (enpresa baten espazio baita) eraikitzen den identitate digitalaren azalpenaren bidez identitatearen (eraikuntzaren) hainbat elementu azaleratzen dira. Besteak beste, norbanako eta kolektibo anitzen arteko tentsioa, subjektu erreflexiboa edota estrukturaliki baldintzatutako praktika eta diskurtsoak eta identitatearen habitus izaera performatiboa, erreflexiboa, erlazionala eta testuingurukoa. Orain bai, kontzeptu horiek euskal identitatearen kasuan aztertzeke aukera dugu.

4. Euskal identitatea.

Euskal identitatearen eraikuntza

«No hay, a mi modo de ver, nada de la feminidad que espere a ser expresado; y hay mucho en cambio, sobre las diversas experiencias de las mujeres que se está expresando y aún queda por expresarse, pero se requiere cuidado respecto a ese lenguaje teórico»

(Judith Butler, Actos performativos y constitución del género)

Identitatea aztertzekeo hainbat oinarri

Gizarte Postmodernoa, Internet eta online sare sozialak bezalaxe, egun, gizarte-harreman anitz eta arinak direla medio, hainbat teorilariren ustez identitate kontzeptua soziologikoki definitu ezin daitekeen eta sozialki definituta dagoen ikerketa arazoa da. «Identitate kolektibo» kontzeptua hainbat elementu aintzat hartuz definitu daitekeen arren, identitate zehatz bat ezin daiteke soziologikoki definitu; sozialki hamai-ka definizioen bidez erantzunda dagoelako, ikerketa-objektua soziologikoki modu estanko batean definitzeko aukerarik ez dago.

Stuart Hallen *identifikazio* kontzeptuak abiapuntu bat ezartzen du: estrukturaren eragina kontuan izateaz gain eta «*subjektu eta praktika diskurtsiboen arteko erlazioa berrartikulatzen saiatuz*», subjektu erreflexiboak bere egunerokotasunean zatikatzen dioten hainbat identitate eraikitzekeo duen gaitasuna azpimarratzen du «*identifikazioa baldintzazkoa eta kontingentea*» (2003:15) dela azpimarratuz. Horrela, subjektu batek identitate anitz eraikitzeaz gain, hauek denboran zehar ez direla identikoak izan behar azaltzen du: bizitzaren une batean berebiziko ga-

rrantzia duen gazte identitateak, beste etapa batean emakume edota etorkin identitateagatik ordezkaturia izan daiteke, adibidez.

Beraz, proposamen honen arabera, korrante esentzialistak defendatzen duenaren aurka (zeinen arabera identitatea denboran zehar identiko mantentzen den esentzia bat da), identitatea transformatu daiteke, eta ondorioz, identitatearen eraikuntzan «tradizioa traizionatzeko» aukera dago: denboran zehar identitate zehatz bat sentitzeko eta eraikitzeko modua aldatu daitekeelako, hain zuzen ere. Are gehiago, aurreko kapituluan landu bezala, subjektu erreflexiboak identitate zehatz bati dagokionean bat eta kontrakoa eraikitzeko aukera du —Slavoj Žižek (2009) proposatu bezala.

Ido beretik identitatea *zelan eraikitzen* den azaltzea helburu duen Judith Butlerrek (2002, 2007): «*diskurtsoak bere praktika errepikatu eta erreferentzialaren bidez izendatzen dituen ondorioek sortzen duen prozesua*» (2002: 18) eta diskurtsoak praktikak eta praktikak diskurtsoak ere badirela kontuan izatea bereziki interesgarria da. Praktikak, diskurtsoak, praktikatutako diskurtsoak eta diskurtso bilakatutako praktikak ikerketa honen ardatza diren arren, subjektu erreflexiboa ez da ekarpen horretan alboratu uzten, izan ere, «*performatibitatea, ekintza bakarra baino, errito bilakatutako errepikapen hori, eragina du gorputz batean naturalizatzen denean*» (2007: 15). Prozesu honen bidez, sozialki originalik ez duen identitate kopia asko eraikitzen dira eskuratu ezin daitekeen nukleo baten arabera, eta hauek soziologikoki ezin dira definitu:

«Ekintzek, keinuek eta desioek sortzen dute barne nukleo baten sustantziaren efektua, baina gorputzaren azalean egiten dute, hutsune adierazgarrien jolasaren bidez; hutsune horiek identitatea zergati moduko printzipio organizatzailea dela iradokitzen dute, baina inoiz ez dute jakinarazten. Aipatutako ekintza, keinu eta eginkizunak —orokorrean interpretatuak— performatiboak dira, baieztatu nahi duten esentzia edota identitatea asmakizun fabrikatuak eta gorputz zeinu eta beste bitarteko diskurtsiboen arabera gordeak diren heinean.»

(2007: 266)

Identitate zehatz bat, beraz, soziologikoki ezin definitu daitekeen eta sozialki definituta dagoen originalik ez duen kopia da. Ernesto Laclaren (1996) hitzetan, *adierazle hutsa* da. Autoreak kontzeptu baten esangura anitzen arteko borroka ideologikoa azaltzen du. Pausu bat gehiago emanez, adierazle bat hainbat azalpenez betetzean azalpenak denboran zehar gero eta konplexuago eta kontraesankorragoak bilaka daitezkeela pentsa daiteke: hau hustu arte adierazleak izan zezakeen

esanahia galtzen du, honi eman zaizkion azalpen guztiak beraien artean trabatu zein korapilatzen dira-eta.

Identitate kolektiboak eta nazio-identitateak

Identitatearen inguruko teoriak eta kontzeptuak, noski, identitate kolektiboen azterketetan aplikagarriak dira. Izan ere, aipatu Stuart Hall eta Slavoj Žižekek gerora landutako ideiak, ikerketa kasu honi dagokionez, «*Indibiduo edo talde batek identitate kolektibo kontraesankorrek*» eta «*identitate bat eta kontrakoa izan ditzakeela*» azaldu zuen aurretiaz Alfonso Pérez-Agotek (1984: 36). Zita honetako ekarpen ia guztiarekin bat egin arren, liburu honetan *identitate kontraesankorrek izatea* baino, *kontrako identitateak eraikitze*ko aukera dagoela defendatuko da: bata eta bestearen kide izateak edo zenbaitetan nazio-identitate bat eta beste batzuetan beste bat eraikitzeak ikertzailearentzat kontraesankorra izan daitekeen arren, subjektuari ez dio zertan kontraesankortasunik eragin behar. Ildo beretik, Beatriz Mirandaren arabera identitate kolektiboan «*Haiek'-etatik berezitzuz 'Gu'-ak konpartitzen dituen balore eta sinesmenak*» (1989:19) aurkitzen dira, hauek, «*barne eta kanpo erlazioak sortzen dituztelarik*» (1989: 249). Hemen, *Gu* eta *Haiek* posizioak ikus daitezke: ikerketek klasikoki azaldu bezala, identitate kolektiboak (*Gu-a*) talde barneko harremanen bidez (*Gu-Gu*) eta kanpoko taldeen-gatik berezitzuz modu «negatibo» (*Gu-Haiek*) batean eraikitzen dira.

Baloreen aspektu sinbolikoan oinarrituta eta barne eta kanpo espazioak bereiziz, Benjamín Tejerinak identitate kolektiboak (ez identitate zehatz bat) «*errealitatea definitzeko eta kideen praktikak ildo horretatik bideratzeko talde bat edo batzuek duen edo duten kidetasun sentimendu konpartitua*» (2009:105) bezala definitzen ditu. Beste era batera esanda, identitate kolektiboa talde barneko harremanen bidez (edo *Gu-Gu* bidez) eraikitzen da. Era berean, kontingentzia, dinamismoa eta aldakortasunaren ideiak kontuan izanik, «*identitate kolektiboa, objektibatu daitekeen arren hau aldatu eta berreraikitze*ko aukera duela» azpimarratzen du eta, azkenik, «*identitate kolektiboa aspektu sinbolikotik harago doan praktika sozialen multzoa*» (2009:105) dela azaldu.

Beste alde batetik Pierre Bourdieuren (1988) *habitus* kontzeptuari eta Judith Butlerren (2002, 2007) gorputzutako zein erritualizatutako praktika eta diskurtsoei erreparatuz, Slavoj Žižekek identitate kolektiboa *habitus* baten arabera eraikitzen dela baieztatzen du: «*identitateak habitusez eginak daudela eta hauen arabera, askotan uste dugunaren kontra, modu eraginkor batean gure izaera sozialak definitu eta erre-presentatzen ditugula*» (2009: 140). Ideia hauek euskal identitatearen

kasura ekarriz, Ane Larrinagak (2012) nazio-identitate honen eraikuntza soziala egunerokotasuneko praktika eta diskurtso sozialen bidez egiten dela azaltzen du.

Nazio-identitatearen gaian zentratuz, gaur egungo gizarte Postmodernoan identitate kolektibo honek duen garrantzia azpimarratzen du Montserrat Guibernauk, izan ere, autore katalanak etengabeko mugimenduan dagoen gizarte eredu nazio-identitatea transformatu egin dela eta garrantzi berezi bat hartu duela defendatzen du. Nazio-identitatea, «*dimentsio psikologiko, kultural, territorial, historiko eta politikoa duen sentimendu kolektiboa eta dinamikoa*» (2009: 26, 27) bezala definitzen du eta honen eraikuntzan «*historia-kultura-territorioa, sinbolo eta erritualak, eskubidedun biztanleria, etsaien sorkuntza eta hezkuntza sistemak berebiziko garrantzia*» (2009: 46, 47) dutela azpimarratu.

Nazio-identitatea eta biztanleriaren arteko lotura eta tentsioetatik abiatuz, nazio-identitatea estatu edota nazioen kasuen azterketetan ezberdina dela defendatzen du Àlvar Perisek (2008):

«Gai hauetaz arduratzen direnak ahul kontsideratu ditzakegun estatu nazioak eta estatu gabeko nazioak dira (...) finkatutako demokraziak dituzten mendebaldeko estatu-nazio kontsolidatuek ez dituzte auzi hauek kontuan hartzen, horiek ez baitute euren burua nazionalizatzen jotzen, baizik eta patriotatzen». (...) «(hau lortzeko) aparatu instituzional indartsu bat martxan jarri zuten eta haien nazionalismoa naturalizatu eta objektibatzea lortu, eta biztanleriari 'normal' eta beharrezkotzat bezala aurkeztu.»

(2008: 1)

Laburbilduz, identitate kolektiboaren eta nazio-identitatearen kasuan, identitate zehatz bat soziologikoki definitu ezin eta sozialki naturalizatutako eta habitus gisara gorpuztutako praktika eta diskurtso erritualizatua dela esan daiteke. Identitate kontzeptua kritikatzeko, ordea, identitatea behar da, honen arabera pentsatzen baita: ezagutzen ez diren posiziotik ezin baita pentsatu. Beraz, nola hitz egin izendatu ezin daitekeen horretaz? Nola idatzi euskal identitatearen inguruko liburu bat hau definitu ezin bada?

Aurretiaz Internet eta online sare sozialen kasuetan ikusi bezala, hauek definitu ezin daitezkeen arren, definizio analitiko bat behar da ikerketan aurrera egiteko, Stuart Hallek (2003) *marrapeko identitatea* deitu zuena. Identitate kolektibo jakin bat eraikitzen duten praktikak eta diskurtsoak aztertzeko, hau zelan ulertzen den azaldu beharra dago. Baina definizio honen asmoa ez da identitate kolektibo bat sozio-

logikoki *zer da* erantzutea edota esangura soziologikoz betetzea (Butler 2002, 2007), horren abiapuntu bat ezartzea da helburua. Beraz, identitatearen definizio analitiko bat proposatuko da hasieran eta bukaeran hau marrapean jarriko da identitatea identitate bilakatuz, hau bera guztiz ahaztu gabe; identitatea definituko da, baina definizio ez osoa dela jakinda eta identitatea dela onartuz; identitatea zer den esango da, baina halakoa ez zela eta etorkizunean ere izango ez dela jakinik, hau identitatea baita.

Liburu honetan erabiliko dudan euskal identitatearen beharrezko txadadura azpiko definizio analitikoa hurrengo izango da. Prozesu sozio-historiko batek eragindako fruitu kontingente bezala ulertzen dut identitate kolektiboa non egitura, mekanismo, espazio, momentu eta praktika desberdinek parte hartzen duten. Era berean, identitate honek bere eraikuntzarako ekintza sistema bat mugatzen duela deritzot, gizarte-harremanen bidez nazio-identitate-erreferente desberdinak eztabaidatu ahal izateko espazioa sortuz, bere kideei herri zentzua eta sentimendua emanaz eta gainontzeko nazio-identitateetatik ezberdinduz.

Euskal identitatea, beraz, historikoki identitate honek jasandako eragin instituzional desberdinen —batik bat, politiko, kultural eta ekonomikoak... eta Euskal Herri barnekoak zein kanpokoak, non estatu espainol zein frantsesaren eragina azpimarratu beharra dagoen— emaitza kontingente bezala ulertzen dut. Ildo beretik, euskara (hau, euskal identitatearen elementu nagusienetarikoa gisa ulertuta) edota Euskal Herriaren lurraldetasuna bezalako erreferente sinboliko desberdinak eztabaidatuz eta bere kideei euskal herritar zentzua eta sentimendua emanaz beste nazio-identitateetatik bereizten dela deritzot.

Estatua da erantzuna, baina... zein zen galdera? Euskal identitatearen ikerketa-galdera birformulatzen

«Auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua ekitea da»

(Lorea Agirre, 19. Korrika,
<http://www.argia.eus/albistea/korrikako-lekukoan-eskuz-esku-euskal-herria-zeharkatu-duen-mezua-bagara-nor>)

Soziologikoki definitu ezin daitekeen arren, euskal identitatea definitzeko beharra izan dute aurreko hainbat teoriarik: euskal identitatea

barneko leitmotiv bat izateaz gain, kanpotik eta bereziki espainiar zein frantziar estatuetatik, plano instituzional, sozial eta akademikotik eskatu den erantzuna ere badelako. Anekdota txiki baten bidez erraz azaldu daiteke egoera hau.

Federación Española de Sociología-k (FES) 2010ean Iruñean ospatu zuen kongresuan euskal identitatea, gazte koadrilak eta Bilboko alde zaharraren inguruko ikerketa (2009) aurkeztu nuen egunean, hain zuzen ere, nik neuk ezagutu nuen euskal identitatea «existitzen dela» frogatzeko definizio bat ematearen beharra. Ikertzaile eta irakasle espainolek erantzun hori jaso gabe, euskal identitatea besteengatik zerk bereizten duen eta euskal identitatea zer den definitu gabe, ikerketa hutsala zela kritikatu zuten koadrilaren gizarte-harreman eta hiriaren espazioaren ideiak kontutan hartu gabe. Saioko dinamizatzailearen azken hitzak buruan iltzatuak geratu zaizkit orduak: «*En España no hay partidos políticos nacionalistas*». Alegia, aurretiaz aipatu bezala, estaturik ez diren herrietako pertsonak herritarrak dira eta estatu gabekook, ordea, nazionalista edo abertzaleak.

Horregatik, galdera hauen aurrean eta euskal identitatea indartzeko eta defendatzeko behar honen aurrean, euskal gizartean historikoki hainbat erantzun eta definizio sortu dira *zer da euskal identitatea* erantzuteko asmoz. Eta garaiari egokitzuz eta garaiko gizartearen azterketa zorrotzak eginda, erantzunak moldatzen joan dira urteetan zehar.

Zer da euskal identitatea?

Inguruak horrela eskatuta euskal definizioa beharrezkoa izanik, honen esentzia bilatuz eta identifikatuz, euskal historian eta ezaugarri komunen bereizitasunean oinarritzen ziren hainbat ikerketa daude. Barandiarango On Joxemielen (1974) ikerketa aitzindari eta iraultzaileetan, izate euskaldunaren adierazle natural, bereizi eta bereziak aztertzen dira perspektiba etniko batetik. Bere garaiko behar eta galderei modu bikainean erantzuten ziren ekarpen honetatik abiatuz (identitatearen ezaugarri edota praktika komunen ideia garrantzia azpimarratuz). Egun, eraldatu egin den gizarte-eredu eta gizarte zientzien diziplinatik, atal teorikoan ikusitakoari esker identitatea estrukturalki baldintzatutako eraikuntza soziala dela gehitu daiteke. Horrela, garai horretako aspektu naturalak gaur egungo aspektu artifizialari eta eraikiari lekua uzten dio Santi Leonék (2008) *Euskal Herria imajinario baten alde* liburuan azaltzen duen moduan.

Sozialki eraikitako adierazle berezi komun hauek industrializazio garaiko immigrazioarekin (batez ere espainola) nahastuz joan ziren eta

modu honetan dimentsio politiko batetik Sabino Aranak «Euzkadi euzkotarren aberria da» ideia plazaratu zuen. Daniel Conversik (1997) aztertzen duen moduan, lantokietan, nazio-identitate batentzat beharrezkoa den *Gu* (euskal herritarrak) eta *Haiek* (euskal herritarrak ez zirenak, eta batez ere espainolak zirenak) bereizten zituen jatorria zen garaiko lan teorikoetatik eratorritako definizio soziala.

Errealitate sozial berri honen aurrean, Josu Amezagak (1995) bere Doktorego Tesian azaltzen duen moduan, ezkerreko ikuspegi abertzale batetik euskal herritarra «Euskal Herrian bizi eta lan egiten duen» pertsona bezala definitu zen. Beste alde batetik, Euskal Herriatik emigratutako biztanleek etnia, jatorria eta bizi edo lan lekuaren definizioak kokan jarri zituzten: euskal herritar askok, hainbat arrazoi dela medio, Euskal Herriatik kanpo bizi zein lan egin dute gaur egun diasporan dauden euskal etxeak erakusten duten moduan (Douglass 1990, 2006; Toticagüena, 2003, 2004, 2005). Era berean, orain arte kokan jarri ez den Euskal Herriaren muga geografikoa gainditzen da Diaspora-identitate hauen bidez, izan ere, Euskal Herriko mugetatik haratago euskal identitatea eraikitzeo aukera dagoela berresten baitute.

Azkenik, historian zehar euskal identitatearen definizio gisa erabili den euskara aipatu beharra dago; Josu Amezagak (1995) azaldu bezala, Arturo Campionen garaitik hona (orain dela ehun urte baino gehiago) garrantzi berezia izan duen tasuna izan baita. Egungo errealitate sozial zein soziologikoez, ordea, bestelako erantzunak eskatzen dituzte, hori dela eta, dimentsio akademiko batetik ikerketa-galdera hori eta erantzun bakar baten existentzia kokan jarri beharra dago. Plano konzeptualetik haratago, definizio honek hainbat arrazoiengatik euskaraz mintzatzen ez direnak baztertuko lituzke. Horrela, euskal identitatearen definizio honetatik at Franco garaian euskara ikasteko zailtasunak izan zituen belaunaldia edota lehen aipatutako migranteak geratuko lirarteke: euskaltegiez eta euskal etxeek euskara indartzeko lan izugarria egiten duten arren, traba instituzionalak medio, hainbat biztanlek ezin izan baitute euskara ikasi.

Euskarak, era berean, ikerketa honetarako oinarrizkoak diren hiru gai planteatzen ditu: egunerokotasuneko praktiken garrantzia, muga geografikoen gainditzea eta euskal identitatea aztertzeo planteatu beharreko ikerketa-galdera eta metodologia. Batetik, Txillardegik (1972) landu bezala, hizkuntzak eta kasu honetan euskarak, mundua ikusteko eta ulertzeo elementua den heinean, egunerokotasuneko praktika eta diskurtsoen garrantzia aditzera ematen du. Horrela, *zelan eraikitzen da* ikerketa-galdera planteatuz, euskalduna soilik euskaraduna *izan* beharrean, euskaradunak euskal identitatea *eraikitzen* duela proposa daiteke. Puntu honen hasieran Lorea Agirrerren (2015) hitzekin proposatu

bezala: auzia ez baita izan ala ez izan, auzia ekitea da. Beraz, dimentsio akademiko batetik euskara euskal identitatea *zer da* erantzuten duen sinboloa dela defendatu ezin daitekeen arren (azaldu bezala, soziologikoki definitu ezina dena), honen eraikuntza sozialeko elementu nagusia dela baieztatu daiteke.

Ildo honetatik, bigarrenik, euskararen eguneroko praktika hauen bidez, muga geografikoak gainditzeko dituen espazio bat sortzen da, izan ere, Joseba Sarrionandia (2011) jarraituz «*euskara da gure territorio libre bakarra*». Diasporak Euskal Herriaren muga geografikoak gainditzeko bazituen ere, territorio kontzeptuak diasporak berak duen muga geografikoa gainditzeko du: euskal etxeen egiturek okupatzen dituzten lekuez gaindi, hau bestelako logika bat duen harremanen dimentsio sozial, kultural eta sinbolikoen espazioa baita. Azkenik, euskal identitatea euskararen arabera definitzeak «euskaldun berrien» figura sortu du. José Ignacio Ruiz Olabuenagak (1983, 1984) inkesten bidez euskal gizartearen nazio-identitate sentimendua aztertzeko «euskaldun berri» kontzeptuari emandako kategoria soziologikoa jarraituz, identitatea definitzeaz gain, neurtu eta zenbatu daitekeen ikerketa-objektua dela pentsatu daiteke. Honen arabera, biztanleak euskal herritarra, espainola, euskal herritarra baino espainolagoa, espainola baino euskal herritarragoa edo biak batera izateko aukera ditu.

Ikerketa galderekin eta metodologiak duten garrantzia ikusita, garaierari egokitutako ekarpen mamitsu hauek ez dute kanpotik dimentsio akademiko, sozial zein instituzionaletatik galdetu den *zer da* euskal identitatearen erantzuna topatu: plano teorikoan landu bezala, erantzun ezina den galdera soziologikoa delako (Hall, 2003) eta hau esentzia edota nukleo originalik ez duen kopia delako (Butler 2002, 2007). Beraz, landutako identitate kontzeptuaren inguruko ekarpenak oinarri izanik eta Euskal Herriaren egindako ikerketa sakonek *zer da* euskal identitatea galdera erantzutea lortu ez dutela ikusita eta betiere ekarpen hauen beharra, indarra eta garrantzia azpimarratuz, ikerketa-galdera bera kuestionatu beharra dago.

Zergatik aztertu «*zer da*» euskal identitatea?

Euskal identitatearen azterketa hasi baino lehen, beharrezkoa da galdera hau planteatzea eta inguruko nazio-identitateekin ariketa konparatibo bat egitea. Horrela, identitate espainola eta frantsesa, plano instituzional eta soziologiko batetik naturalizatu diren identitateak direla ikus daiteke. Batetik, espainiar identitatea gizarte-praktika eta diskurtsoetan ontzat ematen den identitatea da eta hau (estatuak

eskaintzen duen marko instituzional batek babestuta) *pentsatu* beharrean *bizi* egiten da, ondorioz, ez da galdetzen *zer da espainiar identitate*. Plano soziologiko batetik, FESeko eskarmentu pertsonaletik haratago, ikerketa-galdera hori ardatz duten ikerketak eskasak direla ikus daiteke bilaketa bibliografiko bat eginez; aurreko puntuan ikusi bezala, euskal identitateari eman zaizkion erantzun anitzekin konparatuz, identitate espainolaren inguruko kuestionamendu teoriko urria agerian geratzen da.

Bestetik, estatu frantsesa eta espainola ikerketa-galdera iheskorra sozialki kolokan ez jartzeko, hau erantzun objektibo bilakatzeko beharrean aurkitu dira: etorkinek estatu hauetako biztanleak izateko pasatu beharreko *frantsestasun* edota *espainiartasun* azterketak bereziki interesgarriak dira. Modu honetan, espainiar eta frantziar estatuek haien nazio-identitateak estatuaren mekanismo legal, instituzional, akademiko edota komunikatiboen eraginez kolokan jarri ez eta estatu gabeko herriei haien nazio-identitatea *zer den* definitzea eskatzen diete.

Horrela, Àlvar Perisek (2008) azaldu bezala, estatu gabeko herriek soilik erantzun behar duten kanpotik gaizki planteatutako ikerketa-galdera soziologiko honek, sozialki zein politikoki ondorio garrantzitsuak ditu. Autore honen arabera, estatu gabeko herriek *zer da* galdera erantzutean *nazionalista* gisa identifikatzen dituzte ikerketa-galdera hori planteatzen ez duten eta euren burua *biztanle* gisa duten estatuek. Era berean, Ernesto Laclau (2005) jarraituz, euskal identitatearen adierazle hutsa denboran zehar esanahi eta definizio anitzez betetzean eta erantzun egokirik ez duen galdera bat kontuan hartzean, euskal identitateak sozialki eta soziologikoki indarra galtzea suposatu duela proposa daiteke: esangura anitzek esanahia argitu beharrean, hau korapilatu baino ez dute lortu, berriz ere, (nazio) identitatea soziologikoki definitzea ezinezkoa delako.

Laburbilduz, haien burua kuestionatzen ez duten estatuetatik datoreen ikerketa-galdera (euskal identitatea ahultzen duena eta erantzun soziologikorik ez duen *zer da* euskal identitatea ikerketa-galdera) proposatu beharrean, liburu honen bidez beste ikerketa-galdera bat formulatu behar dela defendatu nahi dut: euskal identitatea *zelan eraikitzen* da ezagutzea baita ikerketa honen helburua. CEICek (2005) ikerketa baten bidez erakutsi bezala, estatuetako nazio-identitateen ildotik, egunerokotasuneko bizitzan, praktika eta diskurtso sozialen bidez, *erai*ki eta *bizi* den identitatea da euskal identitatea ere. Horregatik, euskal identitatea *zelan eraikitzen* da galdetzean parekotasun sozial eta politikoa lortzeaz gain, soziologikoki erantzun daitekeen eta emaitza mami-tsuagoak eman ditzakeen ikerketa-galdera jarraituko dugu.

Zelan eraiki izan da euskal identitatea azken hamarkadetan?

Ikuspegi konstrukzionista batetatik ikerketa-galdera aldatzen badugu, eta euskal identitatearen erreprodukzio mekanismo, espazio eta agenteen inguruan hausnartzen badugu, berau *zelan garatzen den* erantzun duten ekarpenak daude. Alfonso Pérez-Agotek (1984) azken hamarkadetako euskal identitatearen (hau identitate politiko gisa ulertuz) garapen sozia- len faseak aztertzen ditu, gerora, Iñaki Martínez de Albénizek Doktore- go Tesian bere egin eta izendatu zituenak. Modu honetan, autore hauek Francoren garaitik hasi eta politikaren instituzionalizazio garaian amaitu- ko den euskal identitatearen garapenaren bilakaera hausnartu dute.

Lehenik eta behin, Iñaki Martínez de Albénizek, Alfonso Pérez- Agoterengan oinarrituz, frankismoa, «*politikarik gabeko gizartearen*» (2003:253) garaia bezala izendatzen du. Sistema frankistak bultzaturiko errepresioak gai politikoen jarduera esfera publikotik (kalea eta plazeta- tik) baztertu eta espazio pribatua politika egiteko esparru nagusi bilaka- tu zuela azaltzen dute. Hori dela eta, besteak beste, familia eta koadri- lak eskaintzen zuten babes eta konfiantzagatik espazio pribatu hauek euskal identitatea eraikitzeke espazio pribilegiatuak ziren. Espazio haue- tan izaten ziren elkarrizketak salatarietatik salbu manten zitezkeen, izan ere, hor aurkitzen ziren lagun eta familiako kideen bitartez politikan lehen urratsak ematen ohi ziren. Era berean, esparru pribatuan jazotzen ari ziren harreman politiko hauen bitartez biztanleak aktibista ere ba- ziren: espazio publikoa berreskuratzeko helburuarekin, besteak beste, ikurrinak zintzilikatu edota kaleetan pintadak egiten zituzten.

Autoreek espazio pribatutik sortzen ziren estrategien bitartez espazio publikoaren berreskuratze honek bigarren fase politiko bat bideratu zuela azaltzen dute: Iñaki Martínez de Albénizek «*espazio publikoaren agerpena*» (2003:253) moduan izendatu zuena. Aipatu ekintza hauek eta lantokietan edota ikastetxeetan egindako borrokek sistema politikoaren pixkanakako normalizazioa bideratu zuten eta, beraz, errealitate sozial hori kontuan izan- nik, egunerokotasuneko praktiken bitartez euskal identitatearen eraikuntza egiten zela azaltzen dute. Franco hil ostean hasi zen politikaren trantsizioak politika beraren instituzionalizazioan amaitu zuen eta momentu horretan dimentsio politiko eta sozialaren arteko bereizketa nabarmendu zen.

Alderdi politikoen agerpenak jarduera politikoa bide instituzionalen bidez kudeatzera eraman zuen, esfera sozialeko praktikak agertu berri zen esfera politikora¹⁰ mugatuz. Politikaren esparru berri honen ager-

¹⁰ Politika zentzu klasikoan ulertuta, izan ere, gaur egun dena da politika, dena da politikoa eta lema feministak argitzen duen moduan «*pertsonala dena politikoa da*».

penak bi esparruen artean erabateko banaketa eragin ez bazuen ere, ordura arte euskal identitatearen eraikuntza sozialean garrantzi handia izan zuten zenbait harreman-espazio (familia edo koadrila kasu) bigarren plano batera pasarazi zituen. Azken fase hau, «*gizarte gabeko politika*» (2003:254) bezala izendatzen du Iñaki Martínez de Albénizek: «*instituzionalizazio politikoak bizitza soziala despoltizatzen du, ekintza erreibindikatioa errutina bihurtuz eta sozializazio politikoaren marko sozialak apurtuz*» (2003: 263).

«*Zelan eraikitzen da euskal identitatea da zer da euskal identitatearen erantzuna. Hasierako ikerketa-galderara bueltatuz*

Ikuspegi honen ildotik eta azken hamarkadetako euskal identitatearen garapena aztertu ostean, identitate kontzeptua plano teoriko batetatik ikertu nahian Gabriel Gatti eta Iñaki Martínez de Albénizek (2006) hasierako ikerketa-galdera planteatzen dute. Autore hauen ustez, «*egite hau da izaeraren oinarria eta zelan (zelan egin eta produzitzen da identitatea) da zer hori (identitatea bera)*» (2006:158). Horrela, euskal identitatearen esentzia, euskal identitatea eraikitzen duen praktika multzoa dela proposatzen dute eta ekarpen honen bidez, ez oso modu erreflexiboan, berriz ere hasierako galdera esentzialistara bueltatzen dira.

Perspektiba konstrukzionista batetik praktika sozialak identitatearen definizioa direla baieztatzean, ikuspegi esentzialista batera bueltatuko litzateke hari teorikoa. Identitate kontzeptuaren inguruan atal teorikoan esandakoa gogoratuz, euskal identitateari dagokionez planteatu beharreko ikerketa-galderaren ezintasunak agerikoak dira, beste behin ere, *zer da euskal identitatea erantzun ezin delako*. Plano politiko batetatik, hau ahuldu egiten delako (Laclau, 2005 eta Peris, 2008); plano sozial batetatik hau erantzunda dagoelako (CEIC, 2005) eta plano soziologiko batetatik erantzun ezina delako (Hall, 2003 eta Butler 2002, 2007).

Ikuspegi teoriko landua behar da euskal identitatea ikertzerako orduan: gizartearen diskurtso eta praktikak ezin daitezke definizio soziologiko bezala ulertu (soziologia eta etnosoziozia banatu beharra baitago), eta gizarteak egin, esan, esaten egiten duena eta egiten esaten duen horretatik harago joan beharra dago. Lotuak dauden arren, *zelan eraikitzen da identitatea eta zer da identitatea galderak eta hauen erantzunak plano soziologiko batetik bereizi beharra daude*. Beraz, zelan formulatu euskal identitatea aztertu ahal izateko ikerketa-galdera? Aurreko ikerketek egindako lanari esker eta identifikatutako bidearen arabera, zelan eraikitzen da euskal identitatea XXI. mende hasierako euskal gizartearen?

Euskal identitatea aztertzeko hainbat proposamen

«Jatorrizko orrialdea ote gara,
 ala ikatz-orriaren azpiko orrialdea?
 Bata zein bestea, tarteka?
 Edo anabasa hutsa den kalko beltza,
 behin eta berriro erabilia eta irakurtzezina?
 Imitazioen pilaketa hutsa baino ez,
 kalkoa kalkoaren gainean?»

(*Harkaitz Cano, Twist*)

Identitatea esentzia bat bezala ulertu izan da mendeetan zehar. Norbanakoari edota kolektiboari izaera bat ematen dion elementua; aldatketak sufritzen ez dituen elementua, «Semper Idem» mantentzen dena. Zalantza egoeretan heldu dakiokkeen ziurtasuna da: pentsatu behar izan gabeko era automatikoan aktibatzen den hitza: definizioa. Hasiera batean azaldu bezala gizartea aldatu egin da azken urteetan eta, jakina, euskal identitatea ulertzeko eta sentitzeko erak ere aldatu egin dira. Jatorri ezezaguna duen hizkuntza edota mendeetan bereizi mantendu den herria dela ozen aldarrikatu arren, Euskal Herria ez da hain berezia eta, maiz ahazten den arren, testuinguru globalak euskal gizarte zahar eta txiki hau ere zipirtintzen du.

Gizarte bat ulertzeko bere literatura irakurtzea besterik ez zegoela esan zigun Ignacio Mendiola irakasleak Soziologia lizentziaturan. Harkaitz Canoren *Twist* eleberriko protagonistaren hausnarketak jarraituz, lehenik eta behin, identitatearen izaera originala edo esentziaren existentzia bera kolokan jartzen duela ikus daiteke: azpiko orrialdea ote gara? Originala baino, kopia ote gara? Bigarrenik, bi posizioak aldi berean habitatzeko aukera kontenplatu du: dikotomiak gainditzen ditu, bata *edo* bestea izatearen beharra gainditzen du. Hirugarrenik, identitatearen izaera bakarra, koherentea eta homogenea kolokan jartzen ditu: anabasa hutsa izan gaitzke, etengabeko aldatetan egoteagatik/egiteagatik irakurtzen ezinezkoa dena, eta, beraz, adierazten eta definitzen ezinezkoa dena. Azkenik, identitatearen purutasuna bera jartzen du ezbaian: imitazio bat ei gara, ez gara errealak eta ez gara puruak.

Doktorego Tesian, lehenik eta behin ikerketa-galderari dagokionez, euskal identitatea soziologikoki erreferente batzuen bidez *zer den* definitu ezin dezakegunaren ideiatik abiatu nintzen. Hau da, plano soziologiko batetik euskal identitatea, adibidez, «euskara» edota «Euskal Herria bizi edota lan egitea» dioten erantzunekin ezin bete dezakegula

planteatu nuen. Soziologiari nazio-identitatea definitzea ez dagokio-la deritzot, eskubide hau gizarteari dagokio, izan ere, euskal gizarteak egunerokotasuneko praktika eta diskurtsoen bidez euskal identitatea zelan bizi duen modu anitzetan erantzuten du. Baina, era berean, Euskal Herriko erakunde politiko edota kulturelek euskal identitatea definitzeko zilegitasun osoa dutela uste dut: haien helburu zehatzei begira ez baita egongo euskal identitatearen inguruko definizio «okerrrik» eta, horregatik, euskal identitatea definitzearen ezintasuna plano akademikorara mugatzen dut soilik.

Etengabeko mugimenduan dagoen eta modu anitzen bidez erai-kia den identitatearen nukleoa zentzu soziologikoz ezin dezakegu bete: identitatearen benetakotasunaren berri emango digun esentzia edota original bat ez baita existitzen (Butler 2002, 2007). Are gehiago, esanahi bati denboran zehar emandako definizioek kontzeptuaren esangura bera hustuko dutenez (Laclau, 1996), soziologikoki euskal identitatea *zer da* erantzun ezin dezakegula proposatzen dut. Hori dela eta, ikerketarako definizio analitiko bat behar dugun arren, eta hau denboran zehar mantenduko ez denez (Hall, 2003), soziologiatik praktika eta diskurtso sozialetan erreparatuz euskal identitatea *zelan eraikitzen* den erantzun behar dugula deritzot.

Soziologiaren betebeharra gizartea entzun eta ezagutzea da, ez nazio-identitatearen inguruko definizio mugatuak ematea. Baina, era berean, euskal identitatearen inguruko definizio sozialak ezin ditugu definizio soziologikoki bailiren bezala ulertu. Hori dela eta, *zer da* ikerketa-galdera soziologikoki gaingitu behar dela deritzot, baina beste ekarpen batzuk ez bezala (Gatti eta Martínez de Albéniz, 2006), gizarte definizio eta praktikak euskal identitatea *zer den* definitzeko baliagarriak ez direla uste dut; berriro ere, (euskal) identitatearen nukleo existenzial hori soziologikoki bete ezin dela baiteritzot.

Esentzialismora eramaten duen ikuspegi honen ordez, herritarren praktika eta diskurtsoek *nor diren* esan beharrean *zer kolektiboren parte* diren azaltzen duten ikuspegia hobesten dut. Beste era batera esanda, *zelan eraikitzen da* euskal identitatea galdetuz, *zer da* euskal identitatea edota *nor da* euskal herritarra erantzuna lortu baino, biztanlea *zer kolektiboren* kide den erantzutea lortzen dugula uste dut: praktika jakin batzuek subjektua *izan*(go) dena erantzun ordez, momentu zehatz batean kolektibo baten kide *egingo* lukete. Subjektu erreflexiboak kontrako identitate-praktikak izan ditzake eta identitate anitz dituen subjektu hau *nor* den erantzuten saiatu beharrean, zer praktika (*zelan*) eta *zer kolektiboren parte* den erantzutea interesgarriagoa izan daiteke.

Horrela, euskal gizarteko biztanleriak bere euskal identitatea *zelan eraikitzen* duen aztertuz, nazionalistetan (*nork*) eta hauen erantzun ezi-

neko definizioari (*zer da*) ez badugu erreparatzen, estatua duten beste nazio-identitateen mailan jarri nahi dut euskal identitatea (Peris, 2008 eta Mateos eta Zabalo, 2012): horrela lortuko dugu sakoneko galdera teorikoak identifikatzea eta sakoneko erantzunak argitzea. Horregatik guztiagatik, euskal identitatea *zer da* sozialki modu anitzean bidez erantzuten den arren, soziologikoki bete ezin den ikerketa-galdera dela azalduko dut datozen orrietan. Ikerketa-galdera honen ordez, euskal identitatea *zelan eraikitzen* da formulatzeak bide oparoagoa irekitzen du.

Euskal identitatearen inguruko ikerketa-galdera birformulatu ostean, eraikuntza moduei erreparatu ahal diegu galdera argi bat eginez: *zelan eraikitzen* da XXI. mende hasieran euskal identitatea? Egun, Doktorego Tesian ikusitakoari esker, euskal identitatearen eraikuntza negatiboak (*Gu*-ak dituen berezitasunak berretsiz *Haiek*-engandik bereiztuz) indarra galdu duela eta, honen ordez, euskal identitatea sozialki hainbat esparrutatik modu positiboan eraikitzen dela proposatu dezaket. Hau da, euskal identitatea batez ere talde barneko harreman sozialek eraikitzen dutela. Era berean, euskal identitatea talde barneko harreman (*Gu-Gu*) zein kanpoko taldeekiko (batez ere espainiar eta frantziar estatuetik) oposizioaren bidez (*Gu-Haiek*) eraikitzeaz gain, kanpoko taldeek ere euskal identitatearen eraikuntza baldintzatu eta zenbait kasutan politikoki zein sozialki eraikitzen ahal dutela egiaztatu nuen: *Haiek-Gu*-aren nazio-identitatea eraikitzen dutela, hain zuzen ere.

Azkenik, aurreko autoreek identifikatutako 90eko hamarkadako instituzionalizazio politikoaren garaiaren ostean (Pérez-Agote, 1984 eta Martínez de Albéniz, 2003), gizarteak euskal identitatearen eraikuntzaren parte izatea aldarrikatzen duela proposatu nahi dut. Ikerketan zehar ikusi bezala, dimentsio politiko tradizioaletik at dauden praktika eta diskurtso sozialen bidez, euskal gizarteak beste garai batean (Franco hil eta instituzionalizazio garaia bitartean bezala) euskal identitatea eraikitzeke zuen aukera indartu nahi du. Modu honetan, euskal identitatea eraikitzeke logika propio horien garapenean dimentsio sozialeko eta kulturaleko erreferenteek garrantzia hartu dute.

Aipatu galdera orokorra kasu zehatz batean egokiago aztertu eta sakondu daitekeelakoan, eta Facebook zein Interneti dagozkien ideiatara igaroz, eta erakunde politikoek espazio publikoa monopolizatzen dutela ikusita (Pérez-Agote, 1984 eta Martínez de Albéniz, 2003), gizarteak euskal identitatea eraikitzeke espazio pribatu eta intimoak okupatu dituela esan daiteke: espazio publikoa erakunde politiko frankistek okupatuta zuten garaian bezala, espazio pribatuak garrantzia hartzen du. Gizarteak erakundeetatik at Internet identitatea eraiki ahal izateko espazio pribilegiatua duela jakinda (Dutton, 2009), Facebook euskal identitatea eraikitzeke espazio pribilegiatua dela pentsa daiteke: kalean

ez bezala (erakunde politikoek espazio publikoa monopolizatzen dutelako), gazteek espazio horretan *egoteko* eta *egiteko* habitat ezin hobea baitute. Ildo beretik, ordea, gazteek Internet edota Facebook kontrolpeko espazio moduan bizi dutela jakinda ere (boyd, 2002) ikerketan parte hartu duten kideek *Haiek* batetatik behatuta sentitzen diren panoptiko digital moduan bizi dute espazio hau ere.

Beraz, espazio pribilegiatuaren eta kontrolpeko espazioaren kontzeptuak kontuan izanik eta Franco garaian dimentsio sozial batetik egiten zen euskal identitatearen eraikuntzarekin alderatuz (gizartearentzat espazio pribatu hori pribilegiatua eta segurua zen), ikerketan parte hartu duten gazteentzat Facebook bezalako online espazio pribatuak sozialki euskal identitatea eraikitzeko espazio pribilegiatuak diren arren, maila sistemiko batean espazio ez seguruak dira. Era berean, beste harkadetako estrategia taktika (De Certau, 1996) bilakatzen dela ere esan daiteke: egun, beste garai bateko militanteak bezala espazio pribatutik espazio publikoa konkistatzeaz gain, gazteek sistemaren tresneak baliatuz, arrotz duten online espazio pribatu hori bereganatzen baitute *egoteko* eta *egiteko* espazio egoki bat bilakatuz.

Beste alde batetik, Facebook, tresna eta espazioa den heinean, eskaintzen duen hipertestua dela eta, ikerketan parte hartu zuten gazteek euskal identitatearen eta kolektiboen eraikuntza aurrez aurrekoa baino modu errazago eta flexibleago batean egin daitekeela azaldu zuten: testuaz gain, argazkiak eta bideoak konpartituz euskal identitatea eraiki edota taldeen kide izan eta hauetatik atera «klik» huts baten bidez egin daitekeelako.

Azkenik, komunitate ereduaren edota taldetasunaren inguruan beste bi ideia proposa daitezke, izan ere, Gizarte Postmodernoren atalean landutako harreman sozialak eta taldetasun mota flexibleak ala indartsuak ote diren kuestionatzen dituzten ideiak Euskal Herriko eta Facebookeko kasuan kontrastatu egin behar ditugu. Euskal identitatearen eraikuntzaren plano sozialari erreparatu, Euskal Herria herri gisa —kasu honetan, dimentsio sinbolikotik begiratuta— batez ere egunerokotasuneko praktika eta diskurtso sozialen bidez eraikitzen dela esan daiteke: Facebookeko harreman sozialek erakusten duten moduan eta hauetara mugatuz, egun, euskal identitatea eta Euskal Herriaren beraren ideia politiko eta ideologiko bat jarraituz baina, batez ere egunerokotasuneko plano sozialean eraikitzen baitira.

Ildo beretik, aipatu bezala, euskal identitatearen eraikuntzan dimentsio sozial eta kulturalako erreferenteek garrantzia hartzen dutela deritzot —eta horregatik, proposatu bezala, soziologikoki definiziozina den euskal identitatea sozialki modu anitzen bidez definitu, bizi eta eraikitzen da. Praktika eta euskal identitate-erreferente aniztasun honek, Eus-

kal Herriak osatzen duen komunitatearen baitan, kolektibitate txikiagoak daudela pentsatzera garamatza. Ondorioz, euskal gizartea dosel sakratu (Gurruchaga, 1990) baten inguruan antolatzen den komunitate bat bezala ulertu baino, hain koherentea eta homogeneoa ez den komunitate-eredu bat irudikatu behar dugu: komunitate osoa nazio-identitate-erreferente ezberdinak maneiatzen dituzten kolektibitateetan zaitakuta dagoelako, hain zuzen ere.

Azkenik, Doktorego Tesian egindako hiperespazioaren azterketa honen bidez aurkitu dudana euskal identitatearen eraikuntzak, nazio eta estatuen muga geografikoak gainditzen dituen *territorio* bat sortzen duela argi ikusi dut: Joseba Kamioren (2012) laguntzaz, *Herri digitala* gisa izendatu dudana. Euskal identitatea Interneten (bidez) Euskal Herriatik bertatik zein kanpotik eraikitzen da, ideia honek Internet bidezko harremanek *mapetako* muga geografikoak gainditzen dituztela proposatzera eramaten gaitu. Are gehiago, euskal identitatearen eraikuntza jada ez da soilik lur eremu baten baitan gauzatzen (nazioa, estatua edota diasporako egituren kasuetan bezala). Lurralde honek eragina duen arren, nazio-identitatearen eraikuntza espazio geografikorik okupatzen ez duen *hodeian* ere egin ahal da. Herri digitala kontzeptuaren bidez herriek Internet garaian duten territorialitate eredu berriaren inguruan hausnartu nahi dut, ahal den neurrian, mapa berriak irudikatuz.

Laburbilduz, orokorrean, euskal identitatea aztertzerako orduan kontuan izan beharreko proposamenak eta, zehazki, liburuan zehar landuko diren sei ideia nagusiak honako hauek dira:

1. Euskal identitatea *zer da* sozialki modu ezberdinez erantzuten den arren, soziologikoki bete ezin den ikerketa-galdera da eta, horregatik, euskal identitatea *zelan eraikitzen* da aztertu beharra dugu. Era berean, euskal identitatea eraikitzen duten praktikek eta diskurtsoek euskal herritarra (eta ez nazionalista) *zer kolektiboren parte* bilakatzen duten adierazten dute.
2. *Haiek-Gu*-aren nazio-identitatea eraikitzen dutela identifikatu dudana arren (espainiar zein frantziar estatuak euskal identitatea eraikitzen duten arren), euskal identitatea batez ere talde barneko harremanetan modu positiboan (*Gu-Gu*) maneiatzen diren dimentsio sozial zein kulturalako erreferenteen bidez eraikitzen da.
3. Kalea edota plaza bezalako espazio publikoekin alderatuz, Facebook bezalako online espazio pribatuak sozialki euskal identitatea eraikitzeko espazio pribilegiatuak dira, baina maila sistemiko batetik, espazio ez seguruak dira. Franco garaian euskal identitatea eraikitzeko seguru eta pribilegiatua zen espazio pribatua, egun, soilik pribilegiatua da. Era berean, espazio pribatutik espa-

zio publikoa konkistatzeko estrategiaz gain, taktika kontzeptuak berebiziko garrantzi hartuz doa.

4. Facebooken (bidez) euskal identitatearen eta kolektiboen eraikuntza aurrez aurrekoa baino modu errazago eta flexibleagoan egiten da. Era berean, euskal identitatearen eraikuntzan bestelako logika batzuk garrantzia hartu dute (instrumentala, banala eta umoristikoa kasu).
5. Euskal Herria herri gisa (dimentsio sinbolikotik pentsatuta) ideia politiko edota ideologiko batzuen arabera eraikitzeaz gain, batez ere, egunerokotasuneko dimentsio sozialean eraikitzen da. Euskal identitate-erreferente sozial eta kulturalak nagusi izanik, Euskal Herriak osatzen duen komunitatearen baitan kolektibitate txikiagoak daude.
6. Euskal identitatearen eraikuntza onlineak nazioen eta estatuen muga geografikoak gainditzen dituen *territorio* bat sortzen du: *mapa* eta *hodeia* uztartuz, herri digitala deritzodana.

5. Euskal identitatearen eraikuntza Facebooken (bidez)

«Inork ez zidan esan,
euskaldun izatea zein nekeza den.
Hobe nuela hautatzea,
munduko hiritar izatea.»

(*Ruper Ordorika*, Zaindu maite duzun hori,
<https://www.youtube.com/watch?v=UtjzB9xrAw>)

Euskal identitatearen inguruko «bizi-penak» Facebooken

Euskal identitatea dimentsio anitzetatik aztertu eta bizi daitekeen arren, soziologiatik egindako ikerketa honen ardatza bere plano soziala aztertzea da: gizarteak egiten eta esaten duena aztertzea, hain zuzen ere. Aurreko kapituluetan ikuspegi orokor batetatik landutako ideiak kasu zehatz batean kontrastatzeko moduan gaude orain: Interneten kasuan eta, zehatzago izanda, mundu mailan zein Euskal Herrian hain arrakastatsua izan den Facebook online sare sozialaren kasuan. Aurreko kapituluan aipatu sei ideia nagusietatik badago gailentzen den hausnarketa bat: euskal identitatea bizi eta aztertzerako orduan banatu beharreko zenbait dimentsio daudela, are gehiago, beste dimentsio guztien gainera azken hamarkadatan euskal identitatearen aspektu sozialak eta kulturalak indarra hartzen dutela. «Erasmus» taldeko gazte honen testigantza horren adierazgarri da:

«Askotan politika eta kultura, “identitatea” zaku berean sartzen dugu. Eta nik uste kanpora kutsu politiko gutxiago eta kultura identitate handiagoa esportatu behar dela benetan uler gaitzateela nahi badugu.»

(Erasmus Kidea 2, 2012)

Ikerketan parte hartu zuen Nahiak ere bere Facebookeko hormako jarioan azkenaldian Euskal Herriari lotutako eduki politikoen postak behera egin dutela uste du, hauen orde, dimentsio kulturalari dagozkion sentsazioak jartzen ditu. Horrela mintzatzen da Skype bidez egindako idatzizko elkarrizketa honetan:

«Es que gaur egun contenido politikoa Facebooken nahiko gutxitu da EHri buruz. Gehiago hitz egiten da Espainiako krisiaz, Espainiako gobernuaz, protestak and so on. Ez dago hainbeste contenido politikorik.»

Ta zuk gehiago jartzen duzu contenido hoietaz?

Ez ez. Athleticki buruz mintzatzen naiz.»

(Nahia, 2011)

Azpimarratzekoa da erreferentzia espainiar politika dela, ez Euskal Herriaren ingurukoa, eta hau («krisia», «Gobernua», «protestak») ez direla eduki politiko moduan ulertzen: estatu egonkorren politika ez da politika, normalizat hartzen dugun zerbait da. Nahiarekin batera ideia hauetan sakontzean, atal teorikoan mahai gainean jarritako euskal identitatearen eraikuntzaren puntu garrantzitsu bat ikus daiteke. Manuel Castellsek (2006) Kataluniaren kasuan proposatu bezala, gazte honen ustez, euskal identitatea ideia politiko baten arabera baino egunerokotasuneko praktika eta diskurtso sozialen bidez eraikitzen den identitatea da.

Are gehiago, ikerketan zehar ezagututakoaren arabera, gazteek Facebooken (bidez) partekatzen dituzten euskal identitate-erreferenteak dimentsio sozial eta kulturaleri erreferentzia egiten diotela esan daiteke: dimentsio politikoa (modu tradizionalen ulertuta) mantentzen den arren, testigantza honetan ikusi bezala, kirolak edota kasu honetan futbol talde jakin batek garrantzi handiagoa du, adibidez. Ideia berarekin jarraituz, Nahiak hurrengo dio:

«Eta nik nire kasuan ez zait gustatzen fan egitea, adibidez, fan de "Bildu", fan de "Euskal presoak", fan de "EH". Baina bai ikusten duzu jendea fan de "Bilbao", fan de "Somera". Eguneroko detaileekin lotzen da, ez nazioarekin.»

(*Nahia, 2011*)

Gazte honek koalizio politiko, giza-eskubideen aldeko aldarri edo lurraldetasunari erreferentzia egiten dion talde baten kide izaten baino, euskal identitatea egunerokotasuneko praktika sozial eta aisialdi-praktikekin zerikusia duten talde adskripzioen bidez egiten du. Nazio-identitatea ez du nazio berarekin lotzen, egunerokotasuneko bizitzarekin lotzen du: barneratuta eta normaltzat jotzen dituen praktika horiekin, hain zuzen ere.

«Eta zu! Zergatik zara euskalduna?»: soziologikoki definitu ezin eta sozialki erantzun nahi ez den identitatea

Atal teorikoan esan bezala, identitatea soziologikoki definitu ezin daitekeen ikerketa-objektua da eta, orain, gazteen testigantzei esker, ikuspegi sozial batetik euskal gizartean euskal identitatea definitzeaz edota justifikatzeaz nekatuta dagoen sektore bat badagoela gehitu daiteke. Horrela bizi du Nahiak euskal identitatearen inguruko elkarrizketetan azalpenak eman beharra.

«Es que ez dut ez gogorik, ez... pertsona bakoitzari azaldu behar badiozu nongoa zaren! Badago jendea igual a saco doana eta hoiek in ya denbora galtzen duzu. (...) Jo! Zenbat aldiz esan dut "Ni Islandiakoa naiz" askoz errezago! "Nongoa? Islandia. Ah? Ah! Ala toma!" (barreak). Zer dakizu Islandiari buruz? Ez dakizu ezta hizkuntza! Listo! Es que ya kokoteraino (...) (barreak) Orduan dices "Islandiakoa naiz!" (barreak) Asi que beitu, Islandiako naiz eta listo. "Ah, bonito continente! Baietz eh!" (barreak).»

(*Nahia, 2011*)

Ikerketan parte hartu duten gazteak euskal identitatea *zer den* definitzeaz nekatuta daude: hau bizi eta eraiki nahi dute. Ez dituzte definizio hori eman behar izateko arrazoiak ikusten eta galdera hori jasotzean, eta aurrean duten pertsona aseko ez duen erantzun zuzenik

ezean, egoera horretatik ateratzeko taktika ezberdinak bilatzen dituzte: kasu honetan bezala, ironikoki eta umorearen bidez erantzunez. Ikerketa hau hasi nuenean, ordea, ez nituen aurreko kapituluetan proposatutako ideia teorikoak ez eta gazteen testigantzak ezagutzen. Horregatik, elkarrizketatutako gazteei plano etnosozilogikotik sortutako galderak egin nizkien eta ez ikuspegi soziologiko batetik formulatutako galderak: euskal identitatea definitzea eskatu nien, hain zuzen ere.

Zer da euskal identitatea bezalako galderaren aurrean, lehenik eta behin, gazteak isildu egiten zirela ikusi nuen eta erantzun bat pentsatzaren zuten bitartean galdera berriz ere errepikatu behar nuen. Ondoren, gazteengan errezeloa nagusitu zen: elkarrizketatutako gazte batek esan bezala, ez dira fio egindako galderaz eta «galdera tranpa» (Sakoneko Elkarrizketa 2, 2010) ote den galdetzen dute. Beste gazte batzuek, haien izaera erreflexiboa erakutsiz, egindako galdera susmagarritzat jotzeaz gain galdera bera kuestionatzen dute. Lehen aipatu bezala, zenbait gaztek erabateko erantzun asegarri bat aurkitu ezean haien bueruari galdera bera egiteari uko egiten diote. Eztabaida talde batean neska honek azaldu bezala:

«Egiten dut paso ez dakidalako erantzuten. O sea, da gauza bat hitz egin dudala askotan, jende askokin, hasieran nuela nire buruan gauza bat, pues, euskalduna izatea zer izaten ahal zen edo zer sartu diguten edo zer esan didaten. Baina gero jun zait aldatzen eta jun beharrean definitzen joan naiz gero eta duda gehiago izaten, uler-tzen? Ordun... buf!»

(Eztabaida Taldea 2-ko 1kidea, 2010)

Bestetik, galdera erantzuten saiatzeko behin eta berriz eskatzen zaienean, zenbait gaztek, atal teorikoan aipatutako jaiolekua edota hizkuntza bezalako definizio tradizionalak jartzen dituzte mahai gainean. Arazoa, ordea, definizio hauetan sakontzean sortzen da. Izan ere, isiltasuna, galdera bera kuestionatzea eta erantzun asegabeak galdera argitzeko aski ez direnean, elkarrizketatuek galdera elkarrizketatzaileari bueltatzen baitiote: «*Uste nuen zuk definitu behar zenuela euskal identitatea. Baina ez al duzu egin definizio bat edo zerbait?*» (Sakoneko Elkarrizketa 2, 2010) galdetu zidan elkarrizketatuetako batek, zokoratu-ta dagoenaren tonu erdi haserrearekin.

Galdera mota hau gazteei egin nizkienean Quebecoko kide batek, Christine Dallaire-k (2012), baino zorte hobea izan nuela onartu behar dut. Berak kontatu zidan, orri zuri batean gazte bati bere identitate akadioa zertan zetzan idazteko eskatu zionean eta galdera honi

bere sentimenduak ordezkaten ez zituzten arrazoi hutsez erantzuteaz nekatuta, gazteak orri zuria bola bat egin eta aurpegira bota ziola. Nekea, haserrea, frustrazioa eta inpotentzia dira nagusi pasarte honetan, erantzun egokirik ez duen galdera baten aurrean sentitzen den hori guztia, hain zuzen ere.

Testua, argazkia eta taldea: euskal identitatea hipertestuen bidez eraikiz

Ikerketa-galdera aldatu beharra zegoen. Erantzuteko aukera ematen duen galdera bat formulatu behar nuen eta, horrela, irakurritako ideiak gazteek emandako erantzunekin uztartuz, euskal identitatearen eraikuntzan zentratzeko aukera izan nuen. Galdera honen bidez, Doktorego-Tesian landu bezala elkarren artean lotuta dauden hamaika adar ezberdin aurkitu daitezkeen arren, liburu honetan Facebooken aurkitu daitezkeen elementu guztietatik, euskal identitatearen eraikuntza aztertzeko hiru elementu zehatz arakatuko ditugu soilik: testua, argazkiak eta taldeak.

Euskara «datsegit»: hitz egiten den bezala idazten den hizkuntza

Erabiltzaileak Facebookekin duen lehen harremana online sare sozial horretan erregistratzerako momentuan da eta, beraz, testuaren azterketa sistemaren ikuspegi batetik hasi beharra dago. 2011tik Facebookek euskaraz erregistratzeko aukera ematen du erabiltzaileek egindako itzultze lanagatik, eta, horregatik, baita sistemak berak hizkuntza erabilera mota jakin bat baimentzen du. Sistemak ez du gaztelaniaz edo frantsesez komunikatzeko derrigortasunik sortzen ez eta euskaraz aritzea debekatzen. Hala ere, ikuspegi sistemiko honetatik ere kontrako egoera bat aurkitzen du erabiltzaileak, izan ere, Facebookek, egun, ez du aukerarik ematen erabiltzailearen identitatea euskal herritar moduan definitzeko.

Beraz, lehen pauso honetatik hasita, eragin instituzionalak medio, gazteak euskal identitatea eraikitzeke lehen zailtasuna aurkitzen du: euskaraz nabigatu dezake bere Facebookeko profilean baina ezin dezake bere burua euskal herritar gisa erregistratu. Hizkuntzari lotutako euskal identitatea eta herritartasunari lotutakoa banatzen dira puntu horretan. Hori dela eta, Facebookek eta estatuek duten eragin instituzionala ikusita, Internet askatasunez bizi daitekeen espazio hutsa denaren ideia baztertu beharra dago.

Hizkuntzaren azterketara bueltatuz, hau dimentsio sozialetik aztertuta eta erabiltzaile arteko harremanetan arreta jarriz, euskal gazteak euskaraz ere aritzen direla ikusi nuen behaketa ez parte hartzailearen bidez. Offline errealitateak eta onlineak duten harremana gogoratuz, elkarrizketatutako gazteen arabera, kaleko egunerokotasunean duten hizkuntza erabilera Facebooken gauzatzen dela esan daiteke: familiarekin, ikastetxean edota lagunekin dituzten harremanetarako erabiltzen duten hizkuntzan aritzen dira Facebooken ere eta euskal gazteek offline munduan euskaraz aritzeko jarrera onlinean mantendu egiten dute.

Hiperespazio kontzeptuari jarraituz eta datu gabezi baten aurrean, (Internet euskararentzat aukera edo mehatxua ote den) maiz eztabaidatzen den gaia birplanteatu beharra dago liburu honetan: diskurtso bat osatu aitzin, aipatu gainontzeko espazioetan (familia, ikastetxea, lagunak) hamarkadetan zehar ikerketa sakonen bidez egin den bezala, Interneteko plataforma ezberdinetan erabiltzaileek euskaraz aritzeko dituzten elementu estrukturalak eta joera sozialak aztertu behar ditugu.

Beste alde batetik, euskal gazteek Facebooken dituzten harremanak eta bereziki horren bidez erabiltzen duten hizkera, hizkuntzan eragin zuzena izatera hel daitezkeela pentsa daiteke. Landa lanean elkarrizketatutako gazte guztiek hitz tekniko espezifikokoak erabiltzen zituzten haien online bizipenen berri emateko: «argazkia altxatu» bezalakoa, adibidez. Hori dela eta, gazteek euskara bere eginez eta euskararekin jolastuz, online harreman sozialek mundu ikuskeraren berri ematen duen hizkuntzan eragina duela esan dezakegu. Gabriela Suedek (2010) landu bezala, lagunez osatuta dagoen online espazio horretan, gazteek naturaltasun eta freskotasun osoz hitz egiten duten moduan idazten dutela esan daiteke. Beste hizkuntzetan bezala, euskarazko hitzak mozteaz gain, gazteek online sare sozialetan bestelako modutan idazten dute euskaraz.

Ildo beretik, posta edo publikazioa, orokorrean, dinamikoa eta motza den harreman testual mota bat dela baieztatu daiteke. Honen betebeharr nagusia lagunak idatzitakoari erantzutea da: hizkera informalarekin idatzitako mezu ez oso hausnartuak eta bat-bateko komentarioak dira hauek. Hizkuntzaren erabilera informal baten bidez, behatutako gazte hauek hitzak laburtu, ortografikoki gaizki idatzi edota online munduarekin lotutako hitzak sortu eta erabiltzen dituztela ikusteko aukera izan nuen: Francisco Yusek (2001) «*ahozko testu idatzia*» bezala izendatutakoa, hain zuzen ere. Beste modu batera esanda, euskal gazteek euskararekin jolasten dute hizkuntzaren zuzentasuna alde batera utziz eta hau freskotasunez erabiliz. Adibidez, izenburuan erabilitako «Datsegit» Twitterreko zenbait erabiltzailek sortutako «Trinkotzaindia»-ren «#hitzmloi» (erabiltzaileek sortutako «hashtag» edo etiketa) bat

da. Hitz egiten den moduan idatzitako hitz honek erabilera sozialei esker euskarak egun duen izaera freskoaren berri ematen du. Ikerketan parte hartu zuen Aiorak berak idatzitako postean ikus daiteke hori, batetik, hitz egiten duen eran idazten du, «*det*» edota «*pilla*» bezalako hitzak erabiliz, eta, bestetik, euskararen arauak hautsiz, «*earra*» bezalako adjektiboak moztzen ditu.



2. irudia

Testu idatzi bidezko harremanak, euskara eta euskal identitatearen eraikuntza

Gazteek hizkuntza arauak apurtzen dituzte idatzizko online harreman hauen bidez: akatsak eginaz euskara propiotzat hartuz, barneratuz eta jolastuz, euskaraz aritzen dira lagunez osatutako Facebook online sare sozialean.

Beste alde batetik, Facebooken euskara eta ingelesaren arteko nahasketak ere aurkitu dira eta, horregatik, Ipar Ameriketako Estatu Batuetako produkzio kulturalak euskal gazteen artean duen eragin soziala azpimarratu beharra dago: erreferente horiek jarraituz edota haien tele-sailetako pertsonaia kuttunenek erabiltzen dituzten esaldiak birproduzitzen, gazteek euskarazko esaldietan hitz ingelesak txertatzen baitituzte. Hori dela eta, espainiar eta frantziar estatuak euskal identitatearen eraikuntzan duten botereari eta eraginari Ipar Ameriketako Estatu Batuek dutena gehitu behar zaio.

Bukatzeko, erabiltzaileen izen deiturak izan ziren testu idatziari dagokionez arakatutako bigarren elementua. Facebooken erregistratzeko izen bat jartzea ezinbestekoa da eta erabiltzaile askok euskal izaera baten berri ematen dute bai haien izen-propio euskaldunen bidez (adibidez, «Ximon»), bai lurraldetasunari erreferentzi egiten dioten izenen bidez («Ximon Arrasatekoa») eta bai haien euskal identitate sentimendua modu esplizituan azpimarratuz («Ximon euskalduna»).

Horrela beraz, Facebooken euskaraz arituz edota garrantzi gutxiko ekintza dirudien erabiltzaile izena hautatuz, gazteek euskal identitatea eraikitzen dute lurraldetasun edota kolektibitate sentimendua indartuz. Mundu offlinean bezala, norberaren burua izen propio euskaldun baten bidez

izendatzean euskal sentimendu baten berri ematen dute eta gainontzeko kideekin euskaraz aritzean euskal identitatea eraikitzen dute. Baina, mundu offlinean ez bezala, norberaren izena nahi bezala izendatzeko aukera dute eta, horregatik, izen-propio euskaldunak ematen duen euskal sentimenduaz gain, euskal gazteek Facebooken esplizituki eta modu erreflexibo batean haien euskal nortasuna aldarrikatzeko aukera dute.

«Euskalduna naiz perfileko argazkian mendian ez agertu arren»

Facebooken eta Facebook bidezko harremanen bidez euskal identitatea nola eraikitzen den identifikatzeko euskal gazteek jartzen dituzten argazkiak ere aztertu nituen. Aipatu berri diren erabiltzaile izenez gain, Facebook kontua sortzerako orduan, gazteak gainontzeko erabiltzaileek ezagutzeko baliagarria izango den profileko argazki bat jartzeko aukera du. Mota askotako profileko argazkiak aurkitu diren arren eta euskal identitatea eraiki dezaketen argazkiak asko diren arren, lehen esplorazio ikerketa honetan, kasu oso zehatz eta oinarritzkoetara mugatzea erabaki nuen: gazteek erabiltzen dituzten euskal sinbolo klasiko (lauburuak, arrano beltzak, ikurrinak...), leku geografiko edota paisaia eta aldarrikapenak agertzen diren profileko argazkiak izan nituen aztergai.

Era berean, beharrezko sakontasunez aztertuak izan ez diren arren, bereziki interesgarriak dira 2011n Japonian egondako tsunamiaren ostean indarra hartu zuten «txapa» moduko ikurrak. Txapa hauek Euskal Herrian hainbat egoera salatzeke edota errebindikatzeko sortu eta erabili dira azken urteotan. Ikerketan parte hartu zuen Oierrek egin bezala, txapa hau bere argazkiaren alboan jarriz, gazteek haien aldarrikapenen berri ematen dute modu esplizituan.



3. irudia

Oierren perfileko argazkia, «txapa»k eta euskal identitatearen eraikuntza

Idatzizko harremanen kasuan esan bezala, zenbait gaztek gainontzeko erabiltzaileek haiekin izango duten lehen harremana profileko argazkian zein izenean jarritako euskal identitate-erreferente baten bidez izatea erabakitzen dute. Eta honek, beste era batera formulatuta, haien burua Facebooken ordezkatuko duen irudia euskal sinbolo bat izatea erabakitzen dutela esan nahi du: gazteek identitate pertsonala sentimendu kolektibo batekin ordezkatu dute eta, beste kide euskal herritarrek horrela ulertuta eta konpartituta, profileko argazkiaren bidez euskal identitatea eraikitzen dute. Euskal identitatearekin lotuta dauden aldarrikapenak haien profileko argazki bezala erabiltzean edota «*Euskal Herriko selekzioa*», «*Euskal Herrian Euskaraz*» edo «*Independentzia*» fotografikoki adieraztean, gazteek euskal identitatea eraikitzen dute haien egunerokotasunean. Orokorrean, beraz, etnografia digitalari esker, ikerketan parte hartu duten pertsonak euskal sinboloak bereganatuz eta hauek Facebooken bere lagunei publiko egitean, euskal identitatea eraikitzen dutela ohartu nintzen.

Era berean, euskal gazteek ingurunearekiko duten harremana azpimarratu beharra dago, izan ere, gazte gehienek Facebooken mendia, itsasoa edota zuhaitza haien aurkezpen eta ordezkapen argazki gisa hautatzen dute. Erabiltzaileek Facebooken publikatutako argazki mota hauen bidez euskal identitatea lurraldetasunari erreferentzia eginez eraikitzeaz gain, naturak eta lurrak euskal irudikapen kolektiboan duen indarra ikus daiteke. Montserrat Guibernauren (2009:43) proposamena euskal identitatearen kasuan berretsi egiten da, beraz: naturak nazio-identitatearen eraikuntzan duen garrantzia nabaria da, gazteek egunerokotasuneko praktika sozialen baitan ateratzen dituzten paisaia argazkien bidez euskal identitatea eraikitzen baitute.



4. irudia

Aioraren profileko argazkia, paisaia eta euskal identitatearen eraikuntza

Euskal identitatea eraikitzen dute gazteek eurek altxatutako argazkien bidez. Baina haien hormetan argitaratzen dituzten argazkiak ez dira soilik haiek sortutakoak: «*beste batzuk egiten dutena jartzea eta gero nik esaldi bat edo bitaz nire ideiak*» (Oier, 2012) publikatzen dituela argitzen du gazte honek. Jarraian azaltzen duen bezala, askotan bera ez da argazki, artikulu edota bideoen ekoizlea, hauek klik baten bidez partekatzen ditu «Elkarbanatu» botoia sakatuz.

«O sea, bideoak jartzen ditut, fotoak adibidez ez... argazkirik normalean ez dut igotzen ze normalean nik ez dut ezer ekoizten, o sea, ni ez naiz kalera ateratzen bideoak egiten eta argazkiak ateratzen. Ordun, ez dut ezer nirea igotzen, igotzen dut beste jende batek ematen didana. Normalean argazkiak ez ditut jartzen, bideoak asko jartzen ditut, adibidez eta artikuluak bebai, hori, ni oso gutxi ekoizten dut, nik dudan bakarra nik ekoiztutakoa normalean letrak izaten dira: artikuluak izaten dira.

(Oier, 2012)

Facebook bidezko edukien elkarbanatze honen bidez, euskal identitatea norberak soilik eraikitzen ez duen identitatea dela argi ikus daiteke, gazteek identitate kolektibo bereko kideek sortutako identitate-erreferenteak eta hauekin partekatzen dituzten edukiak jartzen baitituzte. Beraz, Facebooken (bidez), euskal identitatearen eraikuntza erlazionala modu argi batean gauzatzen dela esan daiteke. Are gehiago, aurretiaz azaldu bezala, beste kide batzuen edukiak propio egiteaz gain, maiz, beste kideek norberaren Facebookeko horman publikatzeko aukera dute. Hori dela eta, besteek edota *Haiek* norberaren aurkezpen publikoan eragina izan dezaketen heinean, euskal identitatearen eraikuntzan *Haiek* ere zer esan eta eraiki handia izan dezakete.

Taldea «Atsegin dut»: botoi bat klikatzean, euskal komunitateko kide zarenean

Ikerketa honetan aztertutako hirugarren eta azken elementua Facebooken sortzen diren taldeak izan dira eta hauek euskal identitatea beste modu batean ulertzen eta eraikitzen dituzten online harremanak izanik interes berezia sortu zidaten. Erabiltzaileek euskal identitatea eraikitzen duten mota askotako taldeak sortzen dituzte Facebooken (kirolekin, telebistarekin edota musikarekin lotutakoak adibidez), baina

ikerketa honentzat bereziki garrantzitsuak izan ziren euskal identitatea gai zentrala izanik hau modu banal edo umoristiko batean ulertzen eta birsortzen duten taldeak.

Testu eta argazkietan ez bezala, taldeetan karga emozional indartsua edota euskal gizartean duten eraginagatik jorratzen konplikatua diren gaiak aurkitu ahal dira: «*Barbie borroka*», «*Nik ere polo sobe-ranista dastatu nahi dut beroa egiten duenean*» edota aurreko azpia-talean izenburu gisa erabilitako «*Euskalduna naiz perfileko argazkian mendian ez agertu arren*» taldeetan, adibidez. Euskal identitatea ulertzeko eta eraikitzeke modu banal eta umoristiko bat aurkitu da balia-bide honetan, izan ere, erabiltzaileek haien buruez barre eginez eta euskal gizartean jazotzen diren hainbat egoera irrigarri utziz euskal identitatea eraikitzen dute talde hauetan.

Arrazoi ezberdinak medio, gazteak arin atxikitzen dira talde jakin batera «*Atsegín dut*» botoian klik eginaz: atxikimendua adierazteke modu erraza dute gazteek, atzamar bat mugitu eta haien gustua azal-eratzten dute. Modu honetan, gaztea, gustu antzekoak dituzten beste kide batzuekin biltzen da talde berean: euskal identitate-erreferente berdina partekatuz, maneiatur eta negoziatur euskal identitatea eraiki-tzen ahal du. Klik egitea, beraz, berebiziko garrantzia duen ekintza erre-za da eta hainbestetan errepikatua izateagatik habitus gisa barneratua den praktika da gazteen artean. Izan ere, Facebookeko talde hauek sor-tzen duten kolektibotasun sentimenduari dagokionez, hauen kide izate-ke bete beharreko «iragate-erritua» Facebookeko orrian agertzen den «atsegín dut» botoia sakatzea da.

Gazteek klik egitea komunikatzeko modu bat bezala erabiltzen dute. Hitz egin gabe, argazkiak jarri gabe, soilik botoia sakatuz eta klik eginez haien gustuen eta sentimenduen berri ematen dute. Era berean, gazteek ekintza honen bidez euskal identitatea eraiki deza-kete Facebooken euskal identitatearekin lotutako taldeen kide egi-nez edota hauek atseginez ikusten dituztela adieraziz. Ondorioz, ha-bitus moduan barneratutako klik horren bidez, euskal identitatearen eraikuntza egunerokotasuneko praktika sozialetan txertatuta dagoela esan daiteke.

Diskurtso eta praktika sozialen arabera sortutako tipo idealak

Ikerketan aurrera egin ahala, gazteek Facebooken dituzten praktika eta diskurtso sozialen bidezko euskal identitatearen eraikuntzaren konplexuta-suna nabarmenki hazi zen. Horregatik, anabasa osatzen zuten ideia hauek ordenatzen eta sailkatzen lagunduko ninduten tipo idealak sortu nituen:

batetik, atzerritik egiten diren praktikak («Erasmus» gisa deitu ditudanak), bigarrenik praktika militanteak, hirugarrenik praktika banalak eta, azkenik, praktika utilitaristak identifikatu eta ezberdindu nituen.

Max Weberrek (1964) azaltzen duen moduan, tipo idealak inoiz ez dira puruak eta maiz posizio ezberdinek elkarren artean uztartzeko joera ere badute. Ikerketan parte hartu duten gazteek ere modu honetan ulertu zituzten nik sortutako tipo idealak. Militante gisa izendatutako Oierrek, tipo ideal hauen purutasuna kolokan jarritz, Facebooken erabileran banala eta utilitarista egiten duela ohartarazi zidan.

«Bai argi dago nik ere joku txorra hoiak erabiltzen ditudala eta zeezer jartzen dudak bakoitzean nire autopropaganda bilatzen dudala nire iritziak botatzen. Nireak ere botatzen ditut eta nere blog horretan, hilda dagoen blog horretan, zerbait botatzen dudanean hor ere idazten dudala eta orduan nire autopropaganda ere egiten dudala.»

(Oier, 2011)

Era berean, tipologia hau subjektuak (kasu honetan, euskal herritarrak) sailkatzeko tresna bat ez dela izan argitu beharra dago. Aurreko kapituluetan landutako teoria eta kontzeptuekin bat eginaz, ariketa honen bidez praktika eta diskurtsoak ulertu nahi izan nituen subjektuak izan ditzakeen posizio ezberdinak identifikatzeko asmoz. *Zelan eraikitzen da euskal identitatea Facebooken (bidez)* galdera formulatzeak, hainbat euskal identitate eraikuntza mota ezagutzera eraman ninduen eta hauek orokortuz tipologia ideal bat sortu nuen. Horrela beraz, tipologia hau ez da subjektuak sailkatzeko sortu, euskal identitatea *nork* eraikitzen duen erantzutea ez baita liburu honen ardatz nagusia.

Azkenik, argitu beharra dago baita ere sortutako tipo ideal hauen bidez ez ditudala barnebildu euskal identitatea Facebooken bidez eraikitzen duten praktika eta diskurtso sozial guztiak, momentu zein tresneria teoriko eta metodologiko jakin batekin aurkitutako konplexutasuna ulertzeko sailkapen posibleetatik beste bat besterik ez baita izan.

Ikus dezagun sortutako lau tipo idealetatik hiru sailkapenen zehaztasunak, atzerriko praktikak liburu honen zazpigarren puntuan jorratuko baitugu.

Euskal identitatearen eraikuntza banalak eta utilitaristak

Euskal identitatea Facebooken (bidez) modu banalean eraikitzen duten praktika eta diskurtso sozialen taldea osatu nuen lehenik eta behin. Hemen, batez ere, euskal identitatearen ulerpenera eta edukien parteka-

tzeta modu ironiko zein umoristiko batean egiten duten gazteak barnebildu nahi izan nituen.

Gainontzeko hiru taldeekin egin bezala, gazte mota hauekin kontaktatuz behaketa parte-hartzaile zein sakoneko elkarrizketetan oinarrituko ziren dinamikak martxan jarri nahi izan nituen. Ikerketan aurrera egin ahala eta, euskal identitatea modu honetan eraikitzen zuten hainbat Facebookeko talde aurkitu nituen arren, ez nituen 18-35 urteko tartearen baitan zeuden gazteak aurkitu. Beraz, tipo ideal honen bidez euskal identitatea eraikitzeko beste modu eta logika bat ezagutu nuen arren eta egungo gizartea ulertzeko eta azaltzeko beharrezkoa den klabe bat ematen digun arren, ezin izan nuen nahi bezain beste sakondu. Praktika eta diskurtso hauen atzean dauden subjektuak ezagutzearan, hain gazteak ez diren erabiltzaileak aurkitu izan nituen, bereziki, 35-45 urteen artean kokatzen diren pertsonak. Oierren ustez, euskal identitatea barre eginez eraikitzeko atrebentziarekin aritzen diren gaztetxoek Tuenti erabiltzen zuten, hori baita haientzat modu horretako praktikak burutzeko espaziorik egokiena: «*Tuenti da kotilleatzeko, banalagoa*» (Oier, 2011).

Bigarrenik, ikerketa honen bidez euskal identitatearen eraikuntza soziala Facebooken (bidez) modu instrumental edo utilitarista batean egiten duten gazteen praktika eta diskurtso sozialak identifikatu nituen: modu batean edo bestean, haien interes pertsonalak medio, euskal identitateari lotutako edukiak partekatu eta negoziatzen dituzten gazteak, hain zuzen ere. Konnotazio txarra izan dezakeen hitza da «utilitarista» edo «instrumentala». Ikerketa honetan, ordea, kontzeptua ez da ikuspegi moral batetik ulertu eta, horregatik, hau ez da balorazio moraletan oinarritutako proposamena. Are gehiago, nik neuk Facebook eta euskal identitatearen inguruko ikerketa bat burutzen ari nintzen heinean, euskal identitatea interes pertsonalengatik ere eraiki izan dut.

Egun, euskal identitatea balio ideologikoetatik haratago doan beste logika bat jarraituz eraiki daitekeela ikus daiteke, euskal identitatea interes pertsonalen arabera ere eraikitzen den identitatea baita. Modu honetan azaltzen du ikerketan parte hartu zuen gazte honek, batetik, Facebook sortzearen arrazoiak eta, bestetik, online sare sozial honen erabileraren aldaketa urteak aurrera egin ahala:

«Lagun batzuk nituen Facebook zutenak eta oso ideia jakinik gabe zer egin edo zer ez egin eta hasi nintzen bueno, lagun arteko zeozer bezala baina... ba bueno, gero hor kontua da, hor fase diferentek izan ditut, hor adibidez garai batean, hasi ziren elkarteen eskaintzak eta lagun batzuen eskaintzak lagun izateko eta ez dakit zer. Garai batean elkarteei-eta uko egiten nien, baina orain claro, nere kasua da

pixkat diferentea, bueno diferentea, ez dakit zelan esan: badago jende bat lagun eskaerak bidaltzen dizkidala idatzitako liburuengatik.

Hau da, hasiera batean Facebookeko perfila zen lagun arteko edo, baina egun badago jende asko ez dudana ezagutzen eta onartzen det lagun asko eskatzen didatela lagun izatea, ni ezagutzea, ba bueno... liburuengatik ezagutzen nauelako edo dena delakoa. Eta ordun claro, nere Facebookeko erabilera aldatu dela. Orain ya ez ditut jartzen... bueno lehen ere ez, baino kontu pertsonalak-eta ez ditut erabiltzen argazki pertsonalak eta holan ez ditut jartzen apenas. Baten bat izango det baina ni oso kontzientea naiz edozer idazten dudana Facebooken publikoa dela.»

(Beñat, 2011)

Gazte honek Facebook lagunaren arteko espazio gisa erabiltzen hasi zen, baina espazio horretan egonkortzen joan den heinean, hau ulertzeko eta erabiltzeko modua aldatu egin zitzaion bere bizi profesionala dela-eta. Bere bizi pertsonalaren argazkiak edo sentimenduak azaldu ordez, egoera berriaren jabe izanik eta Facebook zein (euskal) identitatearen eraikuntza erreflexibo bat eginaz, lan profesionalarekin lotutako edukiak partekatzen hasi zen. Berak azaltzen duen moduan:

«Eh... ordun Facebook nik entenditzen det eh... artikulu bat publikatzen dudanean ba igotzen det nire kontaktuak edo aukera izan dezaten ikusteko eta irakurtzeko edo komentatzeko incluso.»

(Beñat, 2011)

Modu honetan, Facebook bere interes pertsonalerako erabiltzen hasi zen; online sare sozial horretan bere euskarazko artikuluak edota postak publiko egitean, euskal argitaletxeen Facebooken lagun egitean edota euskal literatura zein zinemagintzaren inguruko iritziak ematean euskal identitatea modu utilitaristan eraikiz. Izan ere, bere hitzetan, Facebooken (bidez) bere ideiak eta euskal identitatea «*zabaltzeko eta jende gehiagori heltzeko behintzat baliagarri iruditzen zait*» (Beñat, 2011).

Gazte honen Facebooken erabilera eta euskal identitatea eraikitze-ko praktika eta diskurtso sozialek bide oparoa ireki zidaten arren, perfil honetako kide gehiago aurkitu ez nituelako ezin izan nuen ideia haue-
tan sakondu. Baina gazte honi esker, euskal identitatea logika banal, umoristiko edota ironiko baten arabera eraikitze-ko moduarekin gertatu bezala, egungo euskal gizartean euskal identitatea eraikitze-ko motiba-

zioen artean balio edota ikuspegi ideologikoaz gain, interes pertsonalak ere badaudela ezagutu nuen.

Euskal identitatearen eraikuntza militantek: «euskal identitatearen eraikuntza errazegia da eta kostatu behar du»



5. irudia

Ekintza politikoa Facebooken?

Beñaten helburu eta interes bera izan dute militante bezala izendatutako Aiorak eta Oierrek osatzen duten talde honetako kideek. Gazte hauek interes pertsonalari, ordea, interes kolektiboa gehitu diote. Perfil zehatz hau osatzen duten gazteek Facebooken (bidez) euskal identitatearen inguruan maila pertsonal zein kolektiboan (alderdi politiko edo gizarte mugimendu batena) duten ikuspegia eta diskurtsoa ahal bezain beste gorpuztu eta hedatu nahi dute. Euskal identitatea Facebook bidez eraikitzeko modu erreflexibo eta arrazional bat dugu aurrean. Oierren hitzetan, «*iruditzen zait sare sozial bakoitzak bere zentzua duela*» (Oier, 2011) eta, beraz Facebook, Tuenti ez bezala, jolasetik haratago doan online sare sozial gisa ulertuz, espazio horri bestelako erabilerak ematen dizkio:

«Lehen adibidez erabiltzen nituen Facebookek ematen zituen aukerak jokuak eta erabiltzeko, orain ya ez dut egiten eta bereziki ba denbora faltagatikan, ez daukat denbora holako jokuak egiteko.»

(Oier, 2011)

Joseba Zulaikak (1990) jolas eta jokoaren artean ezarritako ezberdintasunen arabera, Oierrek zein Aiorak Facebook ume jolas moduan ulertu beharrean, ondorioak dituen joko gisa ulertzen eta erabiltzen dute. Azken honen hitzetan, online sare sozial horretan berarentzat garantzitsuak diren edukiak hedatuz, Facebook bere lagunaren eta ezagunen formazio ideologikoa sustatzeko erabiltzen du:

«Eta normalean ze estekak partekatzen dituzu?»

Ba niri interesantea iruditzen zaizkiten gauzanak. Ez dakit nola esan, interesantea iruditzen zaizkitenak, txorradak ez ditut partekatzen. Gainontzeko jendeak irakurri beharko litzuzkeenak iruditzen zaizkiten gauzak.»

(Aiora, 2011)

Oierrek, espazio offline zein onlinearen arteko mugak gaindituz, Facebooken partekatutako eduki hauek kalean jarraitzeko hausnarketak ere badirela azaltzen du, norberaren formakuntza politikoa aurrera eramateko tresnak ere badirela azpimarratuz.

«Aurrekoan ere bideo berdinean Bilboko horretan ba esaten nuen “jo ba 8. minutuan dago kristongo erreflexiñua gazteriaren inguruko”, ez? Ba gero erreflexiño hori nerea egiten dot eta botatzen dot nirea ez dena, beste bati hartutakoa eta gero botatzen dudana gero kalean, ez? Orduan erabiltzen dut bereziki nik be bai formatzeko eta jendeari emateko aukera bat irakurtzeko edo entzuteko nik entzun eta irakurri dudana zer bait.»

(Oier, 2011)

Gazte hauek haien lagunaren formakuntza Facebooken partekatzen dituzten edukien bidez egiten dute. Formatzeko iturriak izateko asmoz, berez lagun eta ezagun ez dituzten hainbat pertsonaren Facebookeko lagun egiten dira. Oierrek azaldu bezala, «*Arnaldo Otegi, Oskar Matute... holako informazio bat eskainiko didaten pertsonak*» (Oier, 2011) egiten ditu lagun online sare sozial horretan. Aiorak, ordea, Facebook eta Twitter arteko alderaketa nagusia azpimarratuz (laguna eta jarraitzailearen arteko ezberdintasuna), pertsona zehatzen lagun egitea baino, interesgarri iruditzen zaizkion taldeen kide egitea nahiago du:

«Ni, a ver, naiz laguna “Etixerat” elkarte eta hola bai, elkarteak bai baina adibidez Otegiaren laguna ez naiz. Ez, eta gero Matute eta halako politikoen laguna ez naiz. Es que iruditzen zait hori Facebook dela laguna eta Twitterren jarraitzaile egin zaitezke eta ya está! O sea, beste pertsonak onartu behar zaitu hortarako. Elkarte batena bai baina pertsona konkretuena ezagutzen ez dutena ez.»

(Aiora, 2011)

Oierrek modu argi eta zuzenean azaldu bezala, praktika eta diskurtso hauen izaera militantea agerian geratzen da: «*nik azkenean Facebook erabiltzen dut nire militantziaren parte bezala*» (Oier, 2011). Hainbat euskal gaztek Facebook ekintza politikorako (modu tradizional zein instituzionalean ulertuta) erabiltzen duten espazio zein tresna ere badela esan daiteke; Oierren hitzetan: «*Facebook eta Twitter iruditzen zaizkit serioagoak, ekintza politikorako erabilgarriagoak*» (Oier, 2011).

ildo beretik, eta aurretiaz aipatutako tipo idealen mugen gainditzearen erakusgarri, «Atzerria» tipo idealaren baitan kokatutako Ostebik Madrildik Facebook «*zehazki, gai politikoetarako, ez dut beste ezertarako erabiltzen*» (Ostebi, 2011) duela azaltzen du. Izan ere, berak argitzen duen moduan, Madrilen bizi zenez, 2012ko hauteskunde kanpainen Facebook erabili zuen alderdi baten aldeko bozka eskatzeko: «*Hauteskundeetan erabili izan dut! (...) Hauteskunde kanpainen pila bat: makina bat gauza sartzen eta*» (Ostebi, 2011).

Zer partekatzen duen galdetuta, «*denetarik imajinatzen dut... jendearen artikulua, elkarrateratzeak, irudiak*» (Ostebi, 2011) erantzuten du. Bere alderdiak Facebookeko horman publikatzen zituen edukiezen gain, Ostebik berak bere praktika sozialen izaera arrazional zein erreflexiboa erakutsiz eta Facebooken arkitektura sistema barrutik moldatuz, hurrengoaren egiten zuela azaltzen du:

«Amaiur edo Bildukoak Facebookera igotzen dituzten halako gauzak. Nik egiten ohi dudana, edo argazkiak nire kabuz bilatu edo webetik deskargatzea da, igo eta lagun asko dituen jendea etiketatzea da. Ulertzen didazu?»

Argazki bat hartu, zu etiketatu eta zure lagun guztien horman agertzen da, orduan, Amaiuren argazki bat hartu eta 4.000 lagun dituen Floren Aioz etiketatzen badut 4.000 lagun horien horman agertzen da. “Ez dakit nor argazki honetan etiketatua izan da” agertzen da, orduan, noizbait egin dudana hauetariko zenbait lagun ditudalako, Oscar Matute, Floren Aioz, Juan Carlos Izagirre Donostiako alkatena dena, eh... ta bueno oraintxe bertan esan ezin dizkizudan beste hainbat gogoratzen ez naizelako.

Orduan, izan ere, laguntasun eskaera bidali nien ez nituelako, ez dakit "Bai Euskal Herriari" edo antzeko zerbait den makina bat lagun dituelako ere eta etiketatzeko eta mundu guztiaren horman agertu dadin. Ulertzen didazu? Azken finean nik nire Facebooketik egin dezakedana nire 200 lagunei mugatuta dago, baina modu honetan, beste jende baten ordenagailuan sartu zaitezke, beste jende baten horman, alegia.»

(Ostebi, 2011)

Aurretiaz aipatutako taktika kontzeptua agertzen da euskal identitatea eraikitzeke modu honen bidez. Ostebik propioa ez duen Facebookeko espazioa bere egiten du eta honen logika ezagutuz, online sare sozialen aukerak maneiatzen ditu euskal identitatea praktika militanten bidez eraikitzeke. Era berean, euskal identitatearen eraikuntza erlazonala azaltzen du gazte honek besteen ordenagailuan sartu eta beren profila moldatzeko aukera azalduz: «*beste jende baten ordenagailuan sartu zaitezke, beste jende baten horman, alegia*» esaten duenean, beste norbaiten euskal identitatearen eraikuntzan eragiteko aukera duela azpimarratzen ari baita.

Beste alde batetik, azpi-puntu honen izenburuan azaldu bezala, praktika eta diskurtso militante hauek dituzten gazteen ustez euskal identitatea eraikitzeke beste hainbat modu «errazegiak» dira. Aioraren hitzetan:

«Oso erraza da "euskalduna naiz eta Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dut" atsegin dut ematea eta gero kalean erdaraz egitea. Eta artikulua bat konpartitzeak suposatzen du artikulua irakurri duzula, interesantea iruditu zaizula eta konpartitu nahi duzula, diferentea iruditzen zait.

Eta askotan ere ekitaldiei ez diet ematen ez "bai" ez "ez"... hor geratzen da. Iruditzen zait gauza bat bai balio duena ekitaldia zabalatzeko baina gero ez da errealia agertzen den emaitza, 2024 esan dute joango direla. Ez da hola, ez dira juten 2024!»

(Aiora, 2011)

Beste modu batera esanda, gazte hauen ikuspegi militantetik euskal identitatearen eraikuntza, Facebooken ere, espazio offlinean beharrezkoa den esfortzu maila berarekin egin beharko litzateke. Elkarrizketan aurrera joan ahala esfortzu honen zergatiak azaltzen ditu Aiorak:

«Oso militantea da esan duzuna, kostatzearena ta hori...»

Bai! Es que iruditzen zait batez ere batek iruditzen zaidalako zentzua daukala eta besteak ez. Lelo bat sortzea eta atsegin dut ematea ez du ezer aportatzen, baina eduki bat aztertzea, eduki bat konpartitzea bai da. Igual jendeak ez du irakurriko baina jendeak ikustea zuri hori gustatu zaizula... artikulu konkretu bat da eta ez "Aiorari katu beltzak gustatzen zaizkio" hori erreza da.»

(Aiora, 2011)

Horrela beraz, azpi atal honen hasierako binetak irudikatzen duen moduan, gazte hauek eztabaida interesgarri bat jartzen dute mahai gainean: helburu politiko zehatz batzuk lortze aldera Facebookeko praktika politikoek izan dezaketen eraginkortasuna. Oierrek, «manifestazio birtual» baten berri izan zueneko eta honen inguruan zuen iritzia azaltzen du:

«Es que aurrekoan entzun nuena "Kukutza mani birtuala", o sea, botoia klikatzearekin ya manian zeunden, manifara joan beharrean eta oihukatu beharrean eta korrika egin beharrean, etxetik edo etxe-ko sofatikan ematen zeniola baietz eta hor manifan parte hartzen zenuela. Gero ya ez dakit ze gaitasun duen horrek aldaketarako, imajinatzen dut gaitasun txikia izango duela.»

(Oier, 2011)

Oierren ustez, online sare sozialen bidez burututako praktika politiko hauek *slacktivismoa* (Carr, Ellison, Lampe, Smock, Vitak eta Zube, 2011) deritzotena bultzatzen dezakete. Hitzak adierazten duen bezala, ekintzaileak eraginkortasun handia izango duen aktibismo mota dela pentsatu arren, ekintza horrek bere burua lasaitzeaz gain, ondorio gutxi izango dituen ekintza ahula da.

«Baina gero ere dugun arazoarekin, informazioaren arazoarekin herraminta potente bat da (Facebook): komunikabide tradizionalak irakurri eta ikusi egiten dituen pertsona batek pentsatuko du Kukutzan gertatu egin dena izan dala kale borroka bueltatu egin dela Bilbora eta erradikal batzuk egon direla kontenedoreak erretzen zipoioak botoak botatzen zituzten bitartean, ez? Ikusi izan dituenak kontra informazioak bidaltzen dituen informazioak badaki Kukutzan biolentoak nortzuk ziren eta zein zan defentsan zegoen jendea. Badaki nor zegoen leihotara tirokatzen, nor sartu dan taberna batetan in-

darrez eta nor ez dakit zer, ez? Eta hori bakarrik jakin dezake... es que hori da Facebooken eta sare sozialen indarrak handiena!»

(Oier, 2011)

Oierrek, modu honetan, Ion Andoni Del Amo, Jason Diaux eta Arkaitz Letamendiak (2012) landutako online sare sozialen garrantzia eta kontra-informazioa azpimarratzen du; izan ere, hauen arabera, eta zehazki Kukutza hustu zuten egunean, IKTek berebiziko garrantzia izan zuten gertatutakoa salatzen eta jendea mobilizatzen.

Beste alde batetik, Facebookek mundu mailan panoptiko digitalaren (boyd, 2002) ideia erabiltzaileen artean zabaltzen duen heinean, ikerketan parte hartu duten gazteen arabera ere, Euskal Herriko kasuan sentimendu hau indartzen doa. Horregatik Aiorak gauza oso pertsonalak ez publikatzea erabaki du: «*Nik normalean nire gauza pertsonalak-eta ez ditut jartzen, ez ditut argazkiak igotzen edo «ez dakit zer nago egiten» esaten edo... oso pertsonalak diren gauzak ez ditut jartzen» (Aiora, 2011). Horregatik, perspektiba militante batetik, berak egokitzen jotzen ez dituen edukiak ez ditu Facebook bidez publiko egiten.*

«Hombre! Jarrera militante batetik gauza batzuk esaten ditut baina beste batzuk ez. Ez naiz pasatzen, baina es que niretzat badira nire ustez oso bideo konprometituak jartzen dituenak edo oso konprezio maila handitara heltzen direnak. Muga oso estremoetara ez ailegatzeko saiatzen naiz, más que nada por lo que pueda pasar... O sea, kalean ezezagun bati esango ez niokena ez dut esaten Facebooken, bueno saiatzen naiz, batzuetan irristatzen naiz-eta »

(Aiora, 2011)

Ildo beretik, Ostebik, euskal gazteek, eta bereziki praktika zein diskurtso militanteak dituzten gazteek, hainbat ideia publiko ez egitearen arazoia modu zuzenean ematen du: poliziaren beldur direlako. Hamarkadatan zehar egondako errepresio politikoaren ondorioak ikus daitezke gazte hauen Facebookeko erabileretan. Mundu offlineak onlinean, indar instituzionalak praktika sozialean eta *Haiek Gu*-aren eraikuntzan duten eragina (kasu honetan estatu espainolak euskal identitatearen eraikuntza sozialean) agerian uzten du honako testigantzan:

«Laguntasun eskaria bidali zizkidaten pare bat pertsonak, kriterio asko gabe talde batean ikusiko ninduten eta (lagun) izateko bidali zi-

daten. Bati uste dut baiezkoa eman niola baina gehiengoari ezezkoa esan nion, niri ez dit zure laguna izatea interesatzen, “borroka” izan arren zure laguna ez dut izan nahi. Ulertzen nauzu? Nik zer dakit, agian polizia zara, nik zer dakit!»

(*Ostebi, 2011*)

«*Nik zer dakit!*» azken esaldi horrek argi erakusten du panoptiko digitalaren sentrazioak dituen ondorioak, izan ere, euskal gazteak haien sentrazioak errealak diren ez bereiztera heltzen dira eta ez dute behatuak diren ala ez frogatzeko aukerarik.

6. Euskal komunitatea online sare sozialen garaian: totem-a eraisten

«Home. Let me come Home.
Home is wherever I'm with you.
Ahh, Home. Yes, I am Home.
Home is when I'm alone with you»

(*Edward Sharpe eta The Magnetic Zeros, Home,*
http://www.youtube.com/watch?v=DHEOF_rcND8)

Euskal identitatea eraikitzeko modu anitzek gaur egungo komunitate eredia zer nolakoa den kuestionatzera eraman ninduen. Euskal identitatea soziologikoki ezin bada definitu, euskal gizarteak euskal identitatea definitu baino jakintzat eman eta eraikitzen badu, zeintzuk dira gizarte-harreman anitz hauek sortzen duten taldetasun eredia? Euskal identitate-erreferente aniztasuna dagoen garai honetan, zein da euskal komunitatearen forma eta egituratzeko modua? Eta, gainera, aurrez aurrekoak ez diren harremanak ahalbidetzen dituen Internetek, zer nolako eragina izan du euskal gizartearen kohesioan?

Nahiak atzerrian zituen sentipenak deskribatzeko zailtasunak zirela medio, zita moduan aurkeztutako esteka bidali zidan Facebooketik. Edward Sharpe eta The Magnetic Zerosen kantak azaltzen duen moduan «*etxea zurekin nagoen edozein leku da, etxea zurekin bakarrik egotea da*». Beraz, gazteek Facebooken (bidez) dituzten harreman sozialek habitat bat sortzen duten heinean hau etxe moduan uler daiteke. Azter dezagun taldea, talde-harremanak eta taldekideak Internet garaian.

Komunitatea eta kolektibitateak online sare sozialetan: elkar ezagutzen ez diren taldekideak

Komunitatea eta Kolektibitateak...

Komunitate sentimendu sendoa zuen euskal gizarte bat aurkitu zuten aurreko hamarkadetan euskal identitatea eta komunitatea aztergai zuten teorilari batzuek. Ander Gurruchagak (1990) dosel sakratu baten inguruan antolatzen zen gizarte gisa irudikatu zuen euskal komunitate hura: gizarte modernoetako komunitateen eredia jarraituz, totem bakar baten inguruan antolatzen zen euskal gizartea, alegia. Talde barneko *Gu*-a eta talde kanpoko komunitateak (*Haiek*) modu argian bereizten ziren garaiko euskal gizartean. Era berean, batez ere kanpotik planteatutako euskal identitatearen inguruko galdera plano sozial zein soziologiko batetik garaian garaiko euskal identitate-erreferente jakin bat izatearekin lotzen zenez, erantzun bat eta bakarra zuen: euskaraduna izan edota Euskal Herrian jai, bizi edo lan egitearen bidez erantzuten baitzen *zer da euskal identitatea*.

Hori dela eta, erantzun sozial anitz hauetan erreparatuz, Joxe Azurmendik (1992) eta beste autore batzuek Euskal Herria herri gisa totem baten inguruan antolatu beharrean, erreferente ugariaren baitan oinarritutako taldetasun eredia identifikatu zuten. Komunitate beraren baitako kolektibo bateko eta besteko kide eginez, Euskal Herriaren komunitate ideia eraikitzen zela azaldu zuten. Gaur egungo gizarte Postmodernoen eredia jarraituz, xxi. mendeko euskal gizartea aniztasun horretan oinarritzen dela deritzot. Izan ere, azken hamarkadetan plano sozialak eta kulturalak duten nagusitasunagatik euskal identitate-erreferenteak biderkatu egin dira, eta baita *Gu*-aren eraikuntza baldintzatzen duten *Haiek*-en kanpoko eragin kulturalak ere —aipatu bezala, Facebooken gazteek negoziatzen dituzten erreferenteak nagusiki anglosaxoiak baitira. Era berean, totemaren sakralitatea apurtuz sinboloak manipulatzeko, kritikatzeko eta hauetaz barre egiteko aukera dago egun.

Ondorioz, atal teorikoan mahai ganean jarritako Michel Maffesoliren (1990) *tribuen aroaren* proposamenaren ildotik, ikerketan zehar egindako behaketa parte-hartzaileari eta gazteen testigantzei esker, euskal gizartearen eredu askotarikoa finkatu dela esan dezaket. Kolektibitate txikietan euskal identitate anitz negoziatzen diren gizarte-eredu baten aurrean gaude. Egungo euskal gizartean euskararen, kirol taldeen edota alderdien arabera antolatzen diren eta euskal identitatea bizi eta eraikitzen duten kolektibitate ugari daude.

Horrela, *zer da euskal identitatea* ikerketa-galdera soziologikoki erantzun ezina eta sozialki erantzunda dagoela berretsi daiteke. Aniztasunaren baitan, kolektibitate bakoitzeko euskal identitate-erreferente

bakarrak galdera hori erantzuten bazuen ere, egun, adskripzio aniztasunak euskal identitatea *zelan eraikitzen da* aztertzeraz bideratzen gaitu: euskal identitatea modu batean *eta* bestean sozialki definitzean eta komunitatearen kolektibitate bateko *eta* besteko kide izatean, euskal identitatearen esentzia antzuki bilatu beharrean (soziologikoki definitze baina), honen eraikuntza mekanismoak aztertu behar ditugu. Ikuspegi soziologiko integratzaile *eta* ez baztertzaile batetatik, euskal herritarra, euskaraduna *eta* Euskal Herrian jaio *eta* bizi *eta* lan egiten duen biztanlea izan daitekeela errespetatu beharra dago.

Euskal Herria, beraz, komunitate bakarraren osotasuna baino, kolektibo ugarian zatituta dagoen gizartea bezala irudika dezakegu, izan ere, ikerketan zehar komunitate berean euskal identitate zehatz bat ardatz duten kolektibitate txikiagoak daude. Horrela, komunitate orokor honek euskal identitate-erreferente jakin komun bat izan beharrean, originalik ez duen kopia bat *eta* inoiz betetzen lortuko ez den identitate nukleo bat du ardatz (Butler 2002, 2007): inoiz izan ez den *eta* izango ez denaren inguruko irudikapen kolektibo bat konpartitzen dute Euskal Herriko biztanleek, hain zuzen ere.

Beste era batera esanda, biztanleek haien gustuko (berriro ere habitus kontzeptuak berebiziko garrantzia dauka) edota hurbileko kolektibitate txikiagoen euskal identitate-erreferenteak konpartituz komunitate osoaren kide egiten dira. Komunitate honen baitan, irudikapen kolektibo bera konpartitzen dutelako, beste euskal identitate-erreferente batzuk konpartitzen dituzten kideak *eta* kolektiboak haien taldearen parte gisa onartzen dituzte: euskara ardatz duen kide batek, euskal kultura ardatz duen beste bat euskal komunitateko kide gisa ulertzen du, adibidez.

Are gehiago, adskripzio aniztasunak erakusten duen moduan, aldi berean bi kolektibo edo gehiagoko kide izateko aukera du biztanleak *eta*, modu honetan, beste kide batzuk irudikapen kolektibo beraren baitan ulertzeko baliabide gehiago ditu. Euskal identitate-erreferenteak komunitate baten baitan egoteaz gain, gizarte zein erakunde praktika *eta* diskurtsoen bidez etengabeko borrokan *eta* negoziazioan daude. Beraz, euskal identitate-erreferente *eta* kolektiboen arteko negoziazioaren bidez eraikitzen dira gaur egun euskal komunitatea *eta* euskal identitatea. Hori dela *eta*, dimentsio sozial edota kulturalako euskal identitate-erreferenteak berebiziko garrantzia dutela esan daiteke.

... *Facebooken*

Komunitatearen inguruko nozioa online sare sozialetara, *eta* bereziki Facebookera, mugatzean gai zabal *eta* konplexu hori, batetik, tal-

de pribatuetan eta, bestetik, «fan page»-etan zentratzea erabaki nuen. Lehenengoa epe motz baterako atzerrian dauden gazteek («Erasmus» taldea) sortutako talde motaren kasua da: taldean sartzeko onartua izan behar du erabiltzaileak eta, beraz, izaera pribatua du. Bestetik, alde bakarreko eta izaera publikoa duten «fan page»ak daude: erabiltzailea, kasu honetan, «atsegin dut» botoia sakatzearekin gai jakin baten inguruan antolatzen den taldearen kide bilakatzen da.

Facebooken aurki daitekeen komunitate eredu auzitasunarekin lotutakoa da. «Atsegin dut» botoia klikatuz talde batean sartzeko eta *Gu* baten parte izateak, ez du beste talde baten kide izateko aukera galarazten. Totemak ez bezala, komunitate-eredu honek ez du euskal identitate-erreferente ugartasuna ekiditen ez eta kolektiboaren artean eskusioa sortzen. Taldearen mota honek, talde hau *edo* bestearen kide izan beharrean, Facebookeko kirol talde hau *eta* beste euskal musika talde horren kide izatea ahalbidetzen du: baztertzaila izan beharrean, integratzailea da.

Talde barneko harreman motei dagokionez, bizitza offlinearekin alderatuz Facebookeko kolektibo hauek izaera lausoagoa dute: bai hauetan sartzeko eta hauetatik ateratzeko egin beharreko ekintzagatik (klik egitea), bai taldean mantentzeko ez dagoelako inongo jarduera berezirik egin beharrik (talde horretatik berriz ere ez agertu arren eta taldekideekin harremana jarraitu ez arren horren kide izateko aukera baitago) eta bai taldearekiko eta taldekideekiko izan beharreko konpromiso maila baxuagoa delako.

Horrela beraz, kolektiboko kide izateko igaro-errito bakarra botoi bat sakatzea da: gazteak «atsegin dut» botoian klik egitearekin taldean sartu eta ateratzeko aukera erraza du. Horregatik, Facebookeko kolektibo eredu hauek izaeraz anitzak izateaz gain, denboran zehar ez direla iraunkorrrak azpimarratu beharra dago. Gaur egun, euskal identitatearen definizioa eta eraikuntza aldatzen den heinean, kolektibitate zein komunitate ereduak moldatu egin direla esan daiteke: taldean sartu, atera, edota bertan jarraitzeko konpromisorik eta betebeharririk apenas dagoenez, gaztea talde jakin baten kidea dela ahaztera hel daiteke. Modu honetan azaltzen du Oierrek taldeetatik ateratzeko aukera erraza eta taldekide izatea ahaztearen sentsazioa.

«Noizean behin gainera begiratzen dut ea ze talderen kide egin naizen. (...) Ze normalean taldeak sortzen dira baina sortzen dituen pertsonak gero ez ditu ezabatzen, orduan hemetik eta lau hilabetetara izan naiteke "Bateragunea auzia stop"ren kide edo izan naiteke "Kukutzatik ez dira pasako"ren kide. Non Kukutzatik pasatu diran, bota duten eta ez dakit zer. Orduan noizean behin begiratzen dut ze talderen kide egin naizen eta ba hori ya zaharkituta dauden taldeetatik ateratzen naiz ze ya ez du zentzu askorik hor mantentzea.»

(Oier, 2011)

Era berean, Ostebik horrela kontatzen du talde barnean duen aktibitatea:

«Eta zerbait egin behar duzu taldekide izateko behin horren barruan zaudelarik?»

Zer egin baina?

Normalean talde baten kide zarenean ekintzak egiten dituzu, ez dakit talde horrek ere egiten dituen.

Ez.

O sea, taldean sartu eta beste barik zaude.

Noski! (...) Egiten duzun guztia informazioa jasotzea da, helburu nagusia informazioa da.»

(Ostebi, 2011)

CEICek (2005) lonjak aztergai izandako ikerketa batean erakusten zuen moduan, gazteek espazio horietan egiten zuten gauza bakarra egotea zen eta *egote* huts hori *egite* bat zen. Facebooken ere gazteek antzeko jarrera dute, baina, *egote-egiteaz* gain, informazioa jasotzen dute eta esfortzu gutxiko praktika den arren, klik egiten dute eta horrekin taldeen kide egiten dira edota identitatea eraikitzen dute.

Praktika honek, ordea, ez du harreman berezi bat sortzen taldeki-deen artean. Oierrek esan bezala, «*igual badituz lagunak ni bezala «Bateragune auzia stop» eman diotenak baina ez daukat erlaziorik haiekin baietz emateagatik»* (Oier, 2011). Are gehiago, Ostebik onartu bezala, «*baina nik ez dituz ezagutzen, ez dakit nortzuk diren»* (Ostebi, 2011). Komunitatea orain arte ulertzeko eta hau definitzeko eskemak erabat iraultzen dira elkar ezagutzen ez duten kideen Facebookeko talde-eredu honekin. Kolektibo mota ezberdina, lausoa, denboran zehar iraunkorra ez dena eta zenbait kasutan taldekideak euren artean elkar ezagutzen ez duten talde ereduak da. Orain, komunitatea kolektibo anitzetan zatikatuta dagoela ikusita eta gazteen harreman motak ezagututa, azter dezagun ikerketa honetara bultzatu gintuen gazte koadrilak kasua.

Gazte koadrilak Facebooken

Koadrilak aurreko hamarkadetan, Eugenia Ramirezek (1991) aztertu bezala, gizarte Modernoetan eta euskal gizartean nagusi zen talde eredu jarraitzen zuen: erritu zehatzak zituzten taldekideek eta talde-adskrip-

zio aukera bakarra zegoen: koadrila batekoa izateak beste batzuetako kide izatea galarazten zuen. Bilboko alde zaharraren, euskal identitatearen eta gazte koadrilen inguruan egindako ikerketak (Díaz, 2009), ordea, xxi. mendean hasieran koadrila eredu hau aldatzen zihoala demostratu zuen. Gazteak koadrila bat baino gehiagoko kide izateko aukera du (honetan sartzeko eta ateratzeko aukera gehiago ditu) eta talde honekiko duen adskripzio mota baloreengatik izateaz gain, aspektu instrumental batengatik ere bada (plannaren arabera ere koadrila bati edo besteari lotzen baitzaizkio).

Koadrilen taldetasun eredu honek orain gutxi deskribatutako Facebookeko taldeen kolektibitate eta komunitatearekin lotura handia duela esan daiteke. Izan ere, koadrila sentimendu orokor baten baitan (komunitatea), interes batzuen arabera erreflexiboki gazte bat koadrila bati edo besteari (kolektibitateak) lotzen zaio adskripzio anitz eginaz: denboran zehar iraunkorra ez den koadrila eredu anitz honek taldetasun mota lausoago bat erakusten du. Sakoneko elkarrizketa batean Beñatek azaldu zuen moduan, lehenik eta behin, koadrilako laguntasun eredu klasikoak eta Facebookekoak talka egiten dutela ezagutu nuen: bere Facebookeko lagunak lankideak ere badira eta, horregatik, jarraian azaltzen duen moduko tentsioak sortzen dira.

«Gogoratzen dut baten diskusio batean nere koadrilako bat hasi zitzaidala gauzak esaten koadrilakoak eta moztu egin nion ze Facebooken bidez gauza hauek ez, ez, koadrilako istorioak dira. Baina ulertzen ez dena, nire lagun horrek bere Facebookeko kontaktuak lagunak dira, baina claro nere Facebookeko kontaktuak dira nire betiko lagunak baina baita ere kultur mundutik ezagutzen nautenak eta horiek ez. Nik uste det nire lagun batzuen Facebookeko erabilera oso diferentea dela nik egiten dudanarekin konparatuz.»

(Beñat, 2011)

Orain arte offline munduan izandako koadrilako lagunak Facebookeko online mundura eramatean logika eta harreman ezberdinak uztartzen dira zenbait tentsio sortuz. Horregatik, Beñatek Facebooken harreman gutxi du bere koadrilako lagunekin eta bestelako Facebook lagunekin «komunitate paralelo bat sortuz» harreman sendoago bat du.

«Nik Facebooken dudana hartu emana, o sea, nere koadrila koadrilakoarekin oso gutxi da. Ordun bai iruditzen zait halako komunitate paralelo bat bezala neurri batean, gainera egiten dudana erabileragatik nahiko publikoa dena eta ordun nolabait esparru diferenteetako jendea dago nire Facebookeko kontuan, ez?»

(Beñat, 2011)

Komunitate paralelo horretan, ordea, gazte honek ez du soilik koadrilakoekin harremana galtzen. Erving Goffmanen (1971, 2006) dramaturgia gogoratuz, badaude zenbait gauza Beñatek Facebooken esan ez eta koadrilan soilik geratzen direnak: «*nolabait nire koadrilan esaten ditudanak ez ditut Facebooken esaten inolaz!*» (Beñat, 2011). Horrela, «*komunitate paraleloan*» koadrilako lagunekin harreman paraleloa sortzen du, zenbaitetan harreman estuagoa sortuz eta beste zenbaitetan lausoagoa.

Identitatearen eraikuntzan, beraz, norberaren praktiketarik haratago, norekin eraikitzen den berebiziko garrantzia dauka. Hori dela eta, euskal komunitatea eraikitzen duten agenteak aztertzeko beharra dago: *Gu*-aren eraikuntzan beste agente batzuk (*Haiek*) parte hartzen duten jakiteko eta, hala bada, zer nolako eragin maila duten identifikatzeko.

Euskal komunitatea eraikitzen duten agenteak

«Será que la necesidad parió conmigo,
la necesidad de lo que hoy resulta necio:
la necesidad de asumir al enemigo,
la necesidad de vivir sin tener precio.»

(*Silvio Rodriguez*, El necio,
<http://www.youtube.com/watch?v=bGQWU4UsUeA>)

«Noiz galtzen da identitatea edo posible al da berri bat sortzea? (...) Pentsatzen dut gure identitatea ez dela guk egiten dugun hori bakarrik. Guk gure ingurukoaren eta gertuko jendearen identitatean dugu eragina, eta horiek guztiek osatzen dute aldi berean gure identitatea.»

(*Garazi Goia*, Txartel bat (des)herrira)

Eragin estrukturala eta instituzionala azpimarratu ditut gazteek Facebooken (bidez) egunerokotasunean egiten duten euskal identitatearen eraikuntza soziala aztertzea helburu duen liburu honetan zehar. Euskal identitatea ikerketa-objektu gisa hautatutako momentutik, ikerketa-galdera honi aurreko hamarkadetan eman zaizkion definizioak mahai gainean jartzean edota ikerlari gisa proposatutako definizio analitikoan bertan, euskal identitatearen eraikuntzan parte hartzen duten hainbat agente agerian utzi ditut.

«Agentea»ren ideia bidez talde batek bere identitatea eraikitzeko okupatzen dituen posizio ezberdinez ari naiz. Hau da, identitate hori eraiki-

tzeko zenbait kasutan erreferentziatzeko agentea taldea bera (*Gu*) izan daitekeen arren, beste kasu batzuetan kanpo talde bat edo batzuk izan daitezke (*Haiek*). Era berean, talde barnea (*Gu*) edo kanpoa (*Haiek*) definitzeko, arreta harreman sozialetan eta ez pertsonetan jarri dudala azpimarratu beharra dago: nazio-identitatea eraikitzen duten praktika, diskurtso eta erreferenteen azterketa soziologikoa jarraituz, komunitatea osatzen duten harreman sozialak aztertu dira eta ez subjektuak. Talde baten kidea *nor* den ezagutu eta definitu baino, taldea bera zer praktika bidez eraikitzen den (*zelan*) ulertu nahi dudana heinean, *Gu*-a talde barneko logika, harreman eta identitateek eta *Haiek*-a talde kanpoko logika, harreman eta identitate-erreferenteek osatzen dituzten agente gisa landuko ditut.

Identitate kolektiboan eraikitzeko bi agente klasiko identifikatu dira orain arte: talde barneko kideek identitate-erreferenteak negoziatuz osatzen duten *Gu–Gu* agentea, eta taldeek inguruko taldeengandik bereiztean komunitatea osatzeko duten modua, *Gu–Haiek*. Bi agente hauez gain, ikerketan parte hartu duten gazteen testigantzei esker, taldeak bere identitatea eraikitzeko okupatzen duen beste posizio bat identifikatzeko aukera izan dut. Egindako landa lanean zehar euskal identitatearen kasuan *Haiek–Gu*-aren eraikuntza baldintzatzen dutela ezagutu dut: gazteek, euskal identitatea kanpoko beste kolektibo batzuek eraiki eta definitzen dutela azaldu baitzuten.

GU–GU: talde barneko harremanen bidez euskal identitatea eraikitzen

Identitate kolektiboen eredu klasikoari jarraituz, gazteek Facebooken, batez ere, talde barnean dituzten harremanen bidez eraikitzen dute euskal identitatea. Euskal identitatea dimentsio sozialeko erreferenteen bidez eraikitzen dute: egunerokotasuneko praktika eta diskurtso sozialen bidez, identitate-erreferenteak negoziatzen dituzte Facebookeko testu, argazki zein bideoen bidez.

Euskal identitatearen eraikuntzan, dimentsio politikoaren gainetik aspektu sozialak duen garrantzia azaltzeaz gain, ikerketan zehar *Gu*-a agente gisa identifikatu eta kasu zehatz batean ikusi ahal izan nuen: harreman sozial ezberdinek eta identitate-erreferente partekatuek kolektibo anitz barnebiltzen dituen komunitate bat osatzen duten *Gu*-a, hain zuzen ere. Izan ere, Facebooken bidez euskal identitate-erreferente anitz partekatu eta negoziatzen dituzte gazteek eta, beraz, komunitate beraren baitan kolektibo ugari sortzen dituzte.

Horrela, talde edota *Gu* bakar, koherente eta uniforme batetik, euskal identitate-erreferente ezberdinak eta ugariak partekatzen dituzten kolektibo anitz barnebiltzen dituen eredu batera igaro da euskal komu-

nitatea. Ildo beretik, komunitate baten baitan kolektibitate ezberdinak identifikatu dira eta baita komunitatearen baitan berau ulertzeko eta eraikitzeko talde eta harreman ezberdinak mahai gainean jarri. Modu honetan, *Gu-Gu* agente honen baitan, herri bereko kide direnen artean gauzatzen diren sentimendu eta eraikuntza modu askotarikoak azpimarratu behar dira; liburuan zehar erakutsi bezala, euskal identitatea sozialki ulertzeko eta definitzeko modu ezberdinek (*Gu-Gu* harreman sozial askotarikoek), komunitate beraren baitan erreferente ezberdinak ardatz dituzten kolektiboak sortzen dituztelako.

GU-HAIEK: kanpoko taldeekiko oposizioaren bidez euskal identitatea eraikitzen

Ikerketan parte hartu zuten kideek Facebookek ahalbidetzen dituen harreman hipertestualen bidez beste nazio-identitateetatik bereiztuz ere euskal identitatea eraikitzen dutela erakutsi zuten. Identitate kolektiboaren eraikuntza modu negatibo honek, *Gu-Haiek*-etatik banatzen dituen identitate-erreferente, praktika eta diskurtso sozialak mahai gainean jartzen ditu.

Horrela, dimentsio politiko batetik aurreko hamarkadetan hainbat eragilek «*Hau ez da Espainia ez Frantzia. Hau Euskal Herria da*» lelopean egin bezalaxe, egun, euskal gazteek egunerokotasuneko praktika eta diskurtso sozialen bidez euskal identitatea beste nazio-identitateetatik bereiztuz eraikitzen dute Facebooken ere. Modu honetan, euskal identitatea frantziar zein espainiar identitateetatik banatuz (*Gu-Haiek*) eraikitzen da online sare sozialetan: euskal identitatea osatzen duten identitate-erreferenteak modu positiboan indartu beharrean, taldea kanpoko identitate-erreferenteekiko oposizio baten bidez eraikitzen da.



6. irudia

Bai Euskal Herriaren kartela

Eraikuntza modu honek, beraz, kanpoko taldeak ditu ardatz. Hori dela eta, kanpotik egindako kuestionamendu bati erantzutea du helburu, kanpoko talde horren logikatik bereizten saiatzean, kanpoko taldeen edo *Haiek*-en logika jarraitzen du. Talde barneko identitatea eraikitzen da, euskal identitatea eraikitzen da, baina kanpotik ezarritako ardatz eta gai batzuen arabera. Ondorioz, euskal identitatea talde barneko eraikitzeak (*Gu-Gu*), kanpoko taldeen agerpena, eragina eta hauen barneratzea dela medio, talde barneko kideen harremanek eta logikek indarra galtzen dutela esan daiteke. Nazio-identitate guztiek inguruan eragiten dieten beste nazio-identitate batzuk dituzten arren, Euskal Herria estaturik gabeko herria izatean, egoera honek indarra hartzen du. Estatuaren babes instituzionalik gabe, euskal identitatearen kasuan, talde kanpotik egindako kuestionamenduei erantzuteko behar handiagoa dago eta talde kanpotik ezarritako logika barneratzeko aukera gehiago daude estatu egonkortua duten espainiar zein frantziar kasuetan baino.

HAIK-GU: kanpoko taldeek euskal identitatearen eraikuntza baldintzatu eta eraikitzen dutenean

Plano sistemiko batetik aztertuta, historian zehar espainiar eta frantziar estatuak euskal identitatearen eraikuntza baldintzatu dute: instituzionaliki euskal identitatea eraikitzeke jarritako mugengatik, nazio-identitate honen eraketan sozialki eragina eta erabakia izan duten estatuak dira hauek. Aurretiaz azaldu bezala, hiru administrazio ezberdinen baitan dagoen herria da Euskal Herria eta, beraz, urteetan zehar kanpotik jasotako eraginek logika ezberdinak inposatu dituzte: euskararen legeen kasua, zeinetan hiru administrazio ezberdinek erabakiak hartzen dituzten, bereziki argigarria da. Hori dela eta, kanpoko taldeek barneko taldearen erabakietan eragiteko eta, zenbait kasutan, zuzenean erabakitzeke duten aukeragatik *Haiek-Gu*-aren nazio-identitatea baldintzatu dutela esan beharra dago.

Plano instituzionaletik akademiko eta teorikora igaroz, euskal identitatearen inguruko ikerketa-galdera bera talde kanpotik egindako galdera izan dela esan daiteke. Aurretiaz landu bezala, aurreko teorilariek euskal identitatea *zelan eraikitzen* den aztertu beharrean, kanpotik ezarritako *zer da* euskal identitatea ikerketa-galdera erantzutera behartuta egon dira. Hau erantzun ezina izanik, talde barneko harreman eta logika propioak ahaztuz, kanpotik ezarritako logika jarraitu dute. Horregatik, kanpoko taldeek talde barnearen logikan eragina dute. Ondorioz, kanpoko talde batzuek azken urteetan euskal identitatearen inguruan ikerketa-galdera ardatza izan den *zer da* euskal identitatea ezarri duten

heinean, *Haiek-Gu*-aren eraikuntza baldintzatu eta kanpoko taldeak talde barnearen erreferentzia izatera pasatu direla pentsa daiteke.

Horrela beraz, taldeko identitatea kideen harremanen (*Gu-Gu*) eta kanpoko taldeekiko oposizioaren bidez (*Gu-Haiek*) eraikitzeaz gain, kanpoko taldeek talde barneko identitate eraikuntza baldintzatu eta zenbait kasutan ardatz bilakatzen dira. Kanpoko eraginak eta Euskal Herria barrenean erabakiak hartzeko ezintasunak, XXI. mende hasieran ere beharrezkoa den erakunde bat gogorarazten digu.

*Estatuaren indarra eta eragina XXI. mende hasieran:
online sare sozialen jostuna?*

Gazteek euskal identitate-erreferente anitz maneiatzen dituzte Facebooken testu, argazki, bideo edota talde atsegiteen bidez. Hori dela eta, taldea barneko erreferenteen bidez eraikitzen den heinean, *Gu-Gu* agentea identifikatu eta azaldu da. Baina, gazte hauek Interneten aurkitzen dituzten eta beste herri batzuetako Facebookeko lagunek partekatzen dituzten kanpo nazio-identitate-erreferenteen bidez (ingelesak eta ipar amerikar erreferenteak bereziki), hauek(in) euskal identitatea ere eraikitzen dutela esateko moduan gaude orain. Beraz, talde barneko kideek zenbait kasutan talde kanpoko erreferenteak dituzte ardatz: *Haiek*-en sinboloen bidez *Gu*-a (euskal identitatea) eraikitzen da eta *Haiek-Gu*-a (kanpoko taldeek barneko taldea) baldintzatzen eta eraikitzen dute.

Kanpo eragin estruktural eta kultural honen aurrean, euskal identitatearen erreferenteak babesten dituen sare instituzional bat ezean, Facebooken (bidez) egiten den euskal identitatearen eraikuntza soziala estatuaren sostengua duten beste nazio-identitateen erreferente kulturalen eraginaren pean gauzaten dela azpimarratu behar da. Euskal gazteek Interneten dauden ipar amerikar, ingeles edota frantziar zein espainol identitate-erreferenteak maneiatzen dituzte: besteak beste, Hamaika Telebistaren inguruko ikerketa batean ondorioztatu bezala (Anduaga eta Díaz, 2014), telebistan euskal saio jakin batzuk edota euskarazko fikziorik ia ez dagoenez, euskal gazteek ipar amerikar erreferente hauek kontsumitu eta Facebooken partekatzen dituzte.

Hausnarketa honen ildotik, bi ideia nagusi ondoriozta daitezke: batetik, euskal produkzio kulturala geroz eta oparoagoa izan arren, erakunde espainolak eta frantsesak erreferente hauek oztopatzen saiatzen direla eta, bestetik, Interneten kasuan ere euskal estatu bat ez izateak eta instituzionalki bi estatu egonkorturen menpe egoteak, euskal identitatearen eraikuntza onlinean eragin zuzena duela. Bigarren ideia honetan sakonduz, euskal gazteek Internet bidezko egunerokotasuneko

harremanetan euskal identitatea eraikitzen duten arren (*Gu-Gu* agentea deritzoguna), *Haiek-Gu*-a edota espainiar eta frantziar identitateek euskal identitatea eraikitzen dutela ere ikusi dugu. Àlvar Perisek azpimarratzen duen moduan, «*estatu nazioek gaur egun ere teknologia berrietan askok nahiko lukeen baino eragin handiagoa dute*» (2010: 229). Autoreak, garrantzi berezia ematen dio estatuak erabiltzen duten bi digituen bukaerei (.es edo .fr), hauek, estatu-nazioaren tresna sinboliko bilakatzeko direla iradokiz: bukaera horiek dituzten helbideek estatu bati erreferentzia eginez nazio-identitatea eraikitzen dute, euskal identitatearen kasuan euskal estatu bat sortu ezean ezinezkoa den aukera.

Beraz, online munduan euskal identitatea eraikitzen duten harreman sozialak ere estatu espainiol zein frantsesaren eragina duten emaitza gisa uler daitezke. Batetik, aurreko puntuan azaldu bezala, eragin sozio-historiko-estruktural offline desberdinek baldintzatzen dituztelako online munduan aztertutako identitate praktika sozial hauek. Bestetik, Facebooken (bidez) eraikitzen den euskal identitateak okupatzen duen espazio online horretan ere estatuak eragin zuzena dutelako. Horregatik, *Gu*-aren (euskal identitatearen) harreman sozialetan *Haiek* (kanpoko nazio-identitateak) plano instituzional batetik duten baldintzatze eraginagatik, *Haiek-Gu* agentea identifikatu da. Ondorioz, *Haiek-Gu*-a (kanpoko nazio-identitateak, euskal identitatea) barnetik sozialki zein instituzionalki eraikitzen dutela esan daiteke: euskal identitatearen eta komunitatearen «gutasun»-a eraikitzen duten praktikak Interneten eta online sare sozialetan ere kanpo logika eta *beste* identitate kolektiboaren eragin batzuek baldintzatzen dituzte.

Manuel Castellsek esan bezala, «*komunikazio sareek boterea oinarrizko den esanahien eraikuntza prozesatzen duten bitartean, estatuak, gainontzeko botere sareen funtzionamendu egoki jakin bat osatzen du*» (2012:25). Definizio honen arabera beraz (sistema ekonomiko, kultural eta sozial kapitalista kontzeptua gehitu beharra dagoela uste dudana arren), estatuak sareen jostun gisa ere uler daitezke: harreman sozialak eta nazio-identitate eraikuntzak gauzatuko diren Interneteko sareen jostunak, alegia. Honako ideia helbideen bukaerak duten izaera sinbolikoaren ahalmenaren ideiarekin uztartuz, estatuak ordezkatzeko duten bi digituen bukaera hauen bidez nazio-identitatearen eraikuntzaren sare bat osatzen dela esan daiteke. Hori dela eta, Euskal Herriak herri gisa babestuko duen estatu bat gabe, euskal identitatea eraikitzeko ezintasun argia du eta, noski, *Haiek-Gu*-a instituzionalki eraikitzen jarraitzeko arriskua ere.

Euskal identitatearen eraikuntza sozialean frantziar zein espainiar estatuak duten eragina Facebookeko kasu zehatzean aztertuz, ikerketan zehar *Haiek-Gu*-a duen eraikitzeko modua uste baino konplexua-

goa dela ikusi dugu. Lehen momentu batean ikertu bezala (Díaz, 2011), Facebookek ez zuen Euskal Herria jaioleku gisa markatzea ahalbidetzen eta, horregatik, euskal identitatearen eraikuntza plano sistemiko batek eragotzita zegoen: *Haiek-Gu*-a (kasu honetan *Haiek*-a Facebookeko sistema eta espainiar zein frantziar estatuen eragina) eraikitzen zuen, eta online sare sozial horretan espainiar edota frantses gisa erregistratzeko aukera soila zegoen. Online sare sozial honek bere burua berdefinitzeko duen gaitasuna eta abiadura erakutsiz, gaur egun, Facebookek erregistratzerako orduan, batetik, herri baten izena eta koma batez banatuta «*Espainia*» edo «*Frantzia*» eta, bestetik, jai leku gisa «*Euskadi*» hautatzeko aukerak ematen ditu. Aldaketa hau, beraz, nazio-identitate eraikuntza terminoetan, aurretiaz landutako frantziar zein espainiar estatuen logiken jarraipena besterik ez da: plano sistemiko batetik, inguruko bi estatuen eragina medio, ezin baita Euskal Herri osoko euskal identitatea eraiki. Balorazio ideologiko eta moralak alde batera utziaz eta identitate kolektiboaren eraikuntzaren azterketa plano soziologiko batean paratuz, erabiltzaileek lehen aukera hautatuz modu esplizitu batean *Haiek-Gu*-aren identitatea eraikiko dutela esan dezakegu. Eta bigarrena hautatuz gero, ere bai.

«*Euskadi*» terminoak berak adierazten duen moduan, Facebooken erregistratzerako orduan hautu hau eginaz, Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeetatik soilik hiru (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa) agertzen dira: Facebookek, estatuen eragin instituzionalak medio, gainontzeko lauak (Nafarroa, Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoa) Euskal Herriaren definizioetik at uzten ditu. Espainiar eta frantziar estatuek euskal identitatea eraikitzeke duten eragin hau, edota *Haiek-Gu* agente instituzional hau, are argiago geratzen da «*Euskadi*» hitzaren atzean koma batek banatuta «*Espainia*» edo «*Frantzia*» agertzen dela ikustean: ustez euskal identitatea eraikitzeke aukera ematen zuen erdibideko aukera horrek espainiar zein frantziar estatuen logika bezain beste erreproduzitzen duela ikustean, hain zuzen ere.

Azkenik, kanpo identitateek euskal identitatea edota *Haiek-Gu*-a eraikitzeke duten modu hauen baitan, aurretiaz landutako panoptiko digitalaren (boyd, 2002) kontzeptuak Euskal Herrian duen izaera azpimarratu beharra dago. Ikerketan parte hartu duten gazteen testigantzen arabera, euskal identitatea zenbait modutan eraiki nahi eta ezin dutenen kasuak daude. Beraz, aurreko hamarkadetan euskal gizarteak espainiar zein frantziar estatuen partetik bizitako errepresioak (egun ere zenbait kasutan mantentzen dena) ondorioak ditu online sare sozialean ere: behatuak eta zigortuak izango diren beldur, erabiltzaileek egunerokotasuneko harreman sozialean euskal identitatearekin lotutako hainbat ideia moldatu edota zuzenean isiltzen dituzte.

Espainiar eta frantziar estatuen eragin instituzionalen gainetik harreman sozialen bidez euskal identitatea eraikitzen

Estatuen eta sistemaren kanpo baldintza instituzionaletatik abiatuta, eguneroko harremanen bidez, taktika ideia jarraituz, espainiar zein frantziar gisa identifikatzeko baldintza gaindi daitekeela ikusi nuen gazteei esker. Hasiera batetik arreta deitu zidan hainbat euskal gazte jaio leku exotiko bateko kide gisa erregistratu izana Facebooken: «Hawaii-ko Mikel» edota «Trinidad eta Tobagoko Nerea» aurkitu ahal dira online sare sozial horretan, adibidez. Hainbat gazte espainiar edota frantziar gisa identifikatu eta nazio-identitate hauek eraiki beharrean, beste Herri txikiago, urrun edota ezezagunagoen kide gisa agertzen dira. Nahiak berak esan bezala: «*Jendeak jartzen du «Bilbo» eta espainia jarri beharrean zenbat jendeak dauka «Oregon» edo ez dakit «Islandia» edo...*» (Nahia, 2012).

Hau da, gazteek euskal identitatearen eraikuntzan eragin zuzenik izan ez duten herriak hautatzen dituzte, herri hauek osatzen duten *Haiek* horrek *Gu*-a (euskal identitatea) eraiki eta baldintzatzen ez duelako. Beraz, Facebookeko sistemak berak eskaintzen duen espazio hori propio eginez eta espainiar zein frantziar identitateak hautatuz, *Haiek-Gu*-aren eraikuntzan izan dezaketen eragina onartu beharrean, zenbait gaztek Facebooken erregistratzerako orduan taktika gisa ia ezinezkoak diruditen jaiolekuak hautatzen dituzte. Horrela, taktikoki, euskal herritarraren posizioa habitatzeko aukera ez dagoen espazio batean kanpoko eragin instituzionala saihesteko hautu erreflexiboa egiten dute.

Era berean, *Haiek-Gu*-aren agente honetatik, aurretiaz aipatutako *Gu-Haiek* agentera ere igaro gaitezke. Izan ere, modu esplizitu batean banatzen dira euskal komunitateko gazteak espainiar zein frantziar estatuek osatzen duten *Haiek* horietatik herri exotiko hauek hautatuz. Facebookeko lagunek eta euskal komunitateko gainontzeko kideek horrela ulertuta, espainiar zein frantziar nazio-identitateekiko jarritako distantzia dela eta, euskal identitatea *Gu-Haiek*-etatik bereiztearen arbera eraikitzen dela esan daiteke.

Azkenik, aurretiaz azaldu den arren, erregistratzeko orduan gazteek hartzen dituzten nazio-identitate hautuen azalpena borobiltzeko, profileko izenaren bidez modu esplizitu batean euskal identitatea eraikitzen duten gazteak daude. Baldintza instituzionalak alde batera utziaz, gainontzeko lagunek identifikatuko duten «Ximon Bilbokoa» edota «Mikel euskalduna» bezalako profileko izenak erabiltzen dituzten gazteak daude Facebooken. Ondorioz, egunerokotasuneko harreman sozialen bidez eta ariketa erreflexibo baten ostean, gazteek hainbat irtenbide sortzen dituzte estatu frantziar eta espainiarraren eraginaren aurrean. Baina, eus-

kal estatu bat egongo balitz, nola eragingo luke euskal identitatearen Facebookeko eraikuntza sozialean?

Balitzko euskal estatu baten onurak euskal identitate digitalaren eraikuntzan

Abstrakzio ariketa bat egin nahi nuke dimentsio instituzional batetik balitzko euskal estatu batek izan litzakeen ondorioez hausnartzeko. Frantziar zein espainiar estatuen eragina ezagututa eta gazteek sortzen dituzten taktikak ikusita, balitzko euskal estatu batek Facebook bidezko euskal identitatean izan ditzakeen onurak agerian geratzen dira.

Ikusitakoaren arabera, bi dira euskal gazteek estatu bat ez izateagatik Facebooken (bidezko) euskal identitatearen eraikuntzan dituzten muga nagusiak: plano instituzional batetik erregistratze unea eta plano kultural batetik identitate-erreferenteen sorrera, babesa eta partekatzea. Estatu propio bat izatean, gazteek euskal identitatea ordezkatzeko lukeen herria hautatzeko aukera izango lukete. Modu honetan Facebooken erregistratzeko orduan euskal herritar gisa identifikatzean, euskal identitatea eraikitzeaz gain, gazteek ez lukete nahi ez dituzten frantziar zein espainiar nazio-identitateak eraikiko.

Era berean, egoera behartu horren aurrean sortzen dituzten taktiken beharrik ere ez lukete izango: *Haiek-Gu*-aren (kanpoko taldeek barneko taldearen) identitatea ez eraikitzeaz gain, *Gu*-a (euskal identitatea) talde barneko harremanen bidez eraikiko litzateke eta ez *Gu-Haiek* kanpo logika jarraitzen duen bestelako Herrien biztanle gisa identifikatzearen eraikuntza modu negatiboaren bidez. Euskal identitatea *Haiek*-en (kanpoko nazio-identitateen) arabera eraiki ordez, nazio-identitate honen ardatz nagusia identitate kolektiboa bera izango litzateke.

Dimentsio instituzional honetan jarraituz baina plano orokortuz, euskal estatu batek Euskal Herrian sortutako web orrialdeak estatuek dituzten bi digituen amaiera propioa izateko aukera ahalbidetuko luke. Hiru digituetako «.eus» edo «.cat» amaieradun web orrialdeek duten izaera kulturalaz haratago joateko aukera egongo litzateke balitzko euskal estatuaren bi digituen amaierarekin. Gainera, berriro ere, Euskal Herriko web orrialdeek ez lukete zertan «.es» edota «.fr» bukaerekin espainiar zein frantziar estatuen menpe dauden orrialde gisa aurkeztu behar. Nola ez, puntu honetan azpimarratzekoa da «.eus» antolakundeak Interneten ere euskara, euskal kultura eta euskal gizartea egon dadin egin duen eta egiten ari den lana, haiei esker bagara nor munduan eta sarean.

Bestetik, plano kultural batetik behatuta, euskal estatu batek identitate-erreferente propioak sortu, bildu eta elkarbanatzeko aukera eta erraztasun gehiago emango luke. Horrela, batetik, euskal gazteek beste nazio-identitate batzuen erreferenteak maneiatu beharrean euskal erreferenteak partekatzeko aukera izango lukete eta, bestetik, euskara bezalako identitate-erreferente nagusi batek beharrezko sostengua izango luke sarean ere. Era berean, espainiar zein frantziar estatuek euskal identitatea sozialki eraikitzeke jartzen dituzten mugak gaindituko lirarteke, panoptiko digitalaren ideia jarraituz, *Haiek-Gu-a* (aipatu estatuek euskal identitatea) eraikitzeke duen modu hori ezabatuz. Nork daki, agian bestelako dimentsio bat hartuko luke kontzeptu honek euskal estatu baten baitan.

Nolanahi ere, hau ez da euskal gizarteak gaur egun bizi duen egoera administratiboa. Gainera, estatu bat izateko egin beharreko lehen ariketa bere herriaren lur geografikoa marratzea eta mugatzea da. Eta marrazte eta mugatze ariketa hau leku geografikorik okupatzen ez duen espazio batean egitea are zailagoa da, izan ere, zein da Internet garaian nazioek eta estatuek habitatzten duten territoria?

7. Herri digitala: Euskal Herria 7 lurralde baino gehiago denean

«Aberria. Zer da aberria?
Milaka kilometrotara dagoen lur puska?
Hiru milioiko jendartea?
Lur zati batean bizi diren pertsonak?»

(*Mikel Antza, Atzerri*)

«Facebook ez da EH, zerbait birtuala da eta agian mentala.
Beste espazio mota bat? Ez fisikoa?
Bai. Agian beste nazio bat?»

(*Nahia*)

Euskal identitatearen eta komunitatearen eraikuntza Facebook bidez nolako den ezagutu ostean, Mikel Antzak *Atzerri* liburuan proposatutako kezkan pausatuko gara: *atzerria* kuestionatuko dugu eta *aberriaren* mugak marrazten saiatuko gara. Etnografia digitalari esker ezagututako «Erasmus» taldearen bidez atzerrian bizi diren gazteen testigantzak izango ditugu ardatz. *Atzeritik* beharrean, *atzerrietatik* so egingo dugu aberria: atzerrietako lekuan lekuko eragin estrukturalak kontuan izanik, gazte hauek online eta offline harremanen bidez komunitatea nola bizi duten ikusteko aukera izango dugu.

Atzerrien eta aberriaren artean dagoen espazio hau nola bizi eta irudikatzen duten landuko dugu atal honetan. Nahiak berak esan bezala, Facebookeko harremanen bidez sortutako espazio hori, dimentsio

onlinea eta offlinea («*fisikoa eta mentala*» deritzona) eta atzerria eta aberria gaintzen dituen territoria da. Are gehiago, «*beste nazio bat*» ote den bere buruari ozen galdetzen dio. Beraz, ikerketan parte hartu duten gazteek mahai gainean jarritako gai honi aurre egiten saiatuko gara: herriek Internet garaian habitatzen duten territoria ezagutzen, ulertzen eta tratatzen hasiko gara.

«Facebook sakelan eta ibili munduan»: euskal identitatearen eraikuntza atzerrian

Euskal identitatearen inguruko «bizi-penak» atzerritik

Nahiarekin izandako elkarriketa batean, «Txapela buruan eta ibili munduan» esaera zaharretik abiatuta «*Facebook sakelan eta ibili munduan*» (Nahia, 2012) esandako esaldiak ondo baino hobeto laburbiltzen du atzerrian bizi diren gazteek euskal identitatea eta munduarekiko duten ikuspegia. Facebookek zein euskarak atzerrian duten funtzio garrantzitsua uler daiteke. Ikerketan parte hartu duten gazteen arabera, euskal identitatea atzerritik modu ezberdinetan bizi da: bai sentimendua baretuz edota bai indartuz. Baina kasu gehienetan epe motz baterako atzerrira doazen gazteek euskal identitatearekiko perspektiba orokorrago eta osatuago bat dutela sentitzen zuten. Ikerketan parte hartu zuen Julenek Australian izandako bizipenen berri ematean honako dio:

«Nire ustez euskal sentitzen jarraitzen naz, baina munduarekiko perspektiba aldatu ein dot. Ta kanpora irteteak aldatu ein dozte.

Ta zelan ikusten duzu orain?

Lehen mundua (edo Euskal Herritik kanpo bizitzea) beldurrez ikusten naben ta orain aukera bat bezala ikusten dot.»

(Julen, 2012)

Euskal identitatearen inguruko ikuspegi bakar eta denboran zehar iraunkorra zen hori atzerrira joatean aldatzen da. «Erasmus» taldeko beste gazte honek, betiko ohiko harremanetatik ateratzean euskal identitatearekiko ikuspegia nola osatu duen azaltzen du:

«Ta kanpoan egoteak uste duzu zure euskal identitatearen inguruko bisioa aldatu dizula?»

Bai, asko.

Zelan esango zenuke? Badakit zaila dela hitzak aurkitzea.

Pues... (*herria-tik*) dena desberdin ikusten da. Inguru jakin baten bizi zara, aspalditik ezagutzen duzun jendearekin zure lurrarekiko sentimendu jakin batzuk konpartitzen dituzu. Baina bertatik urteteen ezberdina da: jende ezberdina ezagutzen duzu, pentsatzen zenuen guztia berplanteazten dizuten ikuspegi ezberdinekin. Eta beste perspektiba batez hasten zara gauzak ikusten, orokorragoa, nire ustez. Eta jada nongoa zaren ez da garrantzitsua, baizik eta, nire kasuan, nor zaren. Ez dakit erantzun ote dizudan!»

(*Erasmus Kidea 3, 2012*)

Euskal identitatearen inguruko sentsazioak atzerrian epe motz baterako dauden gazte hauengan nola aldatzen diren aztertuz, zenbait kasutan ikuspegi hau baretzen dela esan daiteke. Testuinguruaren arabera eta atzerrian daudela kontuan izanik, adibidez, euskal herritarrak sentitzen direnak ere noizbait haien burua espainiar gisa aurkezten dute. Erasmus taldeko kide honek «*Ni euskalduna sentitzen naiz, ez dut inoiz esaten «español».* Baina claro, batzutan hemen (atzerrian) egonda spanish esan behar duzu» (Erasmus Kidea 4, 2012).

Era berean, Ostebik Madrilen euskal aseguru enpresa batean telefonista gisa lana lortzean lankideekin zituen elkarrizketetan «*todos somos españoles*» (eguneroko pasarteak, 2012) bezalako esaldiak pasatzen uzten zituen. Euskal Herrian inoiz egingo ez lukeen hori atzerrian egiten zuen, euskal identitatea lekuaren eta aurrean dagoen pertsonaren arabera moldatzen dela agerian utziz. Beraz, testuinguruaren arabera, kasu honetan atzerrian egotean, euskal identitatearen inguruko ikuspegia laxatzen da. Horregatik ere, Kanadan egindako ikerketa egonaldian hango lagunek hain kaskarra nintzen hockey partiduetan jokaldi ez hain txar bat egiten nuenean animatzeko «*Olé! Olé!!*» esaten zidatenean pasatzen utzi, barre egin eta animoak eskertzen nizkien: euskal herritar gisa hain garraxi espainol batekin inongo konplizitaterik ez sentitu arren, testuingurua eta solaskideak nortzuk ziren kontuan izanik, esaldiak beste esangura bat hartzen zuen.

Euskal identitatearen inguruko ikuspegia baretzen dela esatean ez dut honekiko sentimendu maila gutxitu dela esan nahi, izan ere, etnografiatik egindako liburu honen arabera, euskal identitatea ez da kuantitatibo zein objektiboki neur daitekeen sentsazio bat. Ez da nire asmoa gazte hauek lehen orain baino «euskal herritarragoak» edo beste gazte hura baino «euskal herritarragoa» zirela esatea; kualitatiboki modu

indartsuagoan edo lasaiagoan bizi dutela ulertzea eta azaltzea da intentzioa. Izan ere, elkarrizketatuek esan bezala, atzeritik euskal identitatearekiko ikuspuntua aldatzen dute, haien hitzetan, honen inguruko ikuspegi osatuago bat dute.

Zenbait kasutan, atzerriko aniztasunarekin euskal identitatea indartu ere egiten dela ikusi nuen. «Erasmus» taldeko kide batek bereberekin eman zituen hainbat hilabeteren ostean «*Hemen nagoenetik askoz harroago nago nire lurraldeaz, nire kulturaz eta ohituraz*» zegoela azaltzen du (Erasmus Kidea 5, 2012). Sentimendu hau Euskal Herria bezalako estatu gabeko herri batean izatean, berriro ere, euskal identitatearen eraikuntzan testuinguruak duen garrantzia agerian uzten du. Atzerrian sentsazioak biderkatzen dira, «*Gran Hermanoren antzekoa da*» Nahia- ren (2012) ustez, eta horregatik Euskal Herritik kanpo egonda euskal identitate-erreferenteek kutsu bereziago bat hartzen dute. Euskararen aspektu kulturaletik hasita Athleticen kirolaren dimentsiora pasatuz, gazte hauen iritziz atzerrian erreferente sinbolikoek indar berezi bat hartzen dute. Ikerketan parte hartu zuen Itsasok esaten duen moduan, Irlandan «*denbora osoan Athleticeko kamisetarekin leku guztietatik*» (Itsaso, 2012) zebilen, Bilbon egun berezietan soilik janzten duen elastikoa, alegia.

Facebook atzerrian

Julenek azaltzen duen moduan, Facebookeko erabilerak atzerrian iaera berezi bat hartzen du, online sare sozial hori euskal identitatearen «bizi-penekin» izandako bilakaeraren isla baita. Gazte honentzat, Facebook, «*komunikaziorako bitartekaria izen da, ta bertan eman diren aldaketak nire komentarioekiko ni eta Euskal Herriarekiko aldaketaren islada izen da*» (Julen, 2012). Azalpenarekin jarraituz «*pentsakera aldatu eginenez, nire praktikak Euskal Herria ta Facebookerekiko aldatu egin dira*» (Julen, 2012).

Atzerrian izandako Facebooken erabilera euskal identitatearen inguruan duen ikuspegi aldaketaren isla izan da eta, beraz, ikerketan parte hartu duten gazteek atzerrian online sare sozial horri Euskal Herrian ez bezalako erabilerak ematen dizkiotela esan daiteke. «Erasmus» taldeko gazte honek azaltzen duen moduan, Euskal Herritik kanpo Facebook gehiago erabiltzen du.

«Ta (*herria-n*) egon naizenean, Fuzhoura etorri baino lehen, ezer berezirik egin ez genuenez ia ez nituen argazkirik igo.

Eta adibidez, lagunekin (Herria-n) hainbeste hitz egiten zenuen FBtik.

Ez. (*herria-n*) telefonoa edo Hotmaila (lanean gauden bitartean Hotmail bidez egiten gendun berba). FB ia ezertarako.»

(*Erasmus Kidea 2, 2012*)

Gazte hauek Euskal Herrian lagunekin edota familiarekin dituzten aurreko harreman horiek gabe, atzerrian Facebook gehiago erabiltzen dute harreman mota horiek ordezkatzeko eta herrikoengandik hurbil sentitzeko.

Orain arte atzerriaz hitz egin badugu ere, «Erasmus» taldeko gazteek erakutsi bezala, atzerri ezberdinak daudela azpimarratu beharra dago. Ikuspegi orokor batetik, gazteek Facebooken dituzten praktika sozialak Euskal Herrian eta atzerrian ezberdinak izateaz gain, atzerriko herri ezberdinen arabera gazteen Facebookeko erabilerak aldatzen dira. Berriro ere, identitatearen eraikuntzan testuinguruak duen garrantzia azpimarratu behar da. Adibide moduan, Nahia Txinan egon zen bitartean ezin izan zuen nahi bestetan online sare sozial horretara konektatu eta, beraz, testuinguruak eragindako baldintzapen estruktural hau dela medio, ezin izan zituen euskal identitatearen inguruko sententzioak Facebook bidez nahi beste plazaratu. Era berean, Helsinkitik Txinara lan egitera mugitu zuten «Erasmus» taldeko beste gazte honek atzerri mota ezberdinak bizi dituela azaltzen du:

«Ta orain Txinan.

Ba, gehiago erabiltzea gustatuko litzaidake.

Baina zentsura, ezta?

Bai, hori da. Zaila dela, uzten nautenean erabili dezaket. Helsinkin FB erabiltzea zen zerbait... egunerokotasuneko parte zen. Ta horregatik askotan txutxu-mutxuentzako erabiltzen nuen... ta orain, jendeaz jakiteko erabiltzen dut soilik. Orain "*luxu*" bat da. Baina orain ilusio gehiagoz sartzen naiz!»

(*Erasmus Kidea 3, 2012*)

Helsinkin Facebookeko erabilera, egunerokotasuneko praktika barneratua zena, Txinan luxu bat da. Facebookera konektatzea luxua da eta, horrek, atzerrian epe motz baterako dauden gazteen bizimoduetan

eragin zuzena du: herrikoekin hitz egitea, herrian sentitzea eta bizipenen berri ematea luxu bat da. Azken batean, Nahiak azaltzen duen moduan, «*Estabilitatea ematen dizu ezaguna denak, ezta?*» (Nahia, 2012). Eta horixe bera da atzerrian gazte hauek lehen momentu batean ezagun duten espazio bakarrenetatikoa: Facebook, Facebookeko lagunak eta Facebookeko harremanak.

«*Euskara da gure territorio libre bakarra*»

«Funtzionarioak zelatan ditugu beti:
 bazterretik jarraitzen digute patioan,
 atzetik jarraitzen digute komunera,
 aurretik jarraitzen digute bisitara,
 ateko mirillatik zaintzen gaituzte zeldan
 eta gure loa ere zelatatzen dute.
 Ezin haiengandik alde egin ez patioan,
 ez komunean, ez bisita
 kabinan, ez zazpigarren loan.
 Euskara da gure territorio
 libre bakarra.»

(*Joseba Sarrionandia*, Kartzelako poemak)

Facebook euskal identitatearen inguruko sentimenduak plazaratzeko espazio eta tresna pribilegiatua da gazte hauentzat eta, era berean, atzerrian dauden bitartean euskararekiko hurbiltasun berezi bat sentitzen dutela ere esan daiteke. Itsasok azaltzen duen moduan, Euskal Herrian euskaraz hitz egiteko ohitura gutxi duen arren, atzerrian sentitutako herriminak euskaraz aritzera bultzatu zuen:

«Jo ba igual hemen lagun batekin euskaraz hitz egiten handik eta hemen ez dugu inoiz egiten baina kanpoan egonda... es que kanpoan zaudenean da como... hemengoaz gehiago gogoratzen zara.»

(*Itsaso*, 2012)

Atzerrian euskaraz hitz egitean lasai eta seguru sentitzen dira gazte hauek, euskaraz esaten ari diren hori inork ez baitie ulertuko eta, beraz, Joseba Sarrionandiak (2011) azaldu bezala, gazte hauek euskara territo-

rio librea dute behatuak sentitzen diren online espazio horretan. Ondo baino hobeto azaltzen du Nahiak euskarak atzerrian duen garrantzia pasarte honen bidez:

«Benetan, da sorgin hizkuntza bat, entre otras cosas, kotilleatze-ko. Eta lagun finlandesari esan nion «edo ikasten duzu euskera edo ikasten dut nik finlandesa!» behar dugu hizkuntza komun bat ze polakoa ez dakigu biok oso ondo. Baina es que benetan da gozada bat, jakitea hizkuntza bat ez dakiena ia inor da, benetan...!»

(*Nahia, 2011*)

Plazer bat da gazte hauentzat euskaraz aritzea. Are gehiago, Euskal Herritik hurbil sentiarazten dien identitate-erreferentea da euskara. Horrela azaltzen du Julenek ideia hau bere egunerokoan —atzerrian zegoen bitartean eguneroko bat idazteko eskatu nion bere sentimenduen berri eman zezan:

«Euskal Herriko jendez lepo dago. Gehiengoa surfistak edo pasadan dauden bidaiariak, Asia eta Pazifiko osotik lan eta bizi dira. Alde batetik ona da, etxean bezala sentitzen naiz eta (egun osoa euskaraz hitz egiten ematen dut).»

(*Julen, 2012, eguneroko pasarteak*)

Nahiak ere ideia bera indartzen du:

«Orain dela bi asteburu egon nintzen Berlinen, askotan juten naiz hemetik eta gustatzen zait pilo hiri hori. Eta egon nintzen finlandesarekin eta egon ginen herritik ibiltzen eta niri españolarentzutea ez zait gustatzen bat ere, o sea jartzen naiz oso oso nerbiosa, ez dakit nola esan, ez zait gustatzen. Baina egon ginen gaztetxean eta bapatean entzun nuen norbait euskeraz eta kriston ilusioa! “euskeraz daude! Euskaldunak dira?” eta bai, ba ziren. Orduan... polita da eta ez dakit nola esan, euskaldunak aurkitzea ez da hain erreza.»

(*Nahia, 2011*)

«*Euskaraz ari dira*» beharrean «*euskaraz daude*» dio momentuko ilusioa eta urduritasunarekin hitz eginez. Edo agian, aurreko kapituluetan azaldu bezala, praktika eta izatearen arteko antzekotasunak azpi-

marratu nahi zituen: Lorea Agirre gogoratu, «*egiten duguna gara*». Era berean, testigantza honen bidez euskaldun eta erdaradunen arteko bereizketa argi bat ikus daiteke. Nahiarentzat *Guk* eta *Haiek*-en arteko muga bat dago euskararen arabera: euskaraz hitz egiten duen jendearekin hurbiltasun berezi bat sentitzen du eta besteekin ordea ez. Are gehiago, gaztelaniaz hitz egiten duten pertsonen kasuan hauekiko aurkakotasun bat bizi duela ikus daiteke. Identitate kolektiboa euskararen bidez eta besteetatik bereziz atzerrian nola eraikitzen den argiago azaltzen du jarraian:

«Eta azkenaldian ez naiz aurkitu euskaldunekin, Copenhagen ez... eta Polonian aurkitu ditut erdaldunak baina ez dut beraiekin hitz egin egia esan. Ez daukat konexio hori, baina ez nik ez eta erdaldunek ere ez, eh! Ez zaigu gustatzen erdaldunak ikustea, gainera pilo bat daude eta leku guztietan gainera, normalean da alderantziz “berriro ez!”, bua paso.»

(Nahia, 2011)

Gazte hauentzat euskara territorio librea dela esatean, zuzenean Facebook euskal identitatearen inguruko sentimenduen berri emateko espazio eta tresna pribilegiatua izatearen hipotesia gogora datorkigu. Nahiak azaltzen duen moduan, «*gustatzen zait pilo bat euskaraz idaztea eta jendeak badaki euskalduna naizela eta jendeak galdetzen du «Ze hizkuntza da? Ba euskara da»» (Nahia, 2011). Atzerrian indartzen den euskararekiko harrotasuna Facebooken bidez hedatzen dute gazteek, eta ez soilik euskaraz: Facebook ere bada atzerriko lagunei euskararen edota Euskal Herriko egoeraren berri emateko tresna pribilegiatua. Atzerrian dauden gazteek euskal gizartearekin zerikusia duten eta azpigituluak ingelesez dituzten bideoak partekatzen dituzte online sare sozialen bidez:*

«Ba igual lagun asko internazionalagoak direlako eta jartzen ditut askotan bideoak euskarari buruz, bertsolaritzari buruz ere jarri ditut eta gainera saiatzen naiz bideoak ingelesez subtitulatuak egotea, horrela mundu guztiak ikusi ahal ditu. Jende gehiagora iristeko, ez? Askotan jendeak jartzen ditu euskaraz edo erderaz, baina atzerrian bizi zarenetik saiatzen zara pixkat bilatzen ingelesa edo pixkat unibertsalagoa. Batez ere mezua zabaldu nahi baduzu. Ta ordun Youtubeko dokumentalak euskarari buruz jarri ditudanean saiatu izan naiz ingelesez jartzen.»

(Nahia, 2011)

Ez han ez hemen, Interneten. Facebook espazio gisa: atzerriaren eta aberriaren artean

Liburuan zehar errepikatu den moduan gazteek idatziz, argazkiz edota aurreko zitan Nahiak azaldu bezala bidez haien sentimenduak adierazten dituzte: Facebookek eskaintzen duen hipertestuaz baliatzen dira euskal identitatea eraikitzeko. Atzerrian dauden gazteek arazo handi bat daukate Euskal Herriko lagunekin hitz egiterako orduan: bi herrien artean dagoen ordutegi ezberdina. Nahiaren kasuan Facebooken konektatzean lagun gutxi aurkitzen zituen: «*Diferentzia horarioa handia da. Orduan, orain sartzen naizenean da de kotilleo, ez dago ia inor konektatuta*» (Nahia, 2012). Arazo horren aurrean eta Facebookek eskaintzen duen harreran hipertestualez baliatuta, idatziz komunikatzeaz gain, argazki edota edukien bidez komunikatzen zen bere herriko lagunekin:

«Kontenidoekin komunikatzen naiz. Polonian chatarekin ere bai baina aldaketa horariari begira gaur egun nire chata Facebookarekin Txina eta Indiako jendearekin bakarrik erabiltzen dut (*India ..-2,5 ordu.*)»

(Nahia, 2012)

Idea honek komunitateko kideek konpartitzen duten espazioaz hausnartzeko aukera ematen du. Argazkia Facebookeko horman utzi eta datorren eguneko komentarioen zain geratzen zen gazte honek aurrez aurrekoa ez den espazio konpartitu bat du bere Euskal Herriko lagunekin.

Facebook herrira hurbiltzen dien eta maiz Euskal Herrian bertan sentiarazten duen espazio pribilegiatua da ere. Atzerrian sentitzen den herrimina lausotzen da Facebook bidez, Nahiak azaltzen duen moduan: «*Guay da egotea Polonian eta jakitea etxetik ikusten dizutela es que egiten dizu ilusioa. (...) Eta polita da.*» (Nahia, 2011). Era berean, Itsaso atzerrian bakarrik sentitzen zenean Facebook erabiltzen zuen lagunengandik hurbil egoteko:

«Denbora osoan erabiltzen nuen, faltan botatzen nuen pilo bat hemengo jendea eta orduan nengoen denbora osoa sartua, ikusten besteen argazkiak eta... bai. Eta koadrilarekin hitz egiteko, Messenger batzuetan ere... Es que igual batzuetan konektatzen nintzen eta zegoen norbait eta chatera, orduan berriro beste bat agertzen zen eta esaten nion «konektatuko naiz ordu bat barru ea ez dakit nor dagoen eta kontatzen diodan beste gauza bat» eta orduan denbora osoa konektatzen eta konektatzen hitz egiteko jendearekin.»

(Itsaso, 2011)

Atzerrian egonda ere, gazteak Facebooken bidez herritik hurbil eta herrian sentitzen dira. Modu honetan, atzerriko eta Euskal Herriko espazioak eta denborak uztartu zituen «Erasmus» taldeko beste kide honek: «(herria-ra) *bueltatu nintzenean ez zirudien ia urte bat Txinan neramala. Ez nuen Txinan egon izanaren sentsazioa, oso arraroa zen» (Erasmus Kidea 3, 2012).*

Espazioak eta denborak bestelako dimentsioak hartu eta bestelako moduetan bizi dira atzerriko etengabe Facebook erabiltzean eta ia beti etxean sentitzean. Honen adibide argia bidaia egin ostean etxekoei ezer berririk kontatzeko ez duzula da. Horrela idatzi nuen nik 2012ko udan Oxforden egindako doktorego-kurtso batetik bueltatzeko egun gutxi geratzen zitzaizkidanean autoetnografia burutzeko asmoz, ikerketan parte hartu zuten gazteei eskatu bezala, nik neuk atzerrian nengoenean idatzitako egunerokoan:

«Lehen bidai bat egin, etxera joan eta gertatutakoak kontatzen ziren. Egun ordea, etxera bueltatzean ez dut ia ezer Uxoari kontatzeko. Emailak, skypea... hemen balego bezala da, han banengo bezala da. Ez dago, kasu honetan, han eta hemen arteko diferentziarik.»

(Koldo, 2012, eguneroko pasarteak)

Gertaera anekdotiko honen bizipenak landa-koadernoan idazteak *hango* eta *hemengo* lekuen artean ezberdintasunik ez egotearen ideian sakontzea ahalbidetu zidan. Izan ere, autoetnografiaren ariketa erreflexiboaren bidez, Facebook atzerriaren eta herriaren arteko banaketak eta mugak desitxuratzen dituen espazioa dela ikusi nuen. Momentu horretan, Facebook, bestelako territorio bat marrazten duen harremanez betetako espazio gisa ikusi eta ulertu nuen. Modu honetan, Euskal Herriaren eta atzerriaren artean territorio komun bat egon zitekeela pentsatzen hasi nintzen eta ideia hori garatu ahala euskal komunitateak Internet garaian habitatzen eta irudikatzen ahal duen territoria aztertzen hasi nintzen.

Herri digitala: herriaren territoria Internet garaian

Benedict Andersonen irudikatutako komunitatearen proposamena askotan jorratu den kontzeptua da. Komunitatea harreman sozialen ikuspuntutik aztertzen du, eta bere ustez, nazio bereko kideek partekatzen dutena nazio identitate-erreferenteek sortutako elkartasun sentsazioak sortutako lotura da: irudikapen kolektibo partekatu bat, alegia. Bere hitzetan nazioa imajinatua da:

«Komunitate politiko imajinatu bat, mugatua eta soberanoa dena. Imajinatua da nazio txikieneko kideek ere sekula ez dituztelako herri-kide gehienak ezagutuko, ez dituzte ikusiko ez eta euren buruz entzun ere, baina norberaren mentalitatean euren komunioaren irudia bizi da.

...eta era berean, nazioa mugatua da:

Nazioa mugatua irudikatzen da hauetariko handienean ere, agian mila milioi gizaki barnebiltzen dituena, muga finitioak dituelako, baina elastikoak, hauengandik haratago beste nazio batzuk aurkitzen dira.»

(1993: 23, 24,25)

Proposamen antropologiko honen bidez komunitatea eta nazioa lotzeaz gain, Benedict Andersonek dimentsio sozialari erreparatzen dion ikuspegia ematen du. Era berean, nazio handietako kideen artean komunikazio fisikoa nekeza zen garai bat azterturik, inprentak kohesio sozialerako izan zuen eragina azpimarratzen du; geroago ikusiko dugun moduan, berebiziko garrantzia duen ekarpena.

Orain arte landutako hainbat ideia agertzen dira proposamen honen bidez: komunitatea, kideen arteko distantzia, irudikapen kolektiboa, nukleo existentzial eskuraezina edota idealizazioak, besteak beste. Horregatik, etnografia digitalaren bidez egindako ibilbide metodologikoak epe motz baterako atzerrian dauden gazteengana eraman ninduean, euskal identitatearen eraikuntza sozialaren ardatz nagusitik taldetasunaren eraikuntza eta irudikatzea nola gauzatzen den aztertzerako jautzia egitea erabaki nuen: atzerrian eta Facebooken (bidez) Euskal Herriak izan ahal dituen muga territorialak aztertzeari ekin nion.

Aurreko kapituluko *Home* kanta gogoratu, Facebooken sortzen den «etxe» horrek, «zu eta biok... eta beste lagun eta senide batzuk dauden etxe horrek», batetik, *aberriak* eta *atzerriak* eta, bestetik, irudikatutako komunitateak uztartzen dituen *territorioa* dela esan daiteke. Izan ere, euskal identitate-erreferente eta kolektibo ezberdinak aurkitzen diren espazio honek, atzerrian eta aberrian dauden gazteen muga geografikoak gaintzen ditu: leku batean edo bestean, eragin estruktural ezberdinak medio, euskal identitatearen eraikuntzarako espazio bera partekatzen baitute gazteek, kasu honetan Facebooken sortutako espazioa.

Ondorioz, Euskal Herrian zein atzerrietan dauden gazteek Facebooken (bidez) euskal identitatea eraikitzen dute eta, harreman hauek, euskal gizarteari habitatzeko espazio bat ematen diote Facebooken. Horrela beraz, zein da harreman hauek, euskal identitatea eraikitzen duten praktika eta diskurtso sozial hauek, marrazten duten herria?

Gaur egun arte, nazio-identitatea leku geografiko baten baitan eraiki izan da: nazioan, estatuan edota diasporako egituretan. Gaur egun, beste garai batean inprentak bezala, distantzia fisikoak gainditzen dituen tresna bat dago, baina beste garai batean ez bezala tresna hau espazioa ere bada: Facebook (eta orokorrean Internet), euskal identitatea eraikitzeko tresna da eta gizarteak habitatzten duen espazioa ere bada. Orain arte euskal identitatea Facebook bezalako leku ez geografiko baten nola eraikitzen den ezagutu badugu ere, nola irudika dezakegu harremanek habitatzten duten espazioa eta mugatzen duten Euskal Herria? Joseba Kamiok (2012) Twitterren idatzitako txio batek argi apur bat eman zion planteatzen ere zaila den gai ilun honi. Izena jarri zion bueltaka genuen konplexutasunari espazio offline eta onlineak uztartzen diren territorioari «nazio digitala» deituz.

Sarea da gure territorio libre bakarra? Herri digitala irudikatzen

Manuel Castells bera, azken urteetan munduan jazotako erreboltetan IKTek izandako garrantzia aztertzerako orduan, bi espazio hauek (offlineak eta onlineak) sortzen duten hirugarren espazio horren azterketan zentratu da. Harreman teknopolitiko honek, «*Harremanerako espazio forma berria sortu zuen, lekuen espazioen nahasketa bat, territorio determinatu baten eta Interneten fluxuen espazioa*» eraiki zuela azaltzen du (2012: 168). Lekuen espazioa (offlinea) fluxuen espazioarekin (onlinea) uztartuz bestelako espazio bat sortzen da, zehazki «*Ziberespazioaren eta espazio urbanoaren hibrido honek hirugarren espazio bat eraikitzen du, nik autonomia espazioa deritzotena*» (2012: 213). Autoreak, hirugarren espazio hau munduan zehar hainbat erreboltetan parte hartu zuten biztanleentzat *egoteko* eta *egiteko* autonomia espazio bat izan zela azpimarratzen du.


Nire kasuan, herri digitalaz ari garenean, herri batek Internet garrian mugatzen duen territorioaz ari naiz. Kontzeptu honen bidez ez da nire asmoa gizartearen sektore jakin batek habitatzten duen hirugarren espazioa identifikatzea; ez eta migranteek online sare sozialei esker haien herria nola eraikitzen duten azaltzea edota Interneten dauden plataforma ezberdinen bidez haien herriarekiko oinarriak ez galtzeko erabiltzen dituzten tresnak aztertzea (aurreko puntuetan atzerrietan dauden gazteen testigantzei esker egin baitut). Besteak beste Steven Vertovecek (2009) aztergai duen *transnazionalismoa* eta beste artikulu batzuetan landu dudana gaia (Díaz eta Tsavkko, 2015b) ez da momentu honetan herri digitala kontzeptuarekin argitu nahi dudana arazoa.

Proposamen honekin gaur egun herri batek Interneten agerpenarekin trazatzen dituen muga territorialak identifikatu nahi ditut. Lurraldetasunari begirako azterketa da. Herri digitala kontzeptuarekin, herria «mapeatu» nahi dut. Herria herritarren harreman eta identitate-erreferenteengatik ere mugatuta dagoela esan daiteke (Anderson, 1993) eta ez soilik muga geografiko batzuegatik: Internet garaian euskal identitatea eraikitzen duten praktika eta diskurtso sozialek sortutako kolektibitateek ere Euskal Herriaren mugak markatzen dituztela proposatu nahi dut.

Aurretiaz atzerrian dauden gazteen testigantzei esker ezagutu bezala, atzerrian egon arren, gazte hauek Facebooken konektatzen zirenean Euskal Herrian bertan sentitzen ziren: *atzerria* eta *aberriaren* muga geografikoak gainditzen dituen irudikatutako komunitate bat osatzen zuten espazio online horretan. Horrela, diaspora kontzeptuak erakusten duen moduan, komunitatea eraikitzen ahal da jatorrizko herriaren lurralde geografikotik kanpo. Baina diasporak ez bezala, herri digitalak ez du immigratutako herriaren espazio geografikoaren beharrik («euskal etxeen» egiturak kasu): Interneten, herri bereko biztanleek euskal identitate-erreferenteak partekatu ditzakete leku geografiko iguala partekatu gabe eta, «Erasmus» taldeko gazteen kasuan bezala, munduko herri ezberdinetan egonda.

Hori dela eta, Internet aroan herri bat mapa batean irudikatzean hiru dimentsiotan marraztu beharko litzatekeela deritzot. Herri digitalean, bate-tik, *maparen* muga geografikoak trazatu behar ditugu; bestetik, Internetek habitatzten duen *hodeia* kontuan izan behar dugu eta, azkenik, biak uztartuta osatzen duten hirugarren *territorioa* identifikatu behar dugu.

Lehenik eta behin, *mapak*, herri batek duen lurralde geografikoa eta horren baitan jazotzen diren eragin instituzional offline ezberdinak (politikoa, ekonomikoa, kulturala edota beste dimentsio batekoak) barnebiltzen ditu. Etnografia digitalean zehar atzerrian bizi diren gazteen testigantzei esker ezagututako lekuan lekuko eragin ezberdinak kontuan hartzen ditu. Bestetik, *hodeiak*, Internet bidez sortzen den nazio-identitatea azaltzen du.




7. Irudia

Mapa eta Hodeia

Liburu honetako hasierako kapituluetan gaur egun online eta offline espazioak uztartuz hirugarren espazio bat sortzen dela ikusi dugu: hiperespazioa (Gómez, 2002), hain zuzen ere. Era berean, IKTek egunerokotasunean eta harreman sozialetan duten garrantzia dela eta, Daniel Mille-rrrek (2011) harreman sozio-teknologikoak deritzotenak identifikatu ditu. Ildo honetatik, *maparen* eta *hodeiaren* logikak uztartuta daudela ikusi dugu, baina zelan gauzatu dira prozesu hauek herri baten kasuan?

Nazio-identitatearen eraikuntza bezala, herria hirugarren espazio horretan (hiperespazioan) eta harreman mota horien bidez (harreman sozio-teknologikoen) eraikitzen da egun. Offline eta online espazioetako eraginak, bi espazioetako harreman sozialak, nazio-identitate-erreferenteak partekatzeko tresnak eta logikak uztartzen dira guzti horretan. Herria, *herri digitala* da egun: harreman sozio-teknologikoen bidez negoziatzen diren nazio-identitate-erreferenteek sortutako irudikapen kolektiboak eta *mapa* eta *hodeiaren* artean kokatzen den *territorioa* habitatu baitu. Horrela, muga geografiko, harreman sozial eta nazio-identitate-erreferenteek mugatzen duten territorio honetan (herri digitalean), maparen aspektu offlinea, hodeiaren onlinea eta biak uztartuz sortzen diren espazioak kontuan hartzen dira.



8. Irudia

Herri digitala

Beste era batera esanda, Internetek eskaintzen duen *hodeira* munduko edozein herritik (*mapa*) konektatzeko aukera dago, betiere, online espazioan jazotzen diren harreman sozialak espazio offlineko eragin

bidez baldintzatuta daudela kontuan hartuz. Etnografia digitalari esker Euskal Herrian dauden gazteek euskal identitatea Facebooken bidez nola eraikitzen duten ezagutzeko aukera izan dugu eta baita, atzerrian dauden gazteen testigantzei esker, eraikuntza honek herri ezberdinetako eraginez arabera dituen moldaketak. Komunitatearen inguruan landutako kontzeptuei esker, muga geografikoez gain harreman sozialek zein identitate-erreferenteek ere herria mugatzen dutela ezagutu dugu. Era berean, offline eta online espazioen uztarketak hirugarren espazio bat sortzen dutela ikusi dugu: *territorio* moduan izendatu duguna. Honengatik guztiagatik herri digitala kontzeptua kontuan hartzekoa dela deitzot.

Beste alde batetik, herri digitala mapa eta hodeia uztartzen dituen *territorio* moduaz gain, Alejandro Piscitelli (2005) jarraituz, «*Internet XXI. mendeko inprenta*» gisa irudikatuz ere azaldu daiteke. Benedict Andersonek (1993) aztertu bezala, inprenta *nazio bateko* kideak biltzeko tresna garrantzitsuena izan zen, egun Internetek betetzen duen funtzioa. Are gehiago, Internet tresna izateaz gain espazioa ere badeenez, *herri ezberdinetako* kideak elkarrekin bizi dira. *Herri ezberdinetako egunkariaren web orrialdeak* aurki ditzakegu Interneten, eta beraz, herri bereko kideak hurbiltzeaz gain, herri ezberdinak biltzen dituela esan daiteke ere. Facebooken zentratuta, inprentaren kasuan bezala, elkar ezagutzen ez duten kideak batzen dituen tresna eta espazioa da hau. Aurretiaz Ostebik esan bezala, kolektibo hauetako kideek ez dute elkar ezagutzen eta ez dute elkarren berri eta, hori dela eta, Facebook herri bereko kideak biltzen dituen tresna eta espazioa dela esan daiteke.

Euskal Herria: lurraldetik, territoriora

Facebooken sortzen den *territorio* horretan, Euskal Herritik kanpo zein barnean dauden biztanleek komunitate imajinatu berak konpartitzen dituztela ikusi dugu. Julenek azaltzen duen moduan, Facebooken hirugarren espazio bat habitatzen da: «*ni hemen nago eta orain bizitzen nauena hemen gertatzen ari da, Facebooken eta Australia bitartean dago eta bertan nire aldaketa pertsonalak islatzen dira euskal identitatearekiko*» (2012).

Bizipen horiek eta herri ezberdinetako baldintzen araberrako euskal identitatearen eraikuntza ezberdinak «*Facebooken eta Australia bitartean*» edota Facebooken eta Euskal Herria bitartean gauzatzen ari dira: Euskal Herri barruan zein kanpoan dauden gazteek *territorio* bera partekatzen baitute. Honengatik guztiagatik, Euskal Herriaren mugak azterterako orduan (muga geografikoak eta sinbolikoak kontuan izanik),

lurralde noziotik herri digitalak mugatzen duen territoriora igaro behar garela deritzot. Izan ere, munduan zehar sakabanatuta zeuden «Erasmus» taldeko kideen euskal identitatearen eraikuntza ezberdinak (herriaren arabera, eragin ezberdinak jasotzen zituztelako) Facebooken aurkitzen ziren. Hori dela eta, herri baten mugak harreman sozialek ere ezartzen dituzten heinean, *mapa* eta *hodeia* artean kokatzen diren harreman hauek herri digitalaren territorioa osatzen dutela esan daiteke.

Ildo beretik, Joseba Sarrionandiaren (1991) ekarpena gogoratuz, territorio kontzeptua nazio-identitatearen eraikuntza Interneten zelan eraikitzen den azaltzeko zentzu bikoitzean da lagungarria. Berak landutako territorioaren ideia Interneten (bidez) osatzen den Euskal Herriko herri digitalerako ere baliagarri zaigu. Kartzelan bezala, espazio onlinean ere etengabeko kontrola dago sistemaren aldetik (danah boydek «panoptiko digitala» deritzona) baina euskararen bidez, eta orokorrean euskal identitate-erreferenteen bidez, Internet euskal identitatearen eraikuntzarako espazio pribilegiatua bilaka daiteke (William Duttonek «bosgarren indar faktikoa» deritzona), territorio libreak sortuz.

Ondorioz, territorio kontzeptuak, batetik, espazio geografikoaz gain harreman sozial eta sinboloen arabera mugatutako espazioa azaltzen laguntzen digu eta, bestetik, kontrolpeko espazio batetik gune propioak sortzeko eta habitatzeko modua ezagutzeko balio digu baita. Azkenik, proposamen hauek guztiak kontuan izanik eta aurreko ideia bat berreskuratuz, Facebook euskal identitatearen eraikuntzarako espazio ez seguru baina pribilegiatua dela indartzen da. Ideia honek liburuaren hasierara eramaten gaitu, ondorioekin hasteko abiapuntura.

8. Ondorioak: galdera berriak espazio berrietan galdera eta erantzun berriak sortzeko

«Esta historia empieza en un final feliz.
Esta historia no tenía que ocurrir»

(*Standstill*, Hay que parar,
<http://www.youtube.com/watch?v=J2Trpii5SBw>)

Bukaerara heldu gara. Baina bukaerak hasiera berriak direnez, berriro ere liburua hastera goaz. Erantzun automatikoak ematen diren garai batean bizi gara, bai gizarte mailan eta bai akademian. Etengabeko aldatetan dagoen gaur egungo gizarte konplexuak, ordea, bestelako jarrerara eskatzen du: hausnarketa, patxada, lasaitasuna eta, erantzun automatikoak eman beharrean, galdera egokiak emateko gai izango den begirada. Ez da lan erraza erritmoa aldatzea eta, are gutxiago, akademia bezalako testuinguru batean zeinetan etengabeko produkzio-zienfikoa eskatzen den edukiari baino, lana bukatuta egoteari, formatuari eta itxurakeriari garrantzi gehiago emanaz.

Standstill musika taldeak dioten moduan «*istorio hau bukaera zoriontsu batekin hasten da*». Internet bezalako gai ez oso ezagunetan, etnografia digitala bezalako metodologia berrietan eta euskal identitatearen eraikuntza bezalako galdera ez oso ikertuetan murgildu gara, galdu gara baina bukaeran ez dugu begirada galdu eta galdera berriak egiteko gogoak bizirik mantendu ditugu. Zoriontsua ere bada azken le-roa hauek kritika bat izan beharrean autokritika direlako: musika talde

berarekin jarraituz, «*istorio hau ez zen gertatu behar*». Ez orain behintzat; ez hain gazte.

Hona, beraz, hasierara bueltatuz, Doktorego Tesiaren laburpena den liburu honetan plazaratu dezakedan lehen ondorioa: «*oraindik ez zarenan zutitu bizitzeko, alferrikakoa da esertzea idazteko*». Beraz, azken orri hauek idatzi bezain pronto segituan altxatu beharko naiz ikerketa berriak hasi ahal izateko: altxatu, apur bat gehiago bizi-ikertu-ezagutu eta, ondoren, zerbait kontatzeko badut berriro ere eseri. Bien bitartean, hauek dira euskal identitatearen eraikuntza Facebooken zelan egiten den etnografia digitalaren bidez aztertu ostean ondorioztatutako hainbat ideia.

Euskal identitatearen eraikuntzaren dimentsioak eta logikak

Internet eta Facebook nazioartean dituzten erabilera askotarikoak direla medio, definitu ezin daitezkeen ikerketa-espazioak direla jakiteko aukera izan dugu, hauek praktika sozialen arabera definitu behar baitira. Abiapuntu horretatik, gazteek etnografia digitalaren bidez espazio zein tresna hau nola erabiltzen eta habitatzen duten deskribatu ahal izan dut. Online sare sozialek Euskal Herrian dituzten erabilera posibleak gazteen bidez ezagutu eta interpretatu ditut: haiei galdetuz eta ez «Online sare sozialak erabiltzeko gida» bezalako liburuetan egiten duten moduan haiei erantzunez. Gazteak ikerketa-subjektua izan dira eta ez ikerketa-objektua.

Facebook, arkitektura jakin bat duen enpresa pribatu baten espazioa eta eragin estruktural jakin bat ezartzen duen sistema dela esan daiteke. Euskal gazteek egoteko eta elkar aurkitzeko espazio bat sortu dute, harremanak garatzeko eta euskal identitatea hipertestuz eraikitzeko (idatziz, irudiz zein talde atsegiteen bidez). Konexio orduak azterterakoan, gazteen artean aldaketa nabarmenak ikusi ditut 2010-2013 urteen tartean. Internet konexioa soilik ordenagailuen bidez egiten zen garai batean gazteek batez ere arratsaldeetan eta etxetik konektatzen zirela adierazi dute: eskola edota lan orduak bukatu ostean, alegia. Gaur egun, ordea, telefono mugikorretan Internet konexioa egonda, gazteek etengabe konektatuta daudela azaldu dute: gazte hauek ere konektatuta bizi dira.

Etengabe konektatuta egotean, gazteek Facebooken (bidez) eraikitzen duten euskal identitatea birtuala, berria edota faltsua ez dela argitu dute. Facebooken, eragin estruktural eta sistemiko baten pean gazteek euskal identitate-erreferenteak partekatzen eta euskal identitatea eraikitzen aukera dute. Beraz, espazio onlinean aurkitzen dugun euskal identitatea, offlinearen isla baino haratago doan eraikuntza da.

Identitate-erreferenteei dagokienez, ikerketan parte hartu duten euskal gazteek Facebooken (bidez) nagusiki dimentsio sozialarekin lotuta dauden elementuak partekatzen dituztela azaldu dute: gazteek euskal identitatea kultura, kirol edota paisaiaren (lurraldetasunarekin lotuta) inguruko sinboloak partekatuz eraikitzen dute. Horrela, euskal identitatea Facebooken (bidez) eraikitzeko praktika eta diskurtoetan oinarrituz, tipo ideal militantea ezagutu dugun arren, ikerketan parte hartu duten gazteen arabera online sare sozial honetan dimentsio politikoa (zentzu tradizionalen ulertuta) sozialarekin alderatuz bigarren plano batean dago. Ildo beretik, euskarak duen garrantzia azpimarratu beharra dago, izan ere, aberrian dauden gazteez gain atzerrietan dauden zenbait gaztek euskal identitatea erreferente honen arabera eraikitzen dute.

Orokorrean, euskal identitatearen eraikuntzaren dimentsioak eta logikak ikertu zuten azken garaitik (xx. mende bukaeratik) aldaketa nabarmenak jazo dira. Abiapuntu gisa aurreko teoriak kontuan izanik, ikerketa gizartetik bereizia dagoen sistema politiko instituzionalizatu baten euskal gizartearen iruditik hasi dut. Aurreko hamarkadan erakunde politikoek zuten euskal identitatea eraikitzeko monopolioa, baina egun, gizarteak garrantzia hartzen doala ikusi dugu. Ikerketan parte hartu duten gazteek, erakunde politikoetatik ezartzen zaien euskal identitatearen ulertzeko eraz gain, identitate hau sentitzeko, ulertzeko, definitzeko eta eraikitzeko modu ezberdinak dituztela adierazi dute: argi utzi dute nekatuta daudela euskal identitatea *zer den* definitzeaz. Habitus gisara inkorporatuta duten identitatea da hau eta, horregatik, inguruko beste nazio-identitateetako (espainola edota frantziarra kasu) kideen antzera, ez dute definitzeko beharrik: Facebookeko kasuan ikusi bezala, egunerokotasunean sentitu, bizi eta eraikitzen duten identitatea baita euskal identitatea.

Euskal identitatearen eraikuntzaren espazioak eta agenteak

Facebook enpresa pribatu bat den heinean, espazio pribatu bat da: erabiltzaileak espazio horretan sartu ahal izateko erregistratu eta kontratu bat sinatu behar baitu. Enpresa pribatu honek bere erabiltzaileen (langileen akaso? Enpresa aurrera ateratzen duten pertsonak baitira kide hauek) datuak erabiltzeko eta publiko egiteko aukera ere badu. Gazteak, batetik, kontziente dira printzipioz pribatua den espazio hau publikoa ere badela. Bigarrenik, plano sozial batean, espazio publikoan (kalean edota plazan) aurkitzen ez duten guztiak dute espazio pribatu horretan: hitz egiteko, elkar aurkitzeko, haien gustuko edukiak partekatzeko eta, noski, euskal identitatea eraikitzeko aukera baitute. Azkenik,

gazteek Facebook espazio intimo moduan bizitzeko eta erabiltzeko joera dute: sistemak eskaintzen duen pribatutasun aukerez baliatuz hainbat eduki zenbait lagunekin (ez) partekatu eta haien profil propioa osatu ahal dutelako.

Beraz, ikerketan parte hartu duten gazteen testigantzetan oinarrituz, Facebook euskal identitatea eraikitzeko espazio pribilegiatua dela ondoriozta daiteke. William Duttonen (2009) proposamena gure gizartera ekarriaz, Euskal Herrian ere Internet gizartera biltzeko, antolatzeko eta plano desberdinetan jarduteko espazioa da. Euskal gazte hauen ustez, Facebook lagunekin *egoteko* eta *egiteko* espazio ezin hobea da: espazio pribatu hau harreman sozialak izateko eta euskal identitatea eraikitzeko gune pribilegiatua da.

Honekin, batetik, ez dut esan nahi espazio publikoan (kalean edota plazan) gazteen presentzia ez dagoenik edota euskal identitatea eraikitzeko aukera ez dagoenik eta, bestetik, ez dut Internet eta Facebook espazio askeak direnik proposatu nahi. Lehenik eta behin, espazio onlinea eta offlinea elkar bizi dira eta, beraz, espazio publiko offlinea eta espazio pribatu onlinea bana ezinak direlako. Bigarrenik, IKTeK arkitektura jakin bat ezartzen duten sistemak ere badirelako: panoptiko digitalaren (boyd, 2002) ideia jarraituz, gazteek online sare sozial horretan dagoen kontrol soziala, eta, zehazki, estatu espainol eta frantsesaren kontrola lehen pertsonan bizi dutelako. Gazteek propiotzat sentitu eta euskal identitatea eraikitzeko espazio pribilegiatua izan arren, sistemaren mugez kontziente dira. Are gehiago, ustez kontraesana izan daitekeen kontrolpeko espazio batean territorio propioak osatzearen ideia, Joseba Sarrionandiak (2011) kartzelatik idatzitako *Territorio librea* olerkiaren bidez hobeto ulertu dugu: bi kasuetan, kartzelan zein Facebooken, behatuta egon arren euskal identitate-erreferenteak partekatuz territorio propioak sor daitezkeelako.

Ondorioz, ikerketan parte hartu duten gazteen iritzia jarraituz, Facebook euskal identitatea eraikitzeko espazio pribilegiatua baina ez segurua izatearen hipotesia kontrastatu dugu eta, beraz, gaur egungo eredu aurreko hamarkadetako euskal identitatearen eraikuntza-ereduekin aldera dezakegu orain. Aurreko lan teorikoei esker (Pérez-Agote, 1984 eta Martínez de Albéniz, 2003) frankismoan etxea bezalako espazio pribatuak euskal identitatearen eraikuntza sozialerako espazio pribilegiatuak eta seguruak zirela ezagutu dugu. Hori dela eta, Facebookek gaur egun osatzen duen espazio pribatua, ordea, pribilegiatua bai baina seguru ez dela esan daiteke.

Era berean, espazio pribatuaren izaeraren aldaketek honekiko egi ten diren erabilera sozialak aldatzea eragin duela ondoriozta daiteke baita ere. Frankismoan etxeko espazio pribatu segurutik kale eta plaze-

tako espazio publikoa konkistatu nahi zen bitartean, egun, gazteek Facebookeko espazio pribatu ez segurutik espazio pribatua bereganatzea dute helburu nagusia eta ez espazio pribatu horretatik abiatuz espazio publikoa estrategikoki konkistatzea. Horregatik, estrategia kontzeptua beharrez taktika (De Certau, 1996) kontzeptuak garrantzia hartu duela deritzot: gazteek Facebookeko sistemaren (*Haiek*-en) baliabideak bereganatuz arrotz duten espazio bat propio bihurtzen dutelako.

Azkenik, gazteek Facebooken (bidez) euskal identitatea nola erakitzen duten ikertuz, talde identitatearen eraikuntzan klasikoki aztertu diren *Gu-Gu* (komunitateko kideek erakitzen duten identitatea) eta «identitate negatiboaz» gain (*Gu-Haiek: Haiek*-etatik berezituz *Gu*-aren identitatearen eraikuntza eredia) beste agente bat agertu da.

Haiek-Gu eredia aurkitu dugu Facebooken: kanpoko komunitateek barneko komunitatea eta identitatearen eraikuntza baldintzatu eta zenbait kasutan eraiki ahal dituzteneko eredia, hain zuzen ere. Are gehiago, espazio eta tresna honek duen arkitekturak nazio-identitatearen eraikuntza mota batzuk ezartzen dituela ere ikusi dugu. Besteak beste, ikerketa honetan zehar estatuak Interneten duten eragina eta esku-hartzea agerian geratu dira. Facebooken euskal herritar moduan erregistratzeko ezintasuna edota gazteek euskal identitatearen zenbait gai jorratzerako orduan dituzten beldurrak eta mugak ezagututa, estatu espainol zein frantsesak online munduan gauzatzen den euskal identitatearen eraikuntza sozialean duten eragin estrukturala agerian geratu da. Horregatik ere, abstrakzio ariketa bat eginaz, balizko euskal estatu batek euskal identitatearen eraikuntza sozial onlinean izan ditzakeen onurez aritu naiz.

Euskal estatu da erantzuna eta zelan erakitzen da euskal identitatea da galdera

Lehenik eta behin, euskal identitatea ulertzeko eta aztertzerako orduan honen inguruko ikuspegi anitzak kontuan izan behar ditugu. Maiz euskal identitateaz hitz egitean, besteak beste, plano ideologikoa, soziala, soziologikoa eta politikoa nahasten dira. Plano pertsonal edota ideologiko batetik hasten gara euskal identitatea pentsatzen eta honen inguruan mintzatzen. Kasu honetan, Doktorego Tesiaren leitmotiva izan da. Euskal identitatea zein Euskal Herria zer izatea nahiko genukeenaren plano hori, ordea, ezin dugu gainontzeko planoetara estrapolatu: nahi horrek ikuspegi soziologikoa itsutu dezake eta hiru milioi herritarrek gure iritzi bera dutela pentsatzera eta inposatzera eraman gaitzake.

Horregatik, ikerketari esker plano sozialean euskal identitateari erantzun anitz ematen zaizkiola ezagutu dugu, baina erantzun hauek

ezin dira analisi soziologikoak bailiren tratatu. Ondorioz, batetik, liburu honen ikuspegi soziologikotik, sozialki ematen diren definizio anitz edota euskal herritarra «Euskal Herrian bizi eta lan» egiten duen pertsona bezala ulertzen duten alderdi politikoaren erantzunak ezin ditugu kritikatu: beste logika eta helburu batzuekin emandako erantzunak baitira. Bestetik, euskal identitatea soziologikoki aztertzerako orduan emaitza mamitsuak lortzeko formulatu beharreko ikerketa-galdera birdefinitu behar dugu: euskal identitatea *zer* den ikerketa-galderatik, *zelan* eraikitzen denera igaroz.

Arazoa, ordea, zenbait proposamenek (Gatti eta Martínez de Albéniz, 2006) egin bezala, bi ikerketa-galderen planoak eta erantzunak nahastean aurkitu dugu: *zelan eraikitzen da*, *zer da* galderaren erantzuna bezala ulertzean, hain zuzen ere. Gizartean egiten diren praktika sozialen azterketa soilarekin identitatea teorikoki zentzuz betetzea ezinezkoa dela deritzot. Soziologikoki identitate jakin bat ezin da praktika multzo bat bailitzan definitu. Hala eginez gero, identitatea *zer den* ikuspegi esentzialista gainditzea bilatzen duen konstruktibismoa, «konstruktibismo esentzializatua» bilakatuko litzateke: ikuspegi honek identitatearen *esentzia* bat onartu eta hau *praktiken bitartez definitzen* baitu.

Euskal identitatea ez da *lortzen* ahal dugun zerbait, besteak beste, euskara bezalako nazio-identitate-erreferente bat eskuratuz. Euskal identitatea ez da *mantendu* behar den zerbait, inguruko zein etorkizuneko «mehatxuen» aurrean. Euskal identitatea ez da zerbait *estatikoa*, urteak pasa ahala moldatu ez dena. Euskal identitateak ez du *esentzia erreala* bat, hori lortu, mantendu eta urteetan zehar estatiko zaindu beharrekoa. Hori dela eta, euskal identitatea «garatzen» edo «birproduzitzen» ez dela defendatu dut liburuan zehar eta euskal identitatea dimentsio askotatik «eraikitzen» den nazio-identitatea dela proposatu. Gazteek euskal identitatearen inguruan dituzten definizio, diskurtso eta praktikei esker euskal identitatea *originalik gabeko kopia* dela ondoriozta daiteke: euskal identitatearen «benetakotasun» edota «purutasunaren» ideia plano akademikotik baztertu behar dugu, beraz.

Beste era batera esanda, gaur egun sozialki irudikatzen den euskal identitatearen nukleo esentzial hori edota «erreala» den euskal identitate hori inoiz ez da irudikatutako moduan izan(go): orainalditik iragana birdefinitzen da eta euskal identitatea zer zen hitzez hitz definitu ezinean errealtate hori moldatzen da. Historian zehar tradizioa ezin daiteke bere horretan «puru» mantendu inongo aldaketarik izan gabe, eta beraz, «benetako» euskal identitatea erreproduzitzeko gauzatzen diren praktikek berau transformatzen eta traizionatzen dute. Erreproduzizioa ezin da inoiz aurkezpen gardenena izan, honek beti aldaketaren bat eragiten baitu.

Egungo euskal gizarteak urteak eta urteak daramatza iraganekoa ikusi gabe, eta euskal identitatea horren arabera eraikitzen saiatzen bada ere, eraikuntza horrek natura edota esentziarekiko beste lege edo logika batzuk ditu: orain imajinatu eta irudikatzen dugun euskal identitate tradizionala, purua, erreala edo benetakoa ez da inoiz existitu; inoiz ez da izan eta inoiz ez da nukleo esentzial horretaz bete egon. Hori dela eta, nazio-identitatea inoiz izan ez zenaren gainean eraikitzen delako, soziologikoki euskal identitatea originalik gabeko kopia bezala uler daiteke: etengabeko eraikuntzan egoteagatik nukleo esentzial, benetako edota pururik ez duelako.

Beste alde batetik, xx. mendea ia bukatu arte euskal identitatea indartzeko asmoz euskal identitatea *zer da* erantzunez berau *eraiki* nahi izan duten ekarpenen ostean eta azken hamarkadetan euskal identitatea *zelan eraikitzen* da erantzunez *deseraiki* duten ekarpenen ostean, egungo garai historikoa, politikoa, soziala eta akademikoa dela eta, euskal identitatea teorikoki *berreraikiko* duen ekarpena behar da.

Kanpotik, espainiar zein frantziar estuetatik, euskal identitatea *zer da* ikerketa-galderaren bidez kuestionatua zen garai soziopolitiko batean, hau indartzeko asmoz korronte teoriko eraikitzaile bat ikusi dugu. Barneko jakin-mina eta kanpoko kuestionamenduak medio, euskal identitatea gorpuzteko eta legitimatzeko behar teoriko bat izan zuten teorilari hauek eta, garaian garaiko egoerari moldatuz, *zer da euskal identitatea* galderari maila makro batetik erantzun landuak eman zizkioten. Hori dela eta, euskal identitatea indartzeko asmoagatik, korronte hau eraikitzaile bezala izendatu dut.

Ikerketa-galdera honek, ordea, maila teoriko batean erantzun zuzenik ez duela ezagutu dugu (Hall, 2003 eta Butler 2002, 2007) eta, gainera, geroz eta esanahi gehiagoz betetzean esangura galtzen duela ezagutu dugu ere (Laclau, 1996). Horregatik, 90eko hamarkada inguruan euskal identitatea *zelan eraikitzen da* erantzunez euskal identitatea akademikoki deseraikitzen duen korrontea agertzen da. Autore hauek euskal identitatearen mekanismoak aztertzen dituzte soilik, batetik, maila politiko zein teoriko batean kuestionatua den euskal identitatea akademiatik ahulduz, bestetik, estatua duten nazio-identitateekin alderatu gabe erantzun teoriko partzialak lortuz eta, azkenik, euskal identitatea soilik dimentsio politiko batetik aztertuz. Honengatik guztiagatik, ekarpen hauek teorikoki euskal identitatea deseraikitzen zuten proposamenak dira.

Liburu honetan, eta berriro ere aurreko ekarpenetan oinarritutako proposamena dela azpimarratuz eta eskertuz, euskal identitatea gainontzeko identitate-eredu zein nazio-identitateak bezala, soziologikoki definiezina dela ikusi dugu. Modu honetan, euskal identitatea deseraiki-

kitzen duen korrontearen *zelan eraikitzen da* euskal identitatea ikerketa-galdera, korronte eraikitzaileak euskal identitatea indartzeko duen asmo akademikoari lotuz, euskal identitatea berreraikiko duen proposamena beharrezkoa da. Hau da, beste ikerlari batzuek proposatu bezala (Peris, 2008), ikerketa-objektua bere osotasunean kolokan jarri beharra dagoela deritzot eta maila akademiko batean euskal zein espainiar edota frantses identitateak parez pare jarri.

Beraz, plano soziologikotik gizarte-praktika eta diskurtsoak aztertu behar ditugu, hauek definizio soziologiko bat baino, plano sozial batean kidetasun sentimendu bat eragiten dutela jakinik. Ikerketan parte hartu duten gazteek euskal identitatea definitzeaz nekatuta daude, *zer da euskal identitatea* erantzuteaz nekatuta daude: euskal identitatea kolektibo anitzen bidez bizi, sentitu eta eraikitzea besterik ez dute nahi. Hori dela eta, euskal identitatearen definizioan eta subjektuan edota nazionalistan erreparatu beharrean, euskal identitatea *zelan eraikitzen da* erantzuteko euskal biztanleriaren gizarte-praktiketan eta diskurtsoetan zentratu behar dugu.

Ikerketan parte hartu duten gazteek euskal identitatea sozialki *izate* bat bezala definitu eta ulertzetik urrun daude, izan ere, euskal identitatearen *egite* anitzei garrantzi handiagoa ematen diote. Euskal identitatea aztertzeke, beraz, soziologikoki beste perspektiba bat beharrezkoa dugu, Facebookeko kasuari esker ezagutu bezala, besteak beste, testuinguruak eta aurrean dauden pertsonak edota kolektiboak kontuan hartuko dituen.

Nork-Nori-Non: subjektu erreflexiboak egunerokotasunean eraikitzen duen euskal identitatea ulertzeko modua

Liburuan zehar ikusi dugun identitatearen izaera erreflexiboa, erlaziozkoa eta testuingurukoa «*Nork-Nori-Non*» hitz jokoaren baitan aurkez daiteke —beste artikulua batzuetan sakondu dudana ekarpena (Díaz, 2015b). Facebooken (bidez) gazteek eraikitzen duten euskal identitatearen ikerketari esker, euskal identitatearen eraikuntza *nork* eraikitzen duen, *norekin* edota zerekin egiten duen eta zein testuingurutan kokatzen den edota *non* ematen den baldintzatzen dutela ondoriozta dezakegu.

Ekarpen honen bidez, ordea, ez da euskal identitate indibidualizatu, pertsonalizatu edo psikologizista baten molderik defendatu nahi. Horren ordez, eragin sozio-historiko-estruturala eta alor kontingentea, dinamikoa, erlaziozkoa eta testuingurukoa kontuan izanik, praktiketan eta uneetan oinarritzen den euskal identitatearen analisi bat bultzatu

nahi dut. *Nork-Nori-Non* ideia jarraiki, planteamendu honen gakoa euskal identitatea definitzean eta *izatean* baino, euskal identitatea eta komunitatea *egitean* datzala deritzot, euskal identitatea zer erreferenteren negoziaketaren bitartez eta zer praktikaren bitartez eraikitzen den identifikatuko baita horrela.

Izate batetik *egite* batera pasatzeko erabilgarria izan daitekeen *Nork-Nori-Non* tresna proposatzeaz gain, euskal identitatea gainontzeko identitateekin erlatibizatu beharra dagoela azpimarratu nahi dut. Euskal identitatea erreflexiboa den *nork* batek eraikitzen du, identitate desberdinez osatuta dagoen subjektu horrek, uanean une (*non*) eta aurrean duen pertsonaren arabera (*nori*) bestelako identitate bat lehenetsi eta eraiki dezakeelarik: hiru elementu horien arabera edo *Nork-Nori-Non* horren arabera, besteak beste, nazio-identitatea, genero-identitatea, sexuala edota langile identitatea lehenetsiko duelarik. «Euskaldun» kontzeptutik «euskal herritarra» kontzeptura igaroz, inor ez da soilik euskalduna, adibidez, nire kasuan euskalduna, zuria, mutila... naiz. Horregatik, euskal identitatearen inguruko ikerketa ezin da ulertu bestelako identitate-ereduak kontutan hartu gabe, eta horregatik, herritartasunaren ideia egokiagoa da.

Hiru elementuak aztertuz, batetik, liburuan zehar argi ikusi dugu subjektuaren erreflexibotasuna (*nork*) gazteek Facebook baliatuz haien espazio propioa bihurtzeko duten gaitasunarekin eta euskal identitatea eraikitzeko espazio pribilegiatua bilakatzeko duten gaitasunarekin. Bestetik, gazteek euskal identitatearen alde erlazionala (*nori*) agerian utzi dute Facebooken (bidez) partekatzen dituzten eduki zein nazio-identitate-erreferenteak ezberdinak direla azpimarratzean: euskal identitatea egunerokotasuneko praktiken bidez eraikiz, zenbait lagunekin euskaraz aritzen direlarik eta beste batzuekin, adibidez, harremanak kirolaren edota lurraldetasunaren bidez sendotzen dituztelarik. Azkenik, atzerrian epe motz baterako dauden gazteen bidez testuinguruak (*non*) duen garrantzia ezagutzeko aukera izan dugu: gazteek, batetik, aurrez aurre edota online harremanen bidez eraikitzen duten euskal identitatea zeharo ezberdina delako eta, bestetik, Euskal Herrian edota atzerrietan egotean lekuan lekuko eragin estrukturalak eta bizipenak ezberdinak direlako.

Euskal Herria irudikatzen moduak

Etnografia digitalaren bidez ezagututakoaren arabera, Facebooken aurkitutako taldetasun ereduak aurrez aurrekoa baino lausoagoa dela ondoriozta daiteke. Horregatik, Facebookeko taldeek euskal identita-

tea modu lausoago batean eraikitzeo aukera ematen dute, izan ere, euskal identitatearen taldeen parte izateko (eta hortik ateratzeko) igaro beharreko erritu bakarra «atsegin dut» botoia sakatzea da: taldetasunaren eta orokorrean euskal sentimendu kolektiboaren ulerkuntza malguago bat ematen duen praktika.

Orokorrean, beraz, ikerketa honetan zehar Facebook bidezko gazteen arteko harreman eta taldeak miatuz, egungo gizartean euskal identitatea eraikitzeo beste modu bat aurkitu dugu: online sare sozial honetan plano sozial zein kulturalerako talde mota asko (kirolarekin, musikarekin edota aisialdiarekin zerikusia dutenak) egoteaz gain, maiz, euskal identitatea modu banal zein umoristiko batean ulertzen duten taldeak ere aurkitu ditugu. Ondorioz, gazteek Facebooken (bidez) partekatzen dituzten euskal identitate-erreferenteak eta komunitatearen talde gehienak plano sozialekoak izanda, Manuel Castellsek (2006) Kataluniaren inguruan egindako proposamena Euskal Herrira ekarriaz, nazioa etorkizunean eskuratu beharreko ideia politikoa baino, gazteek Facebooken egunerokotasunean bizi eta eraikitzen den sentimendu moduan ulertzen dutela esan daiteke.

Taldetasunari dagokionez, euskal komunitate beraren baitan kolektibo ezberdinak aurkitu ditugun heinean, euskal komunitatearen baitan kolektibitate anitz daudela ondoriozta daiteke. Modu honetan, Facebookeko kasu zehatzari esker euskal komunitatea homogeneoa ez dela ezagutu dugu, honen baitan nazio-identitate-erreferente ezberdinak ardatz dituzten kolektibitate anitz baitaude. Garai batean zenbait teoriarik euskal komunitatea biltzen zuen dosel sakratu (Gurruchaga, 1990) batez hitz egiten bazuten ere, egun, euskal gizartean dagoen konplexutasunak bestelako erantzun posible batzuk bilatzea eskatzen du. Euskal identitatea modu bakar batean soziologikoki definitzen zein sozialki eraikitzen ez denez, ezin da identifikatu komunitatearen barnean dauden kide guztiek duten elementu komun bakarra zein den. Euskal identitatea soziologikoki *zer da* ezin definitu izateak *Gu* (komunitatea edo herria) bakar eta homogeneo bat egotea ukatu egiten du: gizarteak euskal identitatearen eraikuntzan negoziatzen dituen erreferenteak anitz izanik, kideak herri beraren baitan antolatzeo kolektiboak ere anitz baitira.

Azkenik, harreman sozio-teknologikoak indartzen ari diren garai honetan non harreman online eta offlineak uztartzen diren, komunitateak eta herriak bestelako mugak dituztela ondoriozta daiteke. Internet tresna izateaz gain espazioa ere bada, are gehiago, online eta offline espazioak kontuan hartzen dituen hiperespazioa (Gómez, 2002) da. Etnografia digitalaren bidez atzerrian dauden gazteek euskal identitatea nola eraikitzen duten ezagututa, diasporan euskal identitatea erai-

kitzeko beharrezkoa den lurraldea gainditzen zela ohartu nintzen: atzerrien eta aberriaren arteko mugak desitxuratzen zirela sentiarazi zidan. Joseba Kamiori (2012) esker nazio digitala kontzeptua ezagutu nuen eta modu honetan hain gai konplexu eta iluna argia hartzen joan zen. Termino honekin, Internet garaian nazio-identitatea eraikitzekeo lurralde geografikoa determinantea ez dela lantzen hasi nintzen, egun, nazio-identitatea estatua, nazioa edota diasporaren leku geografikoa ez den beste espazio batean eraiki baitaiteke, *hodeian*, hain zuzen ere.

Horrela, *maparen* ikuspegitik Euskal Herriak dituen muga geografikoei, *hodeiaren* dimentsioko muga ez geografikoak eta bi espazio hauen artean dauden hartu emanak gehitu beharko lirakeela deritzot: harreman sozialek, euskal identitatearen eraikuntza sozialek eta euskal identitate-erreferenteek mugatzen duten *territorioa*, hain zuzen ere. Egungo gizartean euskal identitatea leku geografikotik kanpo eraikitzekeo aukera ere badagoela konprobatuta, herri digitalaz aritu naiz.

Ondorioz, Euskal Herriaren mugen inguruko egungo argazkia egi-terako orduan, *territorio* kontzeptu antropologikoak eremu hori leku geografikoa soilik identifikatzen duen lurraldeak baino hobeto irudikatzen duela deritzot. Izan ere, Internet bidezko praktikek erakusten duten moduan, Euskal Herria muga geografiko eta harreman instituzionalek zedarritzeaz gain, erlazio sozial eta sinbolikoek ere zedarritzen dute. Offline eta online harreman hauen bidez mugatzen den *territorioa* identifikatzea izango da aurrera begira mahai gainean dagoen erroka teoriko nagusienetarikoa: Internet garaian, estatu espainol eta frantsesa gaindituz, euskal gizarteak sortzen duen Euskal Herria marraztea.

Bibliografia

- Agirre, L., 2010, «Solido, likido, zirin», *Berria* egunkarian. http://www.berria.eus/paperekoa/1831/040/005/2010-12-24/solido_likido_zirin.htm [2016eko abuztuaren 15ean aurkituta]
- , 2015, *Korrika 19*. testua. <http://www.argia.eus/albistea/korrikako-lekukoan-eskuz-esku-euskal-herria-zeharkatu-duen-mezua-bagara-nor>
- Agirre, L., eta Eskisabel, I., 2016, «Euskalgintza eta feminismoa. Identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, boteretze kolektiboa bultzatu eta subalternitate eraldatzaile unibertsalak eraikitzeko proposamen bat», *Bat* aldizkarian, 98. zenbakia, 11-22 orriak.
- Amezaga, J., 1995, *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*, UPV-EHU zerbitzu editoriala, Leioa.
- Anderson, B., 1993, *Comunidades imaginadas: reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de cultura económica, Mexiko.
- Antza, M., 2000, *Ospitalekoak*, Susa, Zarautz.
- , 2012, *Atzerri*, Susa, Zarautz.
- Ardèvol, E. eta San Cornelio, G., 2007, «Si quieres vernos en acción Youtube.com. Prácticas mediáticas y auto producción en Internet», *Revista Chilena de Antropología visual* aldizkarian, 10. zenbakia, 1-29 orriak.
- Auge, M., 2004, *Los no lugares, un espacio del anonimato. Una antropología de la sobre modernidad*, Gedisa, Bartzelona.
- Azurmendi, J., 1992, «Esencia y esencialismo: análisis de un concepto. Notas para una relectura de Herder». Xabier Palacios (Arg.), *Ética y nacionalismo*, Nacionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz. 163-220 Orriak.
- Barandiaran, J.M., 1974, *Euskalerriko leen-gizona*, Obras completas (XI). La gran enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Bauman, Z., 2003, *Modernidad líquida*, Fondo de cultura económico, Mexiko.
- Beck, U., 2006, *La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad*, Paidós, Bartzelona.
- Beck, U. eta Beck-Gernsheim, E., 2003, *La individualización*, Paidós, Bartzelona.
- Bell, D., 1991, *El advenimiento de la sociedad post-industrial: un intento de prognosis social*, Alianza, Madril.

- Bourdieu, P., 1988, *La distinction: criterios y bases sociales del gusto*, Taurus, Madrid.
- boyd, d., 2002, *Faceted Id/entity: Managing Representation in a Digital World*, MA: MIT Master's Thesis, Cambridge.
- boyd, d. eta Elison, N., 2007, «Social Network Sites: Definition, History, and scholarship», *Journal of computer-mediated communication* aldizkarian, 13. Alea 1. Zenbakia, 210-230 orriak.
- Butler, J., 1998, «Actos performativos y constitución del género: un ensayo sobre fenomenología y teoría feminista», *Debate feminista* aldizkarian, 18. Zenbakia, 296-314 orriak.
- , 2002, *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del «sexo»*, Paidós, Buenos Aires.
- , 2007, *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*, Paidós, Bartzelona.
- Campas, J., 2007, *El Hipertexto*, UOC argitalpen zerbitzua, Bartzelona.
- Campión, A., 1985, *El idioma y la libertad de los pueblos*, Obras completas (XV), Mintzoa, Iruñea.
- Cano, H., 2011, *Twist*, Susa, Zarautz.
- Carr, C. T., Ellison, N., Lampe, C., Smock, A., Vitak, J. eta Zube, P., 2011, «It's Complicated: Facebook Users' Political Participation in the 2008 Election», *Cyberpsychology, Behavior & Social Networking* aldizkarian, 14. Alea 3. Zenbakia, 107-114 orriak.
- Castells, M., 1997, *La era de la información: economía, sociedad y cultura*, Alianza, Madrid.
- , 2006, *La sociedad red: una visión global*, Alianza, Madrid.
- , 2012, *Redes de indignación y esperanza: Los movimientos sociales en la era de Internet*, Alianza, Madrid.
- CEIC, 2005, *Hacia una nueva cultura de la identidad y la política: tendencias en la juventud vasca*, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua, Donostia.
- Ciuffoli, C., eta López, G., 2012, *Facebook es el mensaje*, ICRJ futuribles, Buenos Aires.
- Conversi, D., 1997, *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative routes to nationalist mobilisation*, Hurst and Company, Londres.
- Dallaire, C., 2012, *Komunikazio pertsonala*.
- De Certeau, M., 1996, *La invención de lo cotidiano I. Artes de hacer*, Universidad Iberoamericana, Mexiko.
- De Kerckhove, D., 1999, *Inteligencias en conexión: hacia una sociedad de la web*, Gedisa, Bartzelona.
- Del Amo, I., Diaux, J. eta Letamendia, A., 2012, «Nuevas resistencias comunicativas: la rebelión de los ACARP», *Actas IV Congreso Internacional Latina de Comunicación Social —IV CILCS—*, Universidad de La Laguna.
- Deleuze, G. eta Guattari, F., 2000, *Mil mesetas: capitalismo y esquizofrenia*, Pre-Textos, Valentzia.
- Díaz, K., 2009, *La transformación de la cuadrilla como agente espacio regenerador de la identidad colectiva Euskaldun. El caso de la cuadrilla de jóvenes y el casco viejo de Bilbo*, argitaratu gabea.

- , 2011, «Euskal identitatearen garapena online sare sozialen bidez: gazteen praktika sozialak Facebooken», *Gogoia* aldizkarian, 11. Alea, 1. Zenbakia, 61-86 orriak.
- , 2015b, «FaceGUK: la construcción social de la identidad vasca analizada desde la etnografía digital», *Athenea Digital* aldizkarian, 15. Alea, 2. Zenbakia, 275-288 orriak
- Díaz, K. eta Tsavkko, R., 2015b, «Transnacionalismo vasco e Internet: análisis del uso de blogs y Facebook», *Revista científica Guillermo de Ockham* aldizkarian, 13. Alea, 2. Zenbakia, 55-63 orriak.
- Douglass, W., 1990, *Cultura vasca y su diáspora: ensayos teóricos descriptivos*, Baroja, Donostia.
- , 2006, *Global Vasconia: essays on the Basque diaspora*, Center for Basque studies, Reno.
- Durkheim, E., 2003, *Educación y sociología*, Península, Bartzelona.
- Dutton, W., 2009, «The fifth Estate emerging through the network of networks», *Prometheus* aldizkarian, 27. Alea, 1. Zenbakia, 1-15 orriak.
- Echeverría, J., 1999, *Los señores del aire: telépolis y el tercer entorno*, Destino, Madril.
- Engels, F. eta Marx, K., 2005, *El manifiesto comunista*, Turner, Madril.
- Faerman, J., 2010, *Faceboom: el nuevo fenómeno de masas Facebook*, Alienta, Bartzelona.
- Foucault, M., 1984, *Historia de la sexualidad, volumen 2*, Siglo XXI, Madril.
- , 1986, *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Madril.
- Gatti, G. eta Martínez de Albéniz, I., 2006, «La producción de la identidad en la sociedad del conocimiento. Cultura experta e identidad en el País Vasco», *Azkoaga* aldizkarian, 13. zenbakia, 155-160 orriak.
- Gergen, K., 2006, *El yo saturado: dilemas de identidad en el mundo contemporáneo*, Paidós, Bartzelona.
- Giddens, A., 1991, *Modernity and self-identity: self and society in the late modern age*, Polity Press, Cambridge.
- Goia, G., *Txartel bat (des)herrira*, Elkar, Donostia.
- Goffman, E., 1971, *La representación de la persona en su vida cotidiana*, Amorrortu, Buenos Aires.
- , 2006, *Frame analysis. Los marcos de la experiencia*, CIS, Madril.
- Goikoetxea, J., 2013., «Nation and Democracy Building in Contemporary Europe: The Reproduction of the Basque Demos». *Nationalities Papers: The Journal of Nationalism and Ethnicity* aldizkarian, 42(1). zenbakia, 145-164 orriak. Doi:10.1080/00905992.2013.830600.
- Gómez, E., 2002, «Espacio, Ciberespacio e Hiperespacio: Nuevas configuraciones para leer la Comunicación Mediada por Computadora», Iturria: Anuario de Investigación del CONEICC. *Observatorio para la CiberSociedad* artxi-boan eskuragarri <http://www.cibersociedad.net/archivo/articulo.php?art=19>
- Guibernau, M., 2009, *La identidad de las naciones*, Ariel, Bartzelona.
- Gurruchaga, A., 1990, *La refundación del nacionalismo vasco*, UPV-EHU argitalpen zerbitzua, Leioa.

- Hall, S., 2003, «¿Quién necesita identidad?», Autore askoren artean, *Cuestiones de identidad cultural*, Amorrortu, Bartzelona. 13-39 Orriak.
- Jenkins, H., 2008, *Convergence culture: la cultura de la convergencia de los medios de comunicación*, Paidós, Bartzelona.
- Jones, S., 1998, *Cibersociedad 2.0*, UOC argitalpen zerbitzua, Bartzelona.
- Kamio, J., 2012, Komunikazio pertsonala. (oharra: txioa berreskuratu ezin izan denez autorearekin izandako elkarrizketa zitatzen da).
- Kuraia, 2002, «Bidaiatzen» kanta, *Kuraia* diskoan.
- Laclau, E., 1996, *Emancipación y diferencia*, Ariel, Buenos Aires.
- Larrinaga, A., 2012, «Kultura estatu-erakuntzan: estatua proiektu sinboliko gisa», Josu Amezaga Albizu, Mila Amurrio Velez, Iker Iraola Arretxe, Patxi Juaristi Larrinaga, Ane Larrinaga Renteria, Iñaki Martínez de Luna Perez de Arriba, Txoli Mateos Gonzalez, Fito Rodriguez Bornaetxea, Julen Zabalo Bilbao, *Euskal estatuari bidea zabaltzen. Herritartasuna eta kultura*, Ipar He-goia Fundazioa eta UEU, Bilbo. 85-99 Orriak.
- Leoné, S., 2008, *Euskal Herri imajinario baten alde*, Elkar, Donostia.
- Livingstone, S., 2008, «Taking risky opportunities in youthful content creation: teenagers' use of social networking sites for intimacy, privacy and self-expression», *New media and society* aldizkarian, 10. Alea, 3. Zenbakia, 393-411 orriak.
- Maffesoli, M., 1990, *El tiempo de las tribus*, Icaria, Bartzelona.
- Martínez de Albéniz, I., 2003, *La poética de la política: usos de la política en el País vasco*, UPV-EHU argitalpen zerbitzua, Leioa.
- Mateos, T. eta Zabalo, J., 2012, «Estatuaz, herritartasunaz eta nazio identitateaz», Josu Amezaga Albizu, Mila Amurrio Velez, Iker Iraola Arretxe, Patxi Juaristi Larrinaga, Ane Larrinaga Renteria, Iñaki Martínez de Luna Perez de Arriba, Txoli Mateos Gonzalez, Fito Rodriguez Bornaetxea, Julen Zabalo Bilbao, *Euskal estatuari bidea zabaltzen. Herritartasuna eta kultura*, Ipar He-goia Fundazioa eta UEU, Bilbo. 13-25 Orriak.
- McLuhan, M., 1995, *La aldea global: transformaciones en la vida y en los medios de comunicación mundiales en el siglo XXI*, Gedisa, Bartzelona.
- Miller, D., 2011, *Tales from Facebook*, Polity Press, Erresuma Batua.
- Miller, D. eta Slater, D., 2000, *Internet. An ethnographic approach*, Berg, Oxford.
- Miranda, B., 1989, «Identidad colectiva y reproducción simbólica», Pérez-Agote, A. (koordinatzailea), *Sociología del nacionalismo*, Eusko Jaurilaritza argitalpen zerbitzua, Erandio.
- Monea, A., 2011, «Guattari's on Facebook?! affects, refrains and the digital cloud», *AOR* kongresuan komunikazioa, 1-10 orriak.
- Mursego, 2013, «Eusnob» kanta, *Hiru (3)* diskoan. <https://www.youtube.com/watch?v=gjLEt4r5eAA>
- Negroponte, N., 1995, *El mundo digital*, Ediciones B, Bartzelona.
- Ordorika, R., 2008, «Zaindu maite duzun hori» kanta, *Hamar t'erdietan 10.30 pm* diskoan. <https://www.youtube.com/watch?v=UtjzB9xrwwAw>
- Ormazabal, J. M., 2014, «Gaztea eta partaidetza: distantziak», *Jakin* aldizkarian, 203. zenbakia, 67-80 orriak.

- Parsons, T., 1960, *Family, socialization and interaction process*, Free Press, Illinois.
- Pérez-Agote, A., 1984, *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*, CIS, Madrid.
- , 1989, *Sociología del nacionalismo*, Eusko Jaurlaritza argitalpen zerbitzua, Erandio.
- , 2008, *Las raíces sociales del nacionalismo vasco*, CIS, Madrid.
- Peris, A., 2008, «Identidad nacional, televisión y vida diaria: perspectivas para un debate del caso español» *Asociación de historia contemporánea* aldizkarian, 1-20 Orriak. Eskuragarri: http://www.ahistcon.org/docs/murcia/contenido/pdf/08/alvar_peris_blanes_taller08.pdf
- , 2010, «Internet e identidad nacional: Estado, dominios y comunidades virtuales». *IC-Revista Científica de información y comunicación* aldizkarian, 7. Zenbakia, 221-253 orriak.
- Piscitelli, A., 2005, *Internet, la imprenta del siglo XXI*, Editorial Gedisa, Bartzelona.
- , 2010, *Proyecto Facebook y la posuniversidad. Sistemas operativos sociales y entornos abiertos de aprendizaje*, Ariel, Madrid.
- Ramirez, E., 1991, *De jóvenes y sus identidades: socioantropología de la etnicidad en Euskadi*, CIS, Madrid.
- Rheingold, H., 1994, *Realidad virtual*, Gedisa, Bartzelona.
- Rodríguez, S., 1992, «El necio» kanta, *Silvio* diskoan.
- Ruiz Olabuenaga, I., 1983, *Euskararen borroka: oinarrizko inkesta bat: ezagutza, erabilera, jarrerak*, Eusko Jaurlaritza argitalpen zerbitzua, Gasteiz.
- , 1984, *Atlas lingüístico vasco*, Eusko Jaurlaritza argitalpen zerbitzua, Gasteiz.
- San Cornelio, G., 2008, *Arte e identidad en Internet*, UOC argitalpen zerbitzua, Bartzelona.
- Sarrionandia, J., 2011, *Kartzelako poemak*, Susa, Zarautz.
- Scolari, C., 2013, *Narrativas transmedia: cuando los medios cuentan*, Deusto argitalpen zerbitzua, Bartzelona.
- Sennet, R., 2006, *La corrosión del carácter*, Anagrama, Bartzelona.
- , 2007, *La cultura del nuevo capitalismo*, Anagrama, Bartzelona.
- Sharpe, E. & The Magnetic Zeros, «Home» kanta, *Up from below* diskoan.
- Sued, G., 2010, «Pensando a Facebook. Una aproximación colectiva por dimensiones», Ivan Adaime, Inés Binder eta Alejandro Piscitelli-n, 2010, *Proyecto Facebook y la posuniversidad. Sistemas operativos sociales y entornos abiertos de aprendizaje*, Ariel, Madrid. 59-70 Orriak.
- Tejerina, B., 1992, *Nacionalismo y lengua, los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*, CIS, Madrid.
- Toticagüena, G., 2003, *Diáspora vasca comparada: etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas*, Servicio central de publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.
- , 2004, *Identity, culture and politics in the Basque Diaspora*, University of Nevada press, Reno.
- , 2005, *Basque Diaspora: migration and transnational identity*, Center for Basque studies, Reno.

- Txillardegi, 1972, *Hizkuntza eta pentsakera*.
- Vertovec, S., 2009, *Transnationalism*, Routledge, New York.
- Violadores del Verso, 1996, «Vivir para contarlo» kanta, *Vivir para contarlo* diskoan.
- Virilio, P., 1997, *Cibermundo, la política de lo peor*, Cátedra, Madril.
- Weber, M., 1964, *Economía y sociedad: esbozo de sociología comprensiva*, Fondo de cultura económica, Mexiko.
- Wittgenstein, L., 2003, *Tractatus logico-philosophicus*, Alianza, Madril.
- Woolgar, S., 2005, *¿Sociedad virtual?*, UOC argitalpen zerbitzua, Bartzelona.
- Yus, F., 2001, *Ciberpragmática. El uso del lenguaje en Internet*, Ariel, Bartzelona.
- Zizek, S., 2009, *Violence*, Profilebook LTD, Londres.
- Zubiaga, M., 2012, «Euskal estatua eta nazioa, ekintza kolektibo gisa: euskal estatugintzaz», Josu Amezaga Albizu, Mila Amurrio Velez, Iker Iraola Arretxe, Patxi Juaristi Larrinaga, Ane Larrinaga Renteria, iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba, Txoli Mateos Gonzalez, Fito Rodriguez Bornaetxea, Julen Zabalo Bilbao, *Euskal estatuari bidea zabaltzen. Herritartasuna eta kultura*, Ipar Hegoa Fundazioa eta UEU, Bilbo. 111-140 Orriak.
- Zulaika, J. 1990, *Violencia vasca metáfora y sacramento*, Nerea, Madril.

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 86 zenb.

Gaur egungo euskal gizartea apur bat gehiago ulertzeko aukera izango duzu liburu honen bidez eta Gizarte Modernoa gainditzen duen gizarte-ereduaren ezaugarriak identifikatu ahalko dituzu. Horretarako, euskal identitatea bezalako gai zaharra begirada, kontzeptu eta galdera berriein aztertuko dugu, orain arte ikertu gabeko espazioetan —Internet— eta metodologia berrien bidez —etnografia digitala. Euskal identitatea «zer da» galdetzetik «zelan eraikitzen da» erantzutera igaroko gara: definitzen saiatzetik hainbat modutan sentitzera, bizitzera eta eraikitzen. Horrela, Euskal Herriak Internet garaian duen forma eta habitatzeko duen territoria ezagutzeaz gain, estatu espainiar eta frantziarrak duten eragina ezagutuko dugu. Bide hau musika eta literatura munduko hainbat autoreren eskutik, atseginagoa izango zaizu.

Koldo Díaz Bizkarguenaga (San Inazio auzoa, 1985). 2014. urtean Doktorego-Tesia defendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea sailari atxikia dagoen NOR Ikerketa taldean. Universitat Oberta de Catalunya-ko (UOC) Internet Interdisciplinary Institute-n, UOttawa-n, Universidad de Buenos Aires-en (UBA) eta University of Oxford-en ikerketa-egonaldiak egin ditu. Ibilbide horri esker, hainbat artikulu-zientifiko argitaratu ditu euskal identitatearen eta IKT-en inguruan. Mondragon Unibertsitatean irakasle lanak egin zituen 2013-2015 urteen artean. Gaur egun, euskal territorioaren inguruko Doktorego-Osteko ikerketa lantzen ari da University College London-eko (UCL) antropologia sailean. Komunikabideak eta IKT ikertzen dituen Errota Digitala elkarteak kofundatzailea da.